2023-05-19 EGUBAKOITZA / 993. ZENBAKIA / 23. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

# goiena

Zu hemen zaude.



+ Iraungitzetik urrun, fresko bueltatu dira musika-talde batzuk

Aintzane Erkizia, parrokien garrantziari buruz

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023



## GAZTEAK HERRIGINTZAN ETA POLITIKAN

Udal hauteskundeetara aurkeztu diren eta zinegotzi izateko aukera duten EH Bilduko eta EAJko lau debagoiendarrek politikaz eta bozketez dihardute / 2

Ione Elkoro, Elgetako EH Bilduren zerrendako kidea; Ainhoa Sanchez, Aretxabaletako EH Bilduren zerrendakoa; Itziar Alonso, Oñatiko EAJren zerrendakoa; eta Kepa Sebal, Bergarako EAJkoa. XABIER URZELAI



**PENTEKOSTEAK 2023** / 23

**SINADURAK**


MIKEL ARROIABE / 18

GOTZON IPARRAGIRRE / 8

ESTEBAN IRUSTA MALLEA / 52

JOKIN LARRAÑAGA / 16

MARIA AGIRRE / 64





Ione Elkoro (EH Bildu, Elgeta), Ainhoa Sanchez (EH Bildu, Aretxabaleta), Itziar Alonso (EAJ, Oñati) eta Kepa Sebal (EAJ, Bergara). XABIER URZELAI

# Politika, hautagai gazteen ahotsean

Abstentzioa alderdi politikoen kezka iturri izan ohi da hauteskundeetan; batik bat, gazteena; horregatik, udal hauteskundeei begira, Debagoieneko lau herritako lau hautagai gazterekin egon da GOIENA, gazteez eta politikaz hitz egiteko

**Idoia Aranbarri Arzuaga** DEBAGOIENA

Politika gazteen interesekoa denik zalantzan dute askok; hain zuzen ere, alderdien, politikarien eta gizarte ereduaren sinesgarritasuna krisian den garai honetan. Hala ere, ideia ezin da orokortu, eta horren adibide da maiatzaren 28ko udal hauteskundeetara begira Debagoieneko herrietako alderdien zerrendetan hautagaiak diren gazteena. GOIENA horietako laurekin egon da, hastapenez, etorkizunaz eta gazteez eta politikaz hitz egiteko, besteak beste. Honako hauek dira elkarrizketatutako lau hautagaiak: Ainhoa Sanchez (Aretxabaleta, 1998), Aretxabaletako EH Bilduren zerrendan seigarrena; Kepa Sebal (Bergara, 1999), Bergarako EAJren zerrendan bosgarrena; Ione Elkoro (Elgeta, 1998), Elgetako EH Bilduren zerrendan hirugarrena; eta Itziar Alonso (Oñati, 1999), Oñatiko EAJren zerrendan hirugarrena.

### Zerrendetan lehen aldiz

Era batera edo bestera politikarekin lotura izan dute gehienek, baina lehenengo aldiz aurkeztu dira euren herriko zerrendetan. Sebalek adierazi du politikan ez dela ibili lehenagotik, baina "betidanik" gustatu zaiola politikan, ekonomian, historian eta halako gaietan jantzita egotea eta horietaz eztabaidatzea. Horregatik, "ilusioz eta jakin-minez" hartu du erronka. Elkoro, aldiz, talde batzuetako kide izan da, baina ez da inoiz alderdi batean egon. Horregatik, ez zuen ezustean hartu proposamena; izan ere, aurreratu duenez, 2019ko hauteskundeetan ere galdetu zioten.

**SANCHEZ, SEBAL, ELKORO ETA ALONSO LEHEN ALDIZ AURKEZTU DIRA ZERRENDETAN**

Kontrara, Sanchezek "harridura handiz" hartu zuen proposamena, hasiera batean, eta ostean etorri direla "motibazioa eta gogoa", politikan zuzenean ez baitu jardun. Herriko mugimenduetan ibiltzen da; gehienbat, gazte mugimenduen eta Pikarraituz Neska* Gazteen talde feministan. Horretaz gain, euskalgintzan ere badabil, Loramendi euskara elkarteko teknikaria baita. Alonso duela lau urte alderdikidetu zen EAJn. Erabaki hura hartu aurretik, EGIra gerturatu zen, eta, ordutik, Oñatiko Uri Buru Batzarrean eta EGIko Gipuzkoako Erkian egin du haren jarduna. "Ilusio berezia" egin zion Oñatiko Uri Buru Batzarreko kide batzuek hura proposatu izanak, eta eskerrak eman dizkie alderdikideei, konfiantzagatik.

### Urrun edo gertu politikatik

Gazteek politika urruneko zerbait bezala ikusten dutela esan ohi da, eta horretaz galdetu die GOIENAk hautagaiei. Aretxabaletarraren iritziz, baieztapen hori "geroz eta urrunago geratzen da gaur egungo gazteen egoeragatik: "Gazteok gauzak aldatzeko gogotsu gatoz, gauza askok aldatzeko eta eraldatzeko beharra daukatela ikusten dugu eta geroz eta gehiago aldarrikatzen dugu gure lekua behar dugula eta gure ahotsak ere garrantzia duela. Horretan gabiltza". Elgetarra ez da batere ados agertu baieztapenarekin. "Gazteek konpromiso politiko handia dutela erakutsi dute, bai Elgetan, bai Elgetatik kanpo ere. Ideia eraikitzaileak dituzte, herriaren hobekuntzara bideratuta daudenak", dio.

Oñatiarraren esanetan, berriz, politikarekiko atxikimendurik eza edo urruntzea gizartean fenomeno orokorra da, nahiz eta gazteen artean nabariagoa den sentimendua izan: "Esango nuke politikarekiko atxikimendurik ezari buruz ari garenean, sarritan, politika parte-hartzea alderdi politiko bateko kide izatearen sinonimo dela alderdi politiko bateko kide izatea, eta ez nator guztiz bat horrekin". Haren esanetan, politikan era askotara hartu daiteke parte: GKEen parte izaten, euskaraz aritzen edota mugimendu feministako kide izaten. Bada, alderdi politikoak beharrezkoak direla uste du, alderdirik gabe herritarren nahiz gazteen beharrei erantzunik eman ezin zaiela iritzita.

**LAUREK USTE DUTE ZERRENDETAN BERRITASUNA ESKERTU EGITEN DUTELA HERRITARREK**

Bergararrak nahiago izan du politika ez "erromantizatu". Hark uste duenez, bakoitza librea da parte hartu edo aldentzeko: "Parte hartzea ez da betebeharra, eskubidea baizik, eta, guk erabiltzen ez badugu, beste batek erabiliko du gure ordez".

### Datozen belaunaldiak

Sanchezen esanetan, gazteak geroz eta konpromiso gehiago hartzen dabiltza; herriak ere gazteen neurrira egon behar duela sinesten duela dio: "Datozen eta gatozen belaunaldiak hau aldarrikatu eta horrela izateko lanean gabiltza eta horretan jarraituko dugu. Harrobi benetan esperantzagarria eta motibagarria dela esango nuke. Alde horretatik, lasai egon gaitezkeela uste dut, gazteak aldaketetarako gogotsu gatoz eta horiek posible egiteko konpromisoa barruan daukagu". Ildo beretik jarraitu du Elgetako EH Bilduko zerrendakideak, azken denboraldian jende berri asko inguratu delako udalgintzara, eta, horrela, etorkizuna ziurtatuta dagoela ikusten baitu.

Alonsok, berriz, EAJren harrobia "osasuntsu ikusten du. Jende "berri eta baliotsu" asko dagoela dio, eta, horretarako, herrietako zerrendetako hautagaiak ikusi besterik ez dagoela: "Gazteon interesak eta iritziak ordezkatzeko prest gaude. Alderdi zaharra gara, 127 urte ditu gure alderdiak, baina osasun onean eta gaztetuta gaude. Gure artean ere belaunaldi aldaketa nabari da, eta hori onuragarria da guretzat, gazteontzat".

### Herritarren pertzepzioa

Gaztetasuna edo esperientzia. Zer ote dute nahiago herritarrek udalean? Euren iritzia eskatu

diegu zerrendakideei. Sebalek nabarmendu du gazteek beste perspektiba bat dakartela, "berritzaileagoa eta alternatiboagoa", besteak beste, baina baita esperientzia gutxikoa ere. Espero du lan egiteko eta ikasteko gogoak orekatzea. Bere horretan, baina aitortu du animo eta laguntza asko jaso duela. Oñatiarrak gaineratu du "ilusioz" hartzen dutela gaztetasuna herritarrek, "freskotasuna eta berritasuna" toki guztietan direla ongietorriak iritzita. "Ideia, ikuspuntu eta iritzi berriak ditugu denok, gure herriaren eta komunitatearen alde erabiliko ditugunak", azaldu du.

Elgetarraren esanetan, gazteek, orokorrean, ondo hartzen dute: "Azken finean, gure artean dauden problematikak ondo ezagutzen ditugu. Herri txikietan, gainera, badago herritarren arteko hurbiltasun puntu hori".

**Bozkatzearen garrantzia**

Lau hautagaiek maiatzaren 28an botoa emateko dei egin diete gazteei. Ainhoa Sanchezek dio gazteen hitza garrantzitsua dela, "gazteak direlako ikuspegi berriekin datozenak eta gauzak eraldatzeko gogo eta motibazioa dutenak". Kepa Sebalek, beste behin, gogorarazi du botoa eskubidea dela eta norberak erabiltzen ez badu beste batek baliatuko duela hartutako erabakia. Ione Elkorok argi dauka ez bozkatzea erabaki politikoa dela, eta espero du ez bozkatzearen arrazoia hausnarketaren ondorio izatea, eta ez "pasotismo edo nagikeriaren" ondorio. Azkenik, Itziar Alonsok azpimarratu du etorkizuna dagoela jokoan: "Gure belaunaldiak bozkatzen ez badu, besteek erabakiko dute gure ordez".

# Hautagaiak, gazteei eta botatzeari buruz



**AINHOA SANCHEZ**
**EH BILDU** ARETXABALETA

**"Eskubide bati uko egitea ez dago nire planen barruan"**

Herritar ororen botoa da garrantzitsua, baina arreta berezia jartzen da gazteenean. Bozkatzeko aukera duenetik ez du sekula zalantzan jarri botoa eman edo ez: "Historian zehar asko kostatu den zerbait da eta gaur egun 18 urtetik gorakook daukagun eskubidea da; hortaz, eskubide bati uko egitea ez dago nire planen barruan". Dioenez, gazteak geroz eta gehiago konturatzen dira gizartea aldatzeko beharraz. Hortaz, egoerak aldatzen hasteko "bidean murgiltzeko aukera bakarra" da boto eskubideaz aprobetxatzea.

**Askotariko ikuspegiak**

Gazteen hitza ere garrantzitsua dela azaldu du, gazteak ikuspegi berriekin datozela eta gauzak eraldatzeko gogo eta motibazioa dutela iritzita: "Hortaz, uste dut ondo egiten dela gugan delegatzen. Betiere, alde batera utzi barik denok batera egin beharreko zerbait dela. Ikuspegi ezberdinak mahaigaineratu, eztabaidatu eta adin tarte guztiek elkarren artean aberasteko bide horretan murgilduta".



**KEPA SEBAL**
**EAJ** BERGARA

**"Kritiko agertu direnen alternatibak entzungo nituzke"**

Lagun kuadrillan komentatu, eta mota guztietako iritziak jaso eta gogoeta egin ondoren erabaki zuen baietz esatea. Hainbat arrazoi medio, zenbaitek erabakitzen du ez bozkatzea. Horren aurrean, Sebalek azpimarratu du kritiko agertu direnek proposatzen duten alternatiba "interes" handiarekin entzungo lukeela: "Hauteskundeetaz gain, parte-hartze zuzen eta aktiboa areagotzea izan daiteke irtenbidea, agian? Ez dakit". Paradoxikoa iruditzen zaio politikan egunean ez daudenen egoera; izan ere, gehien informatu daitezkeen garaian bizi gara.

**Arreta berezia gazteengan**

Gazteen botoan jartzen da arreta askotan, baina hori zergatik izan daiteke? Honako hau erantzun du Sebalek: "Askotan, gazte guztiok berdin bizi eta pentsatzen dugula ematen du; izan ere, haien bozkak erakartzeko, gazteon benetako arazoei konponbide errealak planteatu beharko dizkie proiektu politiko bakoitzak. Horregatik jartzen da arreta gazteengan".



**IONE ELKORO**
**EH BILDU** ELGETA

**"Ez bozkatzea ez dadila izan nagikeriaren ondorio"**

Elgetako Ibon Untzetabarrenetxea alkategaiak eta Iraitz Lazkano alkateak konbentzitu zuten zerrendakide izateko: "Nire eguneroko ohituretan aldaketa ekarriko du". Ez du uste gazteentzat politika urruneko zerbait denik: "Gazteek konpromiso politiko handia dutela erakutsi dute, bai Elgetan, baita Elgetatik kanpo ere. Ideia eraikitzaileak dituzte, herriaren hobekuntzara bideratuta daudenak". Argi dauka gazteek ez bozkatzea erabaki politikoa dela: "Hauteskundeetan ez bozkatzea erabakitzen duenak bere hausnarketaren ondorioagatik egin dezala, eta ez pasotismo edo nagikeriaren ondorio".

**Gazteak ezinbesteko**

Gazteen botoa gakoa izaten da hauteskundeetan herri askotan, eta arreta hor jartzen da. Horretaz galdetuta, honako hau erantzun du elgetarrak: "Herri honen etorkizuna gara. Gazte langile eta konprometituok ezinbestekoak gara politika egiteko, modu zaharkituak alboz utzi eta berriei emateko".



**ITZIAR ALONSO**
**EAJ** OÑATI

**"Etorkizuna jokoan dago eta gazteok badugu zeresana"**

Herritarrei gustatzen ez zaizkien egoerak aldatzeko tresna bat da botoa, haren esanetan, eta hauteskundeetan bozkatzea eta politikan parte-hartzea desadostasunak erakusteko modurik onena dela iruditzen zaio, "nahitaez", politikak egunerokotasunean eragiten duela iritzita. "Alderdi bat bozkatzeak ez du esan nahi haren %100ekin ados zaudenik, baina botoa beharrezkoa da etorkizunean izango dugun herri eta gizarte eredu bat aukeratzeko orduan", gaineratu du.

**Etorkizuna, norberaren esku**

Abstentzio-mailekin eta belaunaldi kritikoa izatearekin lotu du hauteskundeetan begirada gazteengan jartzea. Horregatik, bozkatzeko dei egin die gazteei: "Inoiz baino gazte jantziagoak gara, inoiz baino prestakuntza hobea dugu, baina gure bizi-proiektuak garatzeko zailtasunak dauzkagu. Egoera horrek motibazioa galtzea eragiten du. Horregatik da garrantzitsua politikan parte hartzea eta hauteskunde hauetan bozkatzea".





EH Bilduko Debagoieneko sei alkategai eta Oskar Bordes, Elorregin. JOKIN BEREZIARTUA

# Klima aldaketari aurre egiteko proposamenak EH Bilduk

## Hautagaiek azaldu dute CO2 isurketak murrizteko urgentziaz eragin behar dela garraio politiketan

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Gipuzkoako Batzar Nagusietako EH Bilduren batzarkide Oskar Bordes Elorregin elkartu da asteon Debagoieneko hainbat alkategairekin. Salatu du azken bi legealdietan Diputazioak murrizketak egin dituela Debagoieneko garraio publikoan eta horrek auto pribatuen erabilera handitu duela. "2016an %39,2 zen eta 2021ean, %42,2. Horrek argi erakusten du garraio politikak porrot egin duela", azaldu du batzarkideak.

EH Bilduko ordezkariak konpromisoa hartu du Aldunditik Debagoieneko autobus zerbitzua hobetzeko. "Flota berritu, maiztasuna handitu, linea berriak sortu, Oñati eta Bergara lotzen dituen linea zuzena berreskuratu eta garraioa segurua izateko neurriak hartu", esan du.

**Premiazko beharrak**

Elorregin egindako agerraldian EH Bilduko ordezkariek azpimarratu dute mugikortasun politikei erreparatzea behar urgentea dela. Oñatiko alkate Izaro Elorzak azpimarratu du bailarako herrien arteko konexioa "oso mugatua" dela, eta herri txikien egoera "oso larria". EH Bildutik ezinbesteko ikusten dute irtenbideak "gaurtik eraikitzen hastea", eta "ikuspegi integralarekin". Udalen arteko elkarlana indartzea eta Diputazioarekin proposamen zehatzak garatzea aurreikusten dute.

Salatu dute, baita ere, azken bi legealdietan Aldundiak ez duela ezer egin Debagoieneko bidegorri sarea amaitzeko, ez eta bizikletaren erabilera sustatzeko. EH Bildutik konpromisoa hartu dute bizikleta bideak osatzeko eta egunerokotasunean bizikleta garraio modu erakargarria izateko egitasmoak martxan ipintzeko.

EH Bilduk, bestetik, Arrasateko Biteri plazan egin zuen aurreko asteko ekitaldi nazionala. Arrasateko alkategai Maider Morrasi eta Debagoieneko gainerako alkategaiei babesa ematen izan ziren Gipuzkoako diputatugai nagusi Maddalen Iriarte eta EH Bilduko idazkari orokor Arnaldo Otegi.

# Alderdi Popularreko hautagaiek agerraldia egin dute Oñatin

Oñati gizadiaren ondare izendatzeko proposamenaz aritu ziren astelehenean Alderdi Popularreko hautagaiak. 2003an Unescok gizadiaren ondare izendatutako Baeza hiriko alkate ohi Javier Calvente izan zuten lagun. Agerraldian izan ziren Oñatiko alkategai Ricardo Guisado eta Gipuzkoako diputatugai nagusi Mikel Lezama ere.


Alderdi Popularreko kideak Oñatin. O.E.

# "Arazoei aurre egingo dien Gipuzkoa defendatzen dugu"

## Kalitatezko enplegua eta langileen eskubideak defendatuko dituztela azaldu dute sozialistek Arrasaten


Rafaela Romero, Jose Ignazio Asensio eta Aritz Murua, Biteri plazan. A. EZKIBEL

**L.Z.L.** ARRASATE

Biteri plazan egindako agerraldian izan dira, besteak beste, sozialisten Gipuzkoako diputatugai nagusi Jose Ignazio Asensio, Arrasateko alkategai Aritz Murua eta Mugikortasun eta Lurralde Antolaketarako diputatu Rafaela Romero. Jendearen benetako arazoei aurre egingo dien Gipuzkoa eraginkorra defendatzen dutela azaldu dute. Hazkunde ekonomikoa, jasangarria eta justizia soziala uztartuko dituen eredua sustatuko dutela nabarmendu du Asensiok.

Gipuzkoarren pluraltasuna ere aldarrikatu dute sozialistek, eta hilaren 28an botoa ematea garrantzitsua dela esan dute, "abertzaleek bakarrik erabaki ez dezaten". Gaineratu dute sozialistek bermatuko dutela pluraltasuna EAJren eta EH Bilduren aurrean.


ULMA

BATZAR NAGUSIA 2023

**ULMA Embedded Solutions S. Coop. - Oñati**

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

**Eguna:** 2023ko maiatzaren 25a
**Ordua:** 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
**Lekua:** ULMA Taldeko Auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2022KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2023KO GESTIO PLANA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2022KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA. 2022KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2022KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
8. HALA BADAGOKIO, HAUEK ALDATZEA: (I) POGU III-KO II. TITULUAREN 1, 4.2 ETA 4.4 ATALAK ETA III. TITULUA, BAI ETA ESTATUTU SOZIALETAKO 31.B).N) ARTIKULUA ETA LEHEN ETA HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIAK ERE, KOOPERATIBA MONDRAGON KORPORAZIO KOOPERATIBOA, SOZIETATE ZIBILEAN BAJA EMATEAGATIK ETA HORREN ONDORIOZ KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZA TRESNEN ARAUAK GARATZEAGATIK; ETA (II) ESTATUTU SOZIALETAKO 52. BOST ARTIKULUA, KAPITAL SOZIALERAKO EKARPENEN MUGAPENARI BURUZKOA, ETA BARNE ARAUDIKO 16. ETA 20. ARTIKULUAK, BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKOA, ARAU TESTUAREN ARGITASUNA INDARTZEKO ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIETARA EGOKITZEKO
9. JARDUERA SOZIALA ULMA-N ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA
   - 9.1. 2022an ULMA Fundazioak IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua
   - 9.2. 2023an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena
   - 9.3. ULMA Fundazioak, 2023an, IPDKrekin eratutako fondoarentzat aurreikusitako aplikazioa azaltzea
   - 9.4. ULMA Fundazioak 2023rako aurreikusitako jarduera sozialaren ildoen azalpena
10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
11. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
12. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
13. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
14. AHALMENAK ESKUORDETZEA
15. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: [illegible]

*KONTSEILU ERREKTOREA*
*Oñati, 2023ko maiatzaren 2a*



Eider Mendoza, Bergarako kale batean. GOIENA

# EAJko kideek euren "egiteko modua" aldarrikatu dute

Eider Mendoza Bergaran, Elgetan eta Antzuolan izan da; Arrasaten, aldiz, EAJren mitin nazionala egin zuten

**Iñigo Barrena** DEBAGOIENA

Gipuzkoako barrutietarako Batzar Nagusietarako alderdi jeltzalearen zerrendaburuek ekitaldi politikoa egin zuten Bergaran. Han, Eider Mendoza Gipuzkoako EAJren diputatugai nagusiak hartu zuen hitza, eta haren kezka iturriak zeintzuk izan ziren adierazi zuen. Haren arabera, "alderdi politikoetako arduradun batzuek" ez dute Gipuzkoako "benetako errealitatea" ezagutzen, eta "ezagututa ere desitxuratu" egiten dutela esan zuen.

Mikel Lete Bergarako alkategaiak "herri eraikuntzaren eta elkarlanaren aldeko apustua" egingo dutela adierazi zuen.

Bergaraz gain, Mendozak Elgetara eta Antzuolara ere egin zuen bisita, alderdikideak eta alkategaiak alboan zituela. Herriak ezagutzen eta herritarrekin hizketan ere aritu ziren.

**EAJren mitina Arrasaten**

EAJk nazio mailako ekitaldia egin zuen domekan Arrasateko Herriko Plazan. Maria Ubarretxena alkategaiak eta Eider Mendoza diputatugai nagusiak euren hautagaitzak jendaurrean defendatu zituzten Iñigo Urkullu lehendakariaren, Joseba Egibar GBBko presidentearen eta EAJko beste hainbat kideren babesarekin.

Ubarretxenak "Arrasate eraldatzen jarraitzeko" apustua egingo dutela esan zuen; Mendozak, berriz, ezker abertzalea Madrilen egiten ari den jarduna kritikatu zuen, eta euren ustetan EAJren egiteko modua "eraginkorrena" dela azpimarratu zuen.

## Elkarrekin koalizioaren mitina domekan Biterin

Elkarrekin koalizioak domeka honetarako antolatu du mitina, maiatzaren 21erako, Arrasateko Biteri plazan, goizeko hamaiketan hasita, *Publikotasunaren indarra* lelopean.

Ekitaldi horretan egongo dira, alde batetik, Debagoienari dagokionez, Podemos Ahal Duguk, Ezker Anitza-IUk, Berdeak Equok eta Alianza Verdek osatzen duten Elkarrekin Arrasate koalizioaren alkategai Eva Abuin eta Elkarrekin Eskoriatza koalizioko alkategai Juan Luis Merino.

Bestetik, Miren Etxebeste Gipuzkoako diputatugai nagusiak ere parte hartuko du, eta harekin batera egongo dira Rafael Mayoral, Podemosen Gizarte Zibilarekiko eta Gizarte Mugimenduekiko Harremanetarako idazkaria; Roberto Uriarte, Bizkaiko Elkarrekin Podemosen diputatua Kongresuan; eta Arantza Gonzalez, Gipuzkoako Ezker Anitza-IUren koordinatzailea.

## Hautagai euskaldunen alde egiteko eskaera Mankomunitateak

Bailarako udalekin batera *Zatoz euskaraz udalera* kanpaina abiatu du Debagoieneko Mankomunitateak, alderdi politikoak hautagai euskaldunen alde sentsibilizatzeko. Nabarmendu dutenez, 30 urteotan udal administrazioetan "ahalegin handia" egin da euskararen erabilera sustatzeko, eta Debagoieneko udal zerbitzuetan euskara da zerbitzuetarako eta lanerako hizkuntza. Haien arabera, "ia langile guztiek" dute euskaraz lan egiteko gaitasuna, eta zinegotzien kasuan ere euskararen ezagutza halabeharrezkoa dela uste dute.

Era horretan, herritarrek hauteskundeetan egiten duten hausnarketan eragin nahi da, arreta eurengan jarrita. Badakite herritarren esku dagoela zein alderdiri eman euren botoa, baina euskara hizpide izatea "garrantzitsua" dela uste dute, eta, hain zuzen ere, bereziki horretan jarri nahi du indarra aurkeztutako kanpainak.



# Gurutze Gorriak Elorregiko ateak irekiko ditu etzi, domeka

Egitarau betea antolatu dute, eta jai giroan ospatuko duten egunera joateko dei egin diete herritarrei

**Iñigo Barrena Kortabarria**
DEBAGOIENA

Instalazioak ez ezik, egiten duten jarduera gertutik ezagutzea izango dute helburu domekan, eta eskualdeko herritarrei dei egin diete parte hartzera jai giroan ospatuko duten egunean.

Musika ekitaldiak, jolasak eta gazteentzat ekintzak antolatu dituzte, baita beste zenbait jarduera ere. Esaterako, anbulantziak eta erreskatetarako ibilgailuak ezagutzeko aukera izango da, eta salbamenduko aritzen kideak ere han izango dira, azalpenak emateko asmoz. Horrez gain, Debagoieneko Gurutze Gorriko zerbitzu soziosanitarioetako boluntarioek egun garatzen dituzten programak azalduko dituzte; tartean, atxikimendu terapeutikoko programa, laguntza-produktuen doako mailegua eta etxez etxeko laguntza. Eta ate irekiak baliatuko dituzte hainbat prestakuntzatarako ere.

## Gipuzkoako I. Tripaki Lehiaketa, Arrasaten, ekainaren 3an

Arrasateko Udalak, Ibai-artek, Ederto Harakel Gipuzkoako Harakinen Elkarteak eta Dendartean Gipuzkoako Merkatari Elkarteen Bilkurak antolatuta, ekainaren 3an egingo dute, zapatua, Seber Altube plazan, 18:00etan hasita.

Gipuzkoako harategi guztiei zuzenduriko lehiaketa da, tripaki hoberenen bila. Harategiek, lehiaketan parte hartu nahi badute, maiatzaren 29a baino lehen eman beharko dute izena, *ederto@ederto.com* helbidera mezu bat idatzita, 943 86 53 52 zenbakira deituta edo 671 64 34 88 zenbakira *whatsapp* bat bidalita.

Harategi bakoitzak guztira 750 gramo aurkeztu beharko ditu, eta ezingo dute muturrik eraman; horietatik zati bat epaimahaiak dastatu eta epaituko du eta gainontzekoa mokadutxoetan salduko dute.

## Orioko hilketa matxista salatzeko mobilizazioak

Arrasaten, Aretxabaletan, Bergaran eta Oñatin egin zituzten eguenean elkarretaratzeak, hilketa matxista salatzeko. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emandako informazioaren arabera, Ertzaintzak hilketa ikertzen jarraitzen du, baina gizonezko batek bikotekide ohia hil zuen su-arma batekin, eta, segidan, bere buruaz beste egin zuen.

Euskal Herrian aurten izandako lehen hilketa matxista izan da Orion gertatutakoa, eta, mugimendu feministak deituta, mobilizazioak egin dira. Elkarretaratze nagusia Orion egin zen asteazkenean, gurean, berriz, atzo arratsalderako deitu zituzten elkarretaratzeak.

## Bertako produktuak ezagutzeko aukera izango da asteburuan

*Debagoieneko lurraren zaporeak* izenpean bisita gidatuak egingo dituzte asteburuan bertako ekoizleekin. Haiek arduratuko dira bisitak egiteaz, eta, kanpoaldeko eremuak eta barne instalazioak erakusteaz gainera, ekoizten dituzten produktuak dastatzeko aukera izango da. Hain zuzen, gazta, gatza, barazkiak, txokolatea eta ogia izango dira produktuak, eta bost horiek ekoizten dituzten eremuak: Antzuola, Oñati, Leintz Gatzaga, Bergara eta Arrasate.

Parte hartzeko, izena eman behar da *infoturismo@debagoiena.eus* helbidean, edo 943 79 64 63 eta 943 71 89 11 telefono-zenbakietara deituta.


ULMA
BATZAR NAGUSIA 2023

**ULMA Agrícola S. Coop. - Oñati**

**OHIKO BATZAR NAGUSIA • D E I A L D I A**

**Eguna:** 2023ko maiatzaren 26a
**Ordua:** 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
**Lekua:** ULMA Taldeko Auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERRENDA**

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2022KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2023KO GESTIO PLANA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2022KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
   - 4.1. 2022ko ekitaldiko Urteko Banakako Kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
   - 4.2. 2022ko ekitaldiko Urteko Kontu Bateratuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALARENORDAINKETA. 2022KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2022KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
8. HALA BADAGOKIO, HAUEK ALDATZEA: (I) POGU III-KO II. TITULUAREN 1. 4.2 ETA 4.4 ATALAK ETA III. TITULUA, BAI ETA ESTATUTU SOZIALETAKO 31.B.LN) ARTIKULUA ETA LEHEN ETA HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIAK ERE, KOOPERATIBA MONDRAGON KORPORAZIO KOOPERATIBOA, SOZIETATE ZIBILEAN BAJA EMATEAGATIK ETA HORREN ONDORIOZ KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZA TRESNEN ARAUAK GARATZEAGATIK; ETA (II) ESTATUTU SOZIALETAKO 52. BOST ARTIKULUA, KAPITAL SOZIALERAKO EKARPENEN MUGAPENARI BURUZKOA, ETA BARNE ARAUDIKO 16. ETA 20. ARTIKULUAK, BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKOA, ARAU TESTUAREN ARGITASUNA INDARTZEKO ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIETARA EGOKITZEKO
9. JARDUERA SOZIALA ULMA-N ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA
   - 9.1. 2022an ULMA Fundazioak IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua
   - 9.2. 2023an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena
   - 9.3. ULMA Fundazioak, 2023an, IPDKrekin eratutako fondoarentzat aurreikusitako aplikazioa azaltzea
   - 9.4. ULMA Fundazioak 2023rako aurreikusitako jarduera sozialaren ildoen azalpena
10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
11. KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA IZENDATZEA
12. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
13. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
14. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
15. AHALMENAK ESKUORDETZEA
16. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: [illegible]

*KONTSEILU ERREKTOREA*
*Oñati, 2023ko maiatzaren 10a*



ULMA
BATZAR NAGUSIA 2023

**ULMA Manutencion S. Coop. - Oñati**

**OHIKO BATZAR NAGUSIA • D E I A L D I A**

**Eguna:** 2023ko maiatzaren 26a
**Ordua:** 09:00etan lehen deialdia eta 09:30ean bigarrena
**Lekua:** MU Enpresagintzako auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERRENDA**

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2022KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2023KO GESTIO PLANA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2022KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
   - 4.1 2022ko ekitaldiko Urteko Banakako Kontuak aztertzea eta onartzea, hala badagokio
   - 4.2 2022ko ekitaldiko Urteko Kontu Bateratuak aztertzea eta onartzea, hala badagokio
   - 4.3 2022ko ekitaldiko informazio ez-finantzario bateratuaren egoera aztertu eta, hala badagokio, onartzea.
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA. 2022KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2022KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
8. HALA BADAGOKIO, HAUEK ALDATZEA: (I) POGU III-KO II. TITULUAREN 1. 4.2 ETA 4.4 ATALAK ETA III. TITULUA, BAI ETA ESTATUTU SOZIALETAKO 31.B.LN) ARTIKULUA ETA LEHEN ETA HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIAK ERE, KOOPERATIBA MONDRAGON KORPORAZIO KOOPERATIBOA, SOZIETATE ZIBILEAN BAJA EMATEAGATIK ETA HORREN ONDORIOZ KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZA TRESNEN ARAUAK GARATZEAGATIK; ETA (II) ESTATUTU SOZIALETAKO 52. BOST ARTIKULUA, KAPITAL SOZIALERAKO EKARPENEN MUGAPENARI BURUZKOA, ETA BARNE ARAUDIKO 16. ETA 20. ARTIKULUAK, BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKOA, ARAU TESTUAREN ARGITASUNA INDARTZEKO ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIETARA EGOKITZEKO
9. JARDUERA SOZIALA ULMA-N ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA
   - 9.1. 2022an ULMA Fundazioak IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua
   - 9.2. 2023an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena
   - 9.3. ULMA Fundazioak, 2023an, IPDKrekin eratutako fondoarentzat aurreikusitako aplikazioa azaltzea
   - 9.4. ULMA Fundazioak 2023rako aurreikusitako jarduera sozialaren ildoen azalpena
10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
11. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
12. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
13. AHALMENAK ESKUORDETZEA
14. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: [illegible]

*KONTSEILU ERREKTOREA*
*Oñati, 2023ko maiatzaren 11*




# Maite duzun Gipuzkoa

**Pertsonak eta lurraldea erdigunean jarriko dituen eredu ekonomikoa.**

*Industria iraunkor, aurreratu eta sozialki arduratsuaren alde.*

**Bozkatu**

**ehbildu**

ZABALIK



GOTZON IPARRAGIRRE

# Bertan Disneyland

Umetan, nire gaztaroan, gure baserrietan txakurra txiki zela, sukaldera sartuz gero, sarri, ostikoaz ematen zitzaion eta ez zen berriz sartzen… Aurtengo Aste Santuan Conilgo hondartzan korrika nindoala, bikote bat, senar-emazteak ustez, itsas kontran argazkia ateratzen. Emaztea argazki kamerarekin eta gizona, hilabetetako umetxoa balitz eran, txakurra besoetan. Txakurra, txakur izaerari lotuta, alde guztietara batera begiratzen. Eta hor non entzuten diodan emakumeari: "¡Mira a papi!". A ze paradigma aldaketa!

Tartean, animalien eskubideak eta ongizatea babesteko legea. Animaliak sentsibilitatea duten izakiak kontsideratzen dituena. Uste dut legearen onurak animalien eskubideen defentsari begira ezin ukatuzkoak direla, zor zaien gutxieneko errespetu eta duintasunaren defentsan. Errespetua derrigorra da; maitatzea, aukerakoa.

**LOGIKA BALUTE BEZALA HITZ EGITEN DIEGU, AZALPEN SEKUENTZIALAK EMATEN**

Hala ere, uste dut legeak ez duela fokua animaliengan, eta gure antropozentrismoari atxikita jarraitzen dugula. Legearen ardatzean animaliak baino gehiago gure beharrak daude, eta behar horien ondorioz guk geuk erabakitzen dugu ze animaliak duen sentsibilitatea eta zeinek ez.

Zalantza egiten dut ez ote garen egoerak muturrera eramaten ari, eta ez ote garen animaliak humanizatzen ari. Logika balute bezala hitz egiten diegu, azalpen sekuentzialak eta denborari lotuzkoak ematen. Sarri-sarri, egoera bati bizkar emanda bageunde, soilik entzuten, segurutzat emango genuke ume bati berbetan ari zaizkiola, eta ez txakur bati. Pentsatu izan dut inoiz jaberen batek txakurrak erantzun egingo ote dion ustea ere baduela… Nik neuk animaliekiko tratu ona eta bakoitzak sisteman duen lekua garbi izatea hibridatuko nituzke irtenbide egokiaren bila.

Baina, agian, mundu hobe bateranzko paradigma berri baten aurrean gaude, munduarekin erlazionatzeko modu hobe baten aurrean, mundua zaintzeko begirada samur baten aurrean. Hala bada, ongi etorri, Disneyland!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE




HANDIK ETA HEMENDIK

## Gizonen espazioa

IÑIGO MARTINEZ PEÑA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

HTTPS://LABUR.EUS/CRIBP

Asko hitz egiten da, azkenaldian, maskulinitate berri baten beharraz. Ez ote ditugu oraindik eredu zaharrak alde batera utzi? Batxilergoko nire ikasleek, behintzat, ez dute genero estereotipoetan aldaketa handirik ikusten… Eta, batez ere, mutilen kasuan! Horren inguruan eztabaidatzen dugu Filosofiaren Historia ikasgaian, Simone de Beauvoirren *Bigarren sexua* liburuaren ondorioak irakurri ondoren. Eta zer diote nerabe askok? Mutila izatea kontu nahiko homogeneoa dela: edo bazara edo ez zara. Ez dago tarteko biderik, ehuneko ehunean behar duzu izan. Are gehiago, feminitatearen edozein seinalek susmagarri bihurtzen zaitu taldearen aurrean. Eta adin horretan taldearen parte izateak bereziki garrantzitsua ematen du. Ez al zara guztiz *gizon?* Horrek *neskato* bilakatzen zaitu, zuzenean. Mutil taldeek feminitatea gorrotagarri egiten dute, jakin gabe feminitatea delako hori zer arraio ote den. Ez al dira, ordea, identifikazioak betiere galdera irekiak?

Maskulinitatearen eta feminitatearen inguruko estereotipo desberdinak proposatu izan dira garai historiko zein kultura bakoitzean. Zein da estereotipo horien eragina norberarengan? Mutila edo neska izatea, estereotipoak estereotipo, galdera gisa hartu ohi dute ikasleek. [...]

"Emakumea ez da existitzen", esaten zuen Jacques Lacan psikoanalistak, modu aforistiko eta probokagarri batean: banan-banan hartu behar dira. Eta, gizonezkoak? Horiek, bere ustez, errazago diluitzen dira masa gisa. *Gizon* identifikazioak aniztasuna ukatzeko joera dauka: armada edo eliza hartzen zituen Freudek masa mota maskulino horien eredugarri, identifikazio homogeneoen bultzatzaile nagusi.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.500 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

# "Oso ikasketa praktikoak eta motibagarriak dira"

**MIKEL AZKOAGA** GIKAI GOI MAILAKO ZIKLOKO IKASLEA ARIZMENDIN
**MARKEL ALBURQUERQUE** GIKAI GOI MAILAKO ZIKLOKO IKASLEA ARIZMENDIN
**XABIN ARRIOLA** GIKAI GOI MAILAKO ZIKLOKO IRAKASLEA ARIZMENDIN

Lanbide Heziketako ibilbide osoa eskaintzen dute Arizmendi Ikastolan: oinarrizko Lanbide Heziketa, erdi mailako hiru ziklo –osasungintzarekin eta informatikarekin lotutakoak– eta goi mailako zikloa den Gizarte eta Kirol Animazioaren Irakaskuntza (GIKAI). Inguruko erakundeen beharretara egokitutako eskaintza da, bertan praktikak egiteko aukerarekin eta laneratze tasa handiarekin. GIKAIko lehen urteko ikasle dira Mikel Azkoaga eta Markel Alburquerque, eta irakasle Xabin Arriola.

**Mikel, nola heldu zinen zu GIKAIra?**
Batxilergoak ez ninduen motibatzen, eta erdi mailako ziklo bat egin nuen Oñatin. Oso argi dut kirolaren mundua dela niri gustatzen zaidana, eta lagunek oso ondo hitz egiten zuten goi mailako ziklo honetaz. Unibertsitatean sartzeko nota lortzeko modua ere izan daiteke.

**Markel, zure kasuan?**
Batxilergo zientifiko batetik nator. Beti gustatu izan zait kirola, eta ez nuen pentsatua zuzenean unibertsitatean sartzea. Lagun asko eduki ditut hemen eta oso ondo egin didate berba Arizmendiko ziklo honetaz. Titulu bat lortzeko eta nota igotzeko helburuekin hasi nintzen. Gertutasuna ere garrantzitsua da niretzat.


Mikel Azkoaga eta Markel Alburquerque ikasleak eta Xabin Arriola irakaslea. L.Z.L.

**Xabin, 32 urte dira formakuntza hori eskaintzen duzuela. Asko aldatu dira gauzak urteotan?**
29 urte dira hemen nagoela, eta aldaketa handiak izan dira: kirol jarduera berri asko agertu dira, irakasteko modu berriak sartu dira, bidean bi hezkuntza erreforma izan ditugu... Hasieran, TAFYD zen, eta urte bakarrekoa; orain, GIKAI da eta bi urteko goi mailako zikloa da. Egokitzen joan gara. Aldatu ez duguna hasierako filosofia da. Argi dugu zertarako gauden hemen, zertara datozen gure ikasleak eta nola jokatu behar dugun haiekin. Konfiantzaren pedagogiarekin egiten dugu lan; gure helburua da formatzearekin batera ikasleak lor dezala amesten duen etorkizuneko proiektua gauzatzea.

**Nola lortzen da konfiantza hori eraikitzea, Xabin?**
Sinistu egin behar duzu ikasleen posibilitateetan, eta lortu behar duzu haiek ere sinistea. Lorpen maila izugarri handitzen da. Ikasgaiak ondo ematea oso garrantzitsua da, baina motibazio faltarekin datorren ikasleak sentitu behar du benetan zaudela laguntzeko. Fisioterapia eta IVEF ikasketetarako 11tik gorako nota eskatzen dute, eta, ikaslearen helburua hori bada, harekin batera sartzen gara borroka horretan. Kalkulatzen dut mila bat ikasle pasako zirela guretik; eta esan daiteke bailara honetako fisioterapeuta, erizain, kirol monitore eta entrenatzaile asko hemendik pasatakoak direla.

**Mikel, gomendatzen duzu zikloa?**
Lehen ikasturtea oso ondo joan zait, nik pentsatu baino askoz hobeto. Irakasleen gertutasuna eta ematen diren moduluak azpimarratuko nituzke. Futboleko umeekin hasi berri naiz, eta oso erabilgarria da ikasitakoa. Gainera, urrats oso interesgarria izan daiteke batxilergotik pasa gabe unibertsitatera heltzeko.

**Iritzi berekoa zara, Markel?**
Ni oso gustura nabil. Oso giro ona dago, asko lantzen ditugu betikoak ez diren kirolak eta sumatzen dut asko ari naizela ikasten. Horrekin batera, sekulako esperientzia hartzen ari naiz, eta hori ere asko baloratzen dut.

**Xabin, Lanbide Heziketa oso kontuan hartu beharreko aukera da?**
Zalantza barik. Bakoitzak erabaki behar du zerk motibatzen duen eta nondik atera dezakeen bere bertsiorik onena. Ikasketa oso motibagarriak dira, praktikoak, eta ikasleari bi aukera zabaltzen zaizkio: titulu bat lortu eta lan mundura txertatzea edo ikasketekin jarraitzea. Gure gomendioa da zikloa amaitutakoan ikasten jarraitzea, eta aukera badago ikasketak lanarekin uztartzea.

**"LEHEN IKASTURTEA OSO ONDO JOAN DA, NIK PENTSATU BAINO ASKOZ HOBETO"**
MIKEL AZKOAGA, IKASLEA

**"ASKO ARI NAIZ IKASTEN, ETA ESPERIENTZIA HARTZEN ERE BAI"**
MARKEL ALBURQUERQUE, IKASLEA

**"EZINBESTEKOA DA IKASLEENGAN SINISTEA ETA HAIEK MOTIBATZEA"**
XABIN ARRIOLA, IRAKASLEA



M-28

# EAJk "asmo handiko" programa aurkeztu du

"Arrasateko garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko eta etorkizuneko erronkei heltzeko" proposamen zehatzak dituzte jeltzaleek; azken zortzi urteetan udalerriak izan duen "eraldaketari" jarraipena eman gura diote: "Talde onena dugu horretarako"

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE
Aurrera begiratzen duen herri bat gura du EAJk, eta "hurbiltasuna, entzute aktiboa eta kudeaketa ona" erabiliko dituzte horretarako. Hala, "apustu estrategikoen" programa bat prestatu dute, "bi proiektu izarrekin": kirol instalazioak bultzatzea eta auzoei beharrezko irisgarritasuna eta zerbitzuak ematea.

Kirol instalazioei dagokienez, Iturripeko kiroldegia berritu gura dute, lehenik eta, ondoren, Musakolan kiroldegi berria eraiki. Era berean, Mojategiko instalazioak hobetzeko konpromisoa ere agertu dute. Irisgarritasunari lotuta, igogailu sistema bat aurreikusten dute Gorostizan eta Santa Teresan, eta, auzoekin jarraituz, Santa Teresa, Altamira, Grupo San Juan eta San Andresko Gudarien plaza berrurbanizatu gura dituzte.


Arrasateko EAJren hautagaiak Iturripen. GOIENA

Monterron jauregia turismoa bultzatzeko erabiltzea da jeltzaleen asmoa, industria eta kooperatiba nortasunaren zentroa sortuz. Halaber, merkataritza plan integrala ere prest dute, lokalak egokitzeko laguntzekin, belaunaldi-erreleboko zerbitzuarekin, digitalizazioarekin eta sektorearen modernizazioarekin.

Mugikortasun arloan, *Ekobulebar*-a Zigarrolaraino luzatzea, autobus geltoki estalia egitea eta autobus flota berritzea dira lehentasunak. Era berean, trantsizio energetikoari begira, Ekiolarekin jarraitzea, Uarkapen plaka fotovoltaikoak jartzea, ur-zerbitzuaren digitalizazioa, errekak berreskuratzeko plan integrala, Etxezarreta egokitzea eta baso publikoak handitzea dira asmoetako batzuk.

**Adinekoak eta gazteak**

Mesedeetako ikastetxean belaunaldiartekotasuna garatzeko *cohousing* proiektuarekin aurrera egitea nahi du EAJk, baita adinekoentzako bulego bat sortzea ere. Gazteei begira, Gaztegida sortu, EKKO proiektuarekin jarraitu eta emantzipaziorako alokairurako laguntzak emateko asmoa dute, eta 9-12 urte artekoendako aisialdi eskaintza eta ludoteka Elkano kalean.

**Kultura, berdintasuna, euskara**

Juan Arzamendi Musika Etxerako eta Kulturolarako programazio berriak dituzte, eta, euskara alorrean, diagnostiko integrala aurreikusten dute. Halaber, emakumeekin lankidetza dinamikak egin gura dituzte, Emakume Txokoarekin uztartuta.

**"HURBILTASUNA, ENTZUTE AKTIBOA ETA KUDEAKETA ONA ERABILIKO DITUGU"**

MARIA UBARRETXENA

M-28

# Arrasate "biziberritzea" da EH Bilduren helburua

Herri Programa aurkeztu du Arrasateko EH Bilduk eta Maider Morras alkategaiaz gain, hainbat zerrendakide izan dira ekitaldian. Monterronen egin dute, hain zuzen, jauregia "herriarentzat irekia" izatea nahi duelako ezkerreko koalizio abertzaleak

**E.A.B.** ARRASATE
Arrasate "itzalita eta triste" dagoela adierazi du Maider Morras alkategaiak, eta EH Bilduk udalerria berpizteko "politika eraginkorrak lehenbailehen" martxan jarriko dituela iragarri du, "udal eskumenei ahalik eta etekin handiena ateratzeko".

Monterronen egin dute aurkezpena, eta ez da kasualitatea. "Eraikina herriari irekitako espazio bat izatea gura dugu. Hala, gazte txokoa bertan kokatzea proposatzen dugu, belaunaldi eta adin askotariko herritarrak elkartzeko lekua, hezketarako, kulturarako, aisialdirako eta naturaz gozatzeko eremu oso aberatsa", azaldu du Eñaut Arriaran zerrendakideak.


EH Bilduren hainbat zerrendakide, eguazteneko prentsa agerraldian. E.A.B.

Tokiko merkataritza sustatzeko, merkatari eta ekintzaileendako pizgarri ekonomiko eta fiskalak erraztea, aholkularitza zerbitzuak eskaintzea edota lokalak berreskuratzeko proiektuak garatzea proposatzen dute, eta etxebizitza arloan, aldiz, etxebizitza parkearen azterketa eta berrantolaketa, Mesedeetako ikastetxeko *cohousing* proiektu publiko komunitarioa.

**Kirola herrian integratu**

Kirol Herria proiektuarekin, Musakolako kiroldegia "lehenbailehen" eraberritzeko konpromisoa hartu dute. Horrez gain, kirola herrian integratzea ezinbestekotzat dute. "Kirola inklusiorako bidea izan behar da, adin guztietako pertsonek etxetik gertu praktikatzeko aukera izan dezaten. Erraztasunak eman nahi dizkiegu herritarrei kirola praktikatzeko", dio Mikel San Miguel zerrendakideak.

**Auzoetara gerturatu gura dute**

Auzoak biziberritzeko lana "premiazkoa" dela iritzita, horietarako neurri sorta ere iragarri dute; besteak beste, aldapan dauden auzoen irisgarritasuna hobetzeko Erguinen, Gorostizan eta Makatzenan arrapalak eta eskailerak ezartzeko proiektuak eta udal zerbitzu batzuk auzoetara gerturatzeko ekimenak.

**Herri euskalduna eta feminista**

Arrasate plural, euskaldun eta feminista aldarrikatuta, berdintasunera bidean honako konpromiso hauek hartu dituzte: "Indarkeria Matxistaren Aurkako Plana kaxoitik atera, Emakume Txokoari leku duina eman eta sektore feminizatu eta prekarizatuetako emakume* langileak babestuko ditugu".

**"ARRASATE TRISTE DAGO; GUK POLITIKA ERAGINKORRAK APLIKATUKO DITUGU"**

MAIDER MORRAS

M-28

# Programa herritarrekin partekatzen ari dira sozialistak

Jakinarazi dute kanpainako hainbat ekitaldi dituztela datozen egunetan; gaur, esaterako, azokan egongo dira

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE
Martitzenean, San Andresko Maiatzaren Bata plazan egon ziren hautagai sozialistak; tartean, hainbat zerrendakide: Aritz Murua alkategaiaz gain, Johanna Sanchez, Matilde Martin eta Casimiro Roldan zerrendakideak ere han izan ziren, Blanca Roncal alderdikidearekin batera.

Datozen egunetarako ere hainbat ekitaldi dituzte aurreikusita. Gaur, esaterako, Arizmendiarrieta plazako azokan izango dira, 10:00etatik aurrera. Maiatzaren 23an, Santa Marinako Agerre plazan egingo dute ekitaldia, Miguel de los Toyosekin, 17:00etan. Azkenik, maiatzaren 26an, berriz ere Arizmendiarrieta plazako azokan izango dira, 10:00etatik aurrera, eta Eneko Andueza ere han izango da.


Alderdi sozialistako kideak, hainbat herritarrekin, martitzenean, San Andresen. PSE

M-28

# Arrasate "eraldatzeko" hamalau proposamen ditu Elkarrekinek

Auzoak erdigunera ekartzea eta zerbitzu publikoak berreskuratzea dira koalizioaren lehentasunetako batzuk

**E.A.B.** ARRASATE
Elkarrekin koalizioak hamalau proposamen ditu Arrasate "eraldatzeko". Batetik, auzoak erdigunera ekarri gura dituzte, horretarako hiru proposamenekin: "Urtero auzoetan inbertsioak bermatzeko auzo aurrekontuak sortzea; BAZ eta gizarte zerbitzu bulegoak auzoetan eratzea eta Udalarekin tramiteak auzoetatik egiteko aukera bermatzea".

Zerbitzu publikoak berreskuratzea ere bada lehentasunetako bat, pribatizatuta dauden zerbitzuak publifikatuz: "Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, herribusa, lorezaintza eta abar.

Arrasatearren ongizatea bermatzeko, pertsona nagusiei zuzendutako politikak sustatzeko batzordea eratzea da proposamenetako bat. Azkenik, herri kohesioa helburu, zaintza komunitarioa sustatzeko eta sektore pribatuko prekarietatea bukatzeko plan estrategikoa sustatuko lukete, besteak beste.

## GORA ETA BEHERA



### Bizkaia etorbidea "arriskutsu" dago

Herritar batek salatu du "ehunka" auto pasatzen direla egunero eta arriskutsu dagoela: "Marrak gaizki margotuta daude eta errepidea, egoera txarrean. Horrek istripuak sor ditzake".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.





Pentsiodunek elkartasuna adierazi zieten astelehenean egindako protestan. M.A.P.

# Akordioa lortu ostean, protestak eten dituzte

Arrasateko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko langileek eta People Plus Innovation enpresak akordioa itxi dute, eta, beraz, langileek eten egin dituzte egun hauetarako aurreikusita zituzten protestak; "Garaipen kolektibo handia izan da", diote eurek

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE
"Negoziazio gogorren" ostean, akordioa itxi dute Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko Langileek eta enpresak. Honako puntu hauek batzen ditu akordioak: %24ko soldata igoerak: 2023ko ekainetik, %4; 2024an, %11; 2025ean, %3; 2026an, %3 eta 2027an, %3; joan-etorriengatiko plusa, hileko soldataren %6koa; astean gutxienez hogei orduko lanaldia ziurtatzea langile guztientzako eta asteburuetan gutxienez hamar orduko lanaldia; enpresak ezin izango du langilearen lanaldia aldatu erabiltzaileari behin betiko baja eman eta gutxienez hilabeteko epean; lanaldiaren arabera, hamar ordu eta erdiko eta bederatzi ordu eta erdiko ordu-prestasuna kontziliaziorako eta domeka eta jaiegunetako plusa. "Egungo plusa %20 igoko da, itundutako soldata-igoerekin batera", azaldu dute ESK sindikatuko ordezkariek.

**Akordioarekin pozik azaldu dira**

Joan den astean hasi zituzten protestak langileek, enpresak kasurik egiten ez ziela eta malgutasunik ez zuela salatuz. Hala, martitzenean batu ziren Udal Gobernua eta enpresa, arazoari konponbide bat emateko helburuarekin eta iritsi da akordioa. Langileak pozik azaldu dira horrekin eta zera nabarmendu dute: "Berriz ere frogatuta geratu da antolaketa eta borroka dela bide bakarra".

"Garaipen kolektibo handia" izan dela azpimarratu dute ESK sindikatuko langileen ordezkariek. "Baina ez da hemen amaitzen, zaintzarekin ezin baita negoziorik egin. Zaindu ditzagun zaintzaileak. Borroka da bide bakarra. ESK sindikatutik beti egongo gara langileekin eta guztiontzako eskubide sozial eta laboralak aldarrikatzen".

## Ortuko landareak eta loreak protagonista biharko azokan

Ohiko ekoizleez gain, loreekin eta ortuko landareekin etorriko da Zaldibiako Azanza mintegia, eta lorategi zein ortu bertikalen tailer bat egingo dute, 10:00etan, Seber Altuben. 943 25 20 00 zenbakira deituta eta udal webgunean eman daiteke izena. Hogei leku daude, eta perrexil, piper, albaka eta tomate landareak oparituko dituzte.

## Erorikoak saihesteko tailerra egingo dute datorren astean

Erorikoak prebenitzeko tailer bat antolatu du Arrasateko Udalak, Osakidetzaren osasun zentroarekin, Arrasateko farmazia-ortopedia batekin eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin elkarlanean, maiatzaren 24rako eta 25erako, 16:30etik 18:00etara, Etxaluzen. Arrasateko osasun zentroan edo 943 03 52 50 zenbakian eman behar da izena, doan.



# Autismoaz lehen eskutik berba egiteko ordua da

Autismoaren Espektroko Nahasmenak (AEN) ikusarazteko kolektiboa osatzen dute bailara mailan zenbait gurasok eta helduk. Datorren eguaztenean, hilak 24, hitzaldia egingo dute taldekideek eta baita profesionalek ere, Kulturaten, 18:00etan hasita



Apirilaren 24an, Aretxabaletako Arkupe aretoko ekitaldian. AH.L.

**Hasier Larrea** ARRASATE

"Bada garaia autismoaren gaia ezkutuan eramatetik plazara ateratzeko". Horixe da AEN ikusarazteko kolektiboaren leloetako bat. 2022an antolatutako festa baten harira hasi ziren Aretxabaletan elkartzen egoera hori lehen pertsonan edo gertu-gertutik bizi duten herritarrak. Saretu eta elkar ezagutzen joan ondoren, hitzaldi bat antolatu zuten Arkupe aretoan apirilaren 20rako, egunerokotasunean pertsona autismodunekin lan egiten duten profesionalak gonbidatuta. Jende askoren interesa piztu zuen hitzordu hark, bete egin baitzen aretoa.

Arrakasta hura baliatuta, hilabeteren ostean Arrasaten emango dituzte gaiari buruzko ikuspuntuak. Mahai-inguru horretarako, zerbitzu integrala ematen duen Gautena elkarteko psikologo bat, Esan Logopedia zentroko logopeda bat, integrazio sentsoriala lantzen duen Kulunka elkarteko terapeuta bat, Arizmendi Ikastolako psikopedagogo bat eta tutore bat eta Zaldubi Ikastolako gizarteratze teknikari bat gonbidatu dituzte. Profesional horien testigantzei AEN duten haurren gurasoenak eta espektroan dauden helduenak batuko zaizkie, eta, bukaeran, afari-merienda egongo da guztientzat, Arrasateko zenbait ostalarik prestatuta.

**Ateak zabalik**

Gizartea AEN duten pertsonetara moldatzeko erronka du taldeak, "mundua ez baitago beraientzat eginda, eta, ondorioz, etengabe egokitu behar baitute errealitatera". Jakitun dira jendea gaiaz sentsibilizatzea dela eman beharreko lehen pausoa: "Ez baita gaixotasun bat, kondizio bat baizik; kontua da lanketa berezia eskatzen duela, ez baitira pertsona normalak. Baina nor da normala?", galdetu zuten Aretxabaletan.

## Ekintza kulturalez betetako asteburua Al-Andalus elkartean

Musakolako Al-Andalus kultur etxeak urteroko Aste Kulturalari hasiera eman dio asteon. Jubilatuen Egunarekin estreinatu zuten egitaraua, asteazkenean. Gaur, haurrengan jarriko dute arreta, 17:30ean filmak proiektatuta eta 19:00etan merienda eskainita.

Bihar, zapatua, parrillada egingo dute, 12:30ean; eta gauean, bazkide eta jarraitzaileendako afaria. 23:00etatik aurrera playback festan parte hartu ahalko dute abesteko gogoz dauden kideek. Domekan, Lourdes Oncalan dantza eskolak sevillana estiloko piezen ikuskizuna egingo du, 13:00etan; ekitaldi horrekin bukatuko da Aste Kulturala.

## OHARRAK

### Abaroako kideak, sagardotegira

Gaur, Urnietako Oianume sagardotegira joango dira; eta hilaren 26an batzar orokorra egingo dute, 16:30ean, Etxaluzen.

### Naturan jolasean

Bihar eta etzi, espeleologiaz eta izarren behaketaz gozatuko dute haurrek Arrasaten.

### 'Herria kantari' festa

Arizmendi Ikastolako ikasleek kantuan egingo dute bihar, 12:00etan hasita, Seber Altube plazan, Arbolapetan, Herriko Plazan, Uarkapen eta Biteri plazan.





*Los días ajenos de Bob Pop* bakarrizketaren une bat. MAURICIO ORLANDO RETIZ

# Bakarrizketa burutsu, intimo eta apurtzailea

Zapatu honetan, maiatzak 20, Bob Pop madrildar komiko eta kritikari ezagunak 'Los días ajenos de Bob Pop' bakarrizketa umoretsua taularatuko du Amaia antzokian, 19:30ean. Sarrerak salgai daude lehiatilan eta 'arrasate.eus'-en, 12 eurotan

**Hasier Larrea** ARRASATE

*Late motiv* telebista saioan egin zen publikoaren artean ezagun, Bob Pop izenez, Roberto Enriquez artista polifazetikoa. Urtebete darama antzokiz antzoki *Los días ajenos de Bob Pop* bakarrizketa aurkezten. Hura da obraren sortzaile eta protagonista, eta egunkari batzuetan idatziriko hausnarketetan oinarritzen du kontaketa.

Erreferentzia moduan erabili ditu Kafkaren eta Tolstoiren egunerokoak, baina, funtsean, haren bizitzako pasarte garrantzitsuak kontatzen ditu: "Steven Carringtonek marika delako hain gaizki pasatzen badu, arioa, ilehoria eta aberatsa izanda, zer gertatuko zait niri, langile klasekoa banaiz?", azaltzen du bakarrizketaren hasieran. "Marika kontraesankorra" dela uste baitu, maitemintzen denenean "mamuta ehizatzera doan barruko arra" pizten zaiolako.

Bistan denez, modu intimo eta lotsagabean zuzentzen zaio publikoari, bidaia emozional bat proposatuta. Kritikak sarri txalotu izan du haren diskurtso fresko eta askea, "sofistikatua bezain txoroa".

### Gizatasuna dario

Ordubete eta hamar minutuko saioan ahoan bilorik gabe xehatzen ditu gai aktualak eta pertsonalak, berdin baitzaio monarkiari buruz edo bere senarrari buruz hitz egitea. Izan ere, haren bizitzako maitasunak hizpide izaten dituenean, Bobek samurtasun handiz errepasatzea lortzen du haren harreman guztiak; bereziki, bikotekideari buruz hitz egiterakoan.

Itxuraz kaotikoa iruditu dakioke entzuleari bakarrizketa, baina ondo kontrolatuta dauzka denborak eta gaien arteko loturak. Askotariko kontuak primeran nahasteko abilezia baitauka, komunikatzaile apartek soilik egiten duten bezala.

Gainera, fantasiari ere tokia egitera ausartzen da, "gaur egungo gizarteak benetakotasunik ez duela kontuan hartuta, egiak makillatzea ez baitago sobera". Ikuspuntu berezi horrek "gizateriarekiko fedea apur bat berreskuratzea" eragiten duela baieztatzen du.

**GAI AKTUALAK ETA PERTSONALAK IZANGO DITU HIZPIDE BOB POP KOMIKOAK, UMOREA 'ARMATZAT' DUELA**

### Borrokalari peto-petoa

Duela lau urte, esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten Bob Popi. Ez zuen zalantzarik izan *Late motiv* saioan gaixotasun hori pairatzen zuela aitortzeko.

2021ean, LGBTI Harrotasunaren Nazioarteko Egunean, Espainiako Berdintasun Ministerioak Ostadar Aitorpena eman zion, komunikazioaren munduan LGTBI kolektiboari ikusgarritasuna emateagatik.

## Arrasate Musikal Udaberri ziklo musikalean sartu da buru-belarri

Programatutako doako hogei kontzertuetatik hamaika Juan Arzamendi Musika Etxean emango dituzte

**H.L.** ARRASATE

Asteburu hau gaiteroek girotutakoa izango da, zapatuan 12:00etan kontzertua egingo baitute Monterron jauregian. Datorren astean ez da emanaldirik egongo, eta hurrengoan, martitzenetik ostiralera, 18:00etatik aurrera, klarinete, perkusio, gitarra eta hizkuntza askotariko entzunaldi irekiak daude programatuta Juan Arzamendin eta Monterronen –egitarauaren kartela, *goiena.eus*-en–.

Egunik aipagarriena, ostera, ekainaren 10a izango da, Debagoieneko Musika Eskolen jaialdia ospatuko baitute Arrasaten, Eskoriatza, Aretxabaleta, Bergara eta Oñatiko musika eskolen parte hartzearekin.

Topaketa hori goizean izango da, baina arratsaldea ere betebetea dator, 19:00etan, Monterron parkean, Arrasate Musikaleko bandak eta The Potes taldeak kontzertu bateratua eskainiko dute-eta, Banana Shake taldeak irekiko duen ekitaldian. Jaialdi borobil hori Arrasate Musikaleko 50. urteurrenaren ospakizunen barnean txertatu dute.



**JAMEren inaugurazioan.** GOIENA

## Mariatxien erritmora dantzatuko dute zapatuan erdigunean

Aurreko aldiko arrakasta ikusita, Mexikoko doinuez gozatzeko hitzordu bikoitza antolatu du Ibai-arte merkataritza elkarteak maiatzaren 20rako.

Hala, 13:00etan, Otalora Lizentziaduna kalean, Txoko tabernaren parean, Reynaldo Caballero kubatarrak eta Izaskun Goizueta nafarrak osatzen duten Duo Imperial bikotea izango da protagonista; garai guztietako musika jotzea dute gustuko. Beraz, bermuta hartzera irteten direnei ezagun egingo zaie kantu bat edo beste.

19:00etan, berriz, akordeoiak eta ahots indartsuak entzun ahalko dira Herriko Plazan. Los Tenampas taldeko hiru kide, Artuch familiakoak, Mariachiko tronpeta eta guzti etorriko dira benetako mexikarrak eta rantxerak eskaintzera. Abestu eta gerria astintzeko aukera aparta izango dute arrasatearrek.

## Caracasko bizipenei buruzko liburua aurkeztuko dute

*Petare. Miren Egigurenen puskak* biografia estiloko liburua ondu du Leire Ibarguren idazleak. Barruko orrietan Egigurenek 46 urtean Caracasko (Venezuela) Petare auzoan bizi izandako esperientziak aurkituko ditu irakurleak. Emakume Txokoak antolatuta, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan egingo dute aurkezpena, hilaren 24an, 19:00etan.

## 'Hacia la catedral' liburua idatzi du Iker Murillo arrasatearrak

Idazlearen arabera, misteriozko lan bat da, "hainbat istorioz eta pertsonaia interesgarriz" osatutikoa. Aurkezpena gaur egingo du, egubakoitza, Dublin Irish Puben, 19:30ean. Liburuaren sortze prozesuari buruz hitz egingo du, baita obran landutako inspirazio eta gaiei buruzko xehetasunei buruz ere. Pintxoak eta musika egongo dira bukaeran.

# "Borrokalari profesional bilakatzeko unea da"

**MAIALEN GALLARDO** KICKBOXING BORROKALARIA

Arrasatekoa gimnasia erritmikoan Munduko Txapelketara joatetik borrokaldiak egitera pasa da; joan den astean, Europako muay thai txapelduna izan zuen aurrean

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Maialen Gallardok (Arrasate, 1998) bilakaera bitxia egin du kirolean, gimnasta izatetik ring batera salto egitera pasa da eta. Gaur egun, Gasteizen bizi da, nutrizio eta dietetika zentro bat ireki du, eta libre duen denbora erabat harrapatu duen kirol jarduerara bideratzen du, kickboxingera. Borrokalari profesional bilakatuko da segituan.

**Segituan helduko diogu kickboxingari, baina zure hastapenak gimnasia erritmikoan egin zenituen. Eta baita lorpen politak egin ere.**

Gimnasia erritmikoa 2018an utzi nuen, eta, hain zuzen, urte hartan Espainiako selekzioarekin Munduko Txapelketan esku hartu ahal izan nuen, Portugalen [laugarren sailkatu ziren]. Orduan, Gasteizko Biribildu taldeko gimnastekin hartu nuen esku, baina, Gasteizera bizitzera etorri aurretik, lehenago, Arrasate Dragoi taldeko taldekideekin batera Espainiako aerobik txapeldun ere izan nintzen. Gero, Gasteizen, Biribildu taldearekin beste bizpahiru aldiz ere izan nintzen Espainiako txapeldun.

**Zerk eraman zintuen gimnasia erritmikoa uztera?**

Gerriko lesio batek. Egia da gimnasia erritmikoa oso zorrotza dela, eta azken urteak zalantzekin egin nituen. Azkenean, erabakia hartzeko ordua iritsi zen.

**Gimnasia erritmikotik kickboxingera...**

[Barreak] Bai; denek esaten didate gauza bera. Unibertsitateko bigarren urtean utzi nuen gimnasia erritmikoa, eta hirugarren urtean egia da kirolari dagokionez galdu samar ibili nintzela. Korrika egitera joaten nintzen, gimnasiora... Baina ezerk ez ninduen betetzen. Ondoren, COVID-19a etorri zen eta gimnasio guztiak itxi zituzten. Eta gero, kasualitatez hasi nintzen kickboxinga egiten. Nire



Maialen Gallardo. GERSON SAN VICENTE

## "ZAPATUAN DULANTZIN EGIN NUEN BORROKALDIA IZAN DA ORAIN ARTEKO ONENA"

bikotekidea gimnasio berera joaten da, eta hark kickboxinga egiten du. Eta, tarteka, goiko solairura igotzen nintzen, zer egiten zuten ikustera.

***Dinamita* Sanchezek barrura sartu nahi ote zenuen esan zizun arte.**

[Barreak] Bikotekideak esaten zidan probatzera joateko, baina gero, ikusten nuen Sergio *Dinamita* entrenatzailea horren serio... [Sergio *Dinamita* Sanchez gasteiztarra Munduko txapelduna izan da birritan]. Eskailerak igotzen nituen, ikusten nituen gorpuzkera handiko gizon haiek, entrenatzailea horren serioa... Eta behera jaisten nintzen ostera ere [Barreak], inpresioa egiten zidan. Halako batean eskaileretan *Dinamita*-rekin topo egin nuen arte, eta behingoagatik sartzeko esan zidan.

**Eta zerekin egin zenuen barruan topo?**

Familia handi batekin. Oso harreman estua dugu denon artean, jende oso jatorrarekin egin dut topo eta elkarri asko laguntzen diogu.

**Kickboxingean hasi zinenetik ez dira bi urte pasa, eta dagoeneko borrokan ari zara.**

Hala da. 2021eko abuztuan hasi nintzen entrenatzen, eta 2022ko otsailean izan nuen lehenengo borrokaldia. Progresio oso azkarra izan dut; alegia, oso denbora tarte txikian aurrerapauso handiak eman ditut eta badakit oinarria gimnasia erritmikoak eman didala. Egunero entrenatzera joateko konstantzia eta diziplina, elikadura zaintzekoa, gorputza lehenagotik ere landua izatea... Hori guztia lagungarri izan da honaino iristeko.

**Zer-nolako debuta izan zenuen?**

Oroitzapen ona daukat, egun garrantzitsua izan zelako, baina kontrarioak boxeo zaku baten moduan erabili ninduen alde batetik bestera [Barreak]. Pentsa, nire pisua 46-47 kilokoa da, eta Euskal Herrian ez dago borrokalaririk pisu horrekin. Hala, lehenengo borrokaldia 52-55 kilo arteko borrokalari batekin egin nuen, eta, gainera, pisaketa egin ondoren jendeak ordu gutxian beste 3-4 kilo hartzen ditu. Horrenbestez, nire kontrarioak hamar kilo gehiago izango zituen, eta, noski, hori igarri egiten da [Barreak]. Baina halakoetatik ere asko ikasten da.

**Eta ondorengo borrokaldiak zer moduzkoak izan dira?**

Bada, geroago eta hobeto ikusi dut neure burua, ring gainean konfiantza hartzen joan naizelako. Ponferradan borrokatu naiz, Kanariar uharteetara joan naiz... Batera eta bestera ibili naiz, baina joan den zapatuan Dulantzin [Araba] izan nuen borrokaldia izan da maila onena erakutsi dudana.

**Nekane Aldaren hutsunea bete zenuen borrokaldi hartan...**

Bai, eta erronka potoloa izan zen. Sarritan entrenatzen naiz Nekanerekin; hura borrokalari profesionala da, baina min hartuta dago. Eta aurrean izan nuen borrokalaria Paula Andreu zen, munduko txapelduna muay thain, Europako txapelduna kickboxingean, eta hirutan izan da Espainiako txapelduna. Azken orduan hartutako erabakia izan zen, eta ez naiz damutzen. Paularen kontrako borrokaldia galdu egin nuen, baina puntutara erabaki zuten irabazlea, eta puntu bateko aldeagatik galdu nuen. Borrokaldi amaieran kontrarioa belauniko jarri zen, esker ona emateko eta errespetua erakusteko. Orain arte izan duen borrokaldi onenetakoa izan dela esan zidan, eta lanean jarraitzeko, segituan deituko nautela txapelketa garrantzitsuetarako.

**Borrokalari profesional izatea duzu helburu?**

Bai, eta, hain zuzen, azken borroka hori azterketa moduko bat izan da profesionalismora salto egiteko edo lanean jarraitu behar dudan ikusteko. Ikusteko dago beste borrokaren bat egingo dudan amateur moduan, baina saltoa emateko ordua iritsi da.

**Zer-nolako borrokalaria zara?**

Oso oldarkorra. Aurrez aurrekoak ez nau beldurtzen eta distantzia motzean ondo moldatzen naiz.

**Hortik bizitzea, baina, zaila izango da....**

Bai, oso zaila. Nire entrenatzailea munduko txapelduna da, eta lanera joaten da zortzi orduz. Babesleak egoten dira, baina hortik bizi izatea...



Iazko truke merkatuan. GOIENA

## Udaberriko Jostailu Truke Merkatua, ekainaren 1ean

Hirugarrenez egingo dute, negukoaz gain, udaberriko Jostailu Truke Merkatua, Txatxilipurdi Elkarteak antolatuta. Hala, datorren astean bilduko dituzte jostailuak, ekainaren 1ean egingo duten azokara eramateko. Erabiltzen ez diren jostailuak beste batzuekin trukatzea da ekimenaren helburua; beste erabilera bat ematea, alegia.

## Emakumeentzako 'coaching' saioa, zaldiekin

Ekin Emakumeak Elkarteak antolatuta, *coaching* saioak egingo dituzte zaldiekin Meatzerrekan ekainaren 5ean, 12an eta 19an, 17:00etatik 20:00etara. Izena eman daiteke dagoeneko, eta, prezioari dagokionez, bazkideentzat 55 euro izango da eta bazkide ez direnentzat, 60 euro. Ekintzak ingurune natural batean izango dira.

## Hau da sanjuanetako leloa: 'Euskara jantzi, lotsak erantzi!'

AEDk antolatutako lehiaketara 46 proposamen aurkeztu zituzten, eta, epaimahaiko kideek hiru finalista aukeratu ondoren, aurreko asteburuan sare sozial bidez herritarrek aukeratu zuten sanjuanetarako leloa. Kepa Arriolak, Mikel Makazagak eta Aitzol Aretxagak egindako proposamena izan da bozkatuena: *Euskara jantzi, lotsak erantzi!*



Iazko literatura lehiaketaren sari banaketa. GOIENA

# Idazlan onenak sarituko ditu Txirritola elkarteak

Ipuin, komiki eta mikroipuin lehiaketaren sari banaketa egingo dute gaur, 17:00etan, parkean. Aurtengo edizioan parte-hartzea jaitsi egin da: herritarrei zuzendutako mikroipuin sailean, esaterako, nerabeen bi lan eta helduen bakarra jaso dituzte

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO
Berrikuntza txiki batzuk izan ditu aurtengo ipuin, komiki eta mikroipuin lehiaketak; berrikuntzak edukian eta baita forman ere. Izan ere, gaur egingo duten sari banaketa kanpoaldean egingo dute lehen aldiz. Parkean banatuko dituzte sariak –euria egingo balu, kultura etxeko aretoan–.

Edukien kasuan, aldaketa txiki bat izan dute: hirugarren zikloko ikasleek ipuinak idatzi beharrean komikiak sortu dituzte; bigarren zikloko ikasleek banaka sortu dituzte ipuinak; eta LH-1eko eta LH2ko ikasleek taldeka idatzi dituzte ipuinak.

**Parte-hartzea, behera**

Txirritola Euskara Elkarteko kideek adierazi dute parte-hartzeak behera egin duela: "Eskolako umeen kasuan, eskolarekin elkarlanean egiten dugu, eta denek parte hartzen dute. Eskolan lantzen dituzten ipuinak. Jaitsi dena da herritarren parte-hartzea. Mikroipuinen sailean, nerabeen kategorian bi lan aurkeztu dituzte eta nagusien kategorian bakarra".

Hain zuzen, 2021. urteko ekitaldian estreinatu zuten mikroipuinen saila. Helburua zen herritarrak idaztera animatzea. "Ipuin motzak izan behar dute, 100 hitz baino gutxiagokoak", diote antolatzaileek. Lehenengo bi urteetan sail berriak izan duen erantzunarekin gustura geratu dira, baina aurten behera egin du parte-hartzeak.

**Herritarrak izan dira epaileak**

Txirritolaren literatura lehiaketan herritarrak izaten dira epaileak: "Guk aukeratu ditugun hiru emakume arduratu dira lanak irakurri eta irabazleak nortzuk izan diren zehazteaz. Ez dira adituak, baina aurrez ere gure lehiaketan epaimahai lanak egindakoak dira".

**DENETARIKO GAIAK EGON DIRA; KOMIKIETAN, ADIBIDEZ, LAPURRAK ETA ANIMALIAK**

Banakako sariak banatuko dituzte: mikroipuinen sailean, nagusien kategorian bakarra eta nerabeen kategorian lehenengo eta bigarren saria; hirugarren zikloan, komikiaren sailean, lehenengo eta bigarren sariak; bigarren zikloan, LH-3n lehenengo eta bigarren saria eta LH-4n lehenengo eta bigarren saria. Lehenengo zikloan, aldiz, taldekako sariak emango dituzte: eskola materiala erosteko baleak izango dira.

Idazlanetan denetariko gaiak egon direla nabarmendu dute Txirritola Euskara Elkarteko kideek, baina komikien kategorian, esaterako, "lapurrak eta animaliak" asko errepikatu direla. Txikienek, aldiz, maitasun istorioak ere sortu dituztela diote, eta Anbotoko Mari ere agertzen dela istorio baten.

## Euskara sustatzeko laguntzak emango ditu Udalak

Euskara sustatzeko 2023ko dirulaguntzak onartu ditu Aramaioko Udalak. Diruz lagunduko dituzte 2022-2023ko ikasturtean euskaltegi homologatuetan ikastaroak egin dituztenak eta 2023an UEUk antolatutako ikastaroetan parte hartuko dutenak. Onuradunak aramaioarrak izango dira. Irizpideak izango dira: A1, A2, B1, B2 eta C1 mailak: matrikularen %100eko dirulaguntza; C2 maila, matrikularen %75eko dirulaguntza; UEUko ikastaroetan matrikularen %75eko dirulaguntza. Gainera, hizkuntza paisaiari lotutako laguntzak ere emango dituzte. Eskaera egiteko epea azaroaren 30ean amaituko da.

## Oletako batzarrak hondakinen bilketa egitea eskatu du

Maiatzaren 11n egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, aho batez, Oletako Batzar Administratiboak Aramaioko Udalari egindako kudeaketa gomendio eskaria, etxeko eta antzeko hondakinak biltzeko zerbitzuak egiteko; eta baimendutako tratamendu instalazioetara eta komunitateko konpost-guneak mantentzeko eta kontrolatzeko zerbitzura garraiatzeko. Horrez gain, udalbatzak onartu zuen kudeaketa gomendioa egitea Gorbeialdeko Kuadrillari etxeko eta antzeko hondakinak biltzeko zerbitzuak egiteko eta aurrez aipatutako lekuetara eta zerbitzuetara garraiatzeko.

## Manifestazioa egingo dute bihar Gasteizen, "lurraren defentsan"

Euskal Herria Bizirik plataformak deituta, manifestazioa egingo dute bihar, zapatua, Gasteizen –18:00etan, San Anton plazan–. Salatu nahi dituzte azken urteetan egin diren edo egitekoak diren hainbat proiektu: AHTa, zentral eolikoak eta fotovoltaikoak, errraustegiak... "Landa eremua eta natura" izango direla kaltetuak nabarmendu dute.

M-28

## Iban Herrarte alkategaia Goiena telebistan izango da

EH Bilduren alkategai Iban Herrarte Goiena telebistan izango da. Gainontzeko alderdietako hautagaiei ere egin zaie debatean egoteko gonbidapena, baina ez dute onartu. Saioa maiatzaren 24an ikusi ahal izango da, 21:30ean eta 23:30ean, Txomin Madinak aurkeztuta.



NIRE USTEZ

JOKIN LARRAÑAGA

## Gazteak plazara!

Goizeko hamarrak euriz bustiriko larunbat goiz honetan. Astoak plazan. Ardiak, behiak eta zaldiak ere bai. Pertsonarik ez baina. Animalien jabeak, lauzpabost ekoizle, agure bi, eta ni, besterik ez. Gazteak lo izango dira oraindik, bart gaueko jaranatik berreskuratzen; helduak beren umeak janzten, agian; eta zaharrak leihotik begira, atertu bezain pronto kaleratzeko asmotan.

Ordu bata inguruan, aizkolarien bigarren enborrarekin batera, eguzkiaren lehen keinua laino artetik; eta haren atzetik, herriko aitona-amona guztiak kaleratu dira, beren seme-alaba eta iloba gazteenekin batera, hilerria zirudien azoka biziberrituz.

Pozgarria da azokak herria jendez, kolorez eta kulturaz bete duela ikustea, Eusko Label zigiluko jai egun hauek gure identitatearen parte baitira. Gai izango ote gara biharko egunean euskaldunon legatuaren erakusle diren azokak bizirik mantentzeko? Gazterik ez dut ikusi gaur.

# Euskadiko Eskolarteko Txapelketa dute jomuga

Bihar, Arabako bertsolari gaztetxoen Eskolarteko XXVIII. finala jokatuko dute Aramaiko Kultur Etxean. Bertan izango dira hiru aramaioar; Iraide Onaindia, Sabin Abarrategi eta Gari Arexolaleiba. Saria, Euskadiko Eskolarteko Txapelketan aritzea da

**Mikel Zumalde Etxabe** ARAMAIO

Arabako bertsolari gazteek Eskolarteko finala jokatuko dute bihar Aramaioko kultura etxean, arratsaldeko zazpi eta erdietan. Maiatzaren 4ean eman zitzaion hasiera txapelketari, eta biharko finalarekin amaituko da. Aurten, Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketak hogeita zortzi urte bete ditu, eta, guztira, hamabi gazte aritu dira kantuan, bi kanporaketatan; Gasteizen izan dira biak. Hasiera baten, bigarren kanporaketa Kanpezun jokatzekoa zen maiatzaren 12an, baina, azken unean bi bertsolarik autoan izandako arazo batengatik, eguaztenera atzeratu behar izan zen bigarren kanporaketa. Hala, biharko finalean hiru ordezkari debagoiendar egongo dira.



Gaztetxoak atzo Gasteizen jokatutako bigarren kanporaketan. PERU ABARRATEGI

### Hiru aramaioar finalean

Bi kanporaketa jokatu dira finaleko seikotea osatzeko; hiru aramaioarrak dira eta beste hirurak gasteiztarrak. Aramaioarrak dira Iraide Onaindia, Sabin Abarrategi eta Gari Arexolaleiba.

Finalerako bidea, esan bezala, Gasteizen gauzatu da. Gasteizko gaztetxea izan zen lehen kanporaketaren testigu, orain dela bi aste, maiatzaren 4an. Han aritu ziren kantuan Irati Martinezen agindUetara sei gazte; tartean, Iraide Onaindia. Saio alai eta dibertigarria egin ondoren, finalerako txartela eskuratu zuen Onaindiak, Hegoi Amabizka eta Maddi Agirre gasteiztarrekin batera.

Bigarren kanporaketa, aldiz, eguaztenean jokatu zen, Gasteizko Amaia zentroan. Beste sei bertsolari aritu ziren lehian nor baino nor gehiago. Hala, bertso ederrak eskaini zituzten bertaratu ziren hogei bat ikusleren aurrean. Seitik hiruk lortu zuen finalerako pasea, eta tartean izan ziren Gari Arexolaleiba eta Sabin Abarrategi aramaioarrak.

### Saria, potoloa

Horrenbestez, bihar Aramaioko kultura etxean jokatuko den finalean hiru aramaioarrek izango dute sari potoloa dastatzeko aukera. Sei arituko dira final handian, baina haietatik soilik bik dastatuko dute loria.

Izan ere, txapeldunak eta txapeldunordeak ekainaren 3an jokatuko den Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan arituko dira, Bizkaiko eta Gipuzkoako Eskolarteko txapeldunekin batera.

Gainera, finala aprobetxatuz, Arabako bertsozale gazteen topaketa egingo dute ekainaren 2an, 3an eta 4an, Abadiñoko Murueta baserrian. Topaketan parte hartzeko, *araba@bertsozale.eu* helbide elektronikora idatzi behar da. Hain zuzen ere, bihar amaituko da izena emateko epea.

## Datorren eguenean, ikasleen kontzertua kultura etxean

Badoa aurrera Aramaioko VIII. Musika Astea. Eguaztenean izan zen lehen ekitaldia, Itsaso Diezek eta Noemi Santamariak osatzen duten Sokaire bikotearen kontzertuarekin. Gaur, Joserra Rodrigo bilbotarrak *Poetas del rock* solasaldia egingo du Sastiñan, 18:30ean hasita. Astelehenean, *El maestro* dokumentala emango dute kultura etxean.

Hitzordu garrantzitsuenetako bat, baina, datorren eguenean iritsiko da. Aramaioko musika eskolako ikasleek urtean zehar egindako lana jendaurrean erakutsiko dute. Hilaren 25ean, 18:00etan hasita, kontzertua egingo dute kultura etxean, aurtengo sasoiari amaiera emateko. Aurreko urteko dinamika berbera jarraituko dute eta taldeka joko dituzte piezak. Hogeita hamabost ikasle arituko dira Ramones, Añube eta ETS taldeen piezak jotzen, besteak beste.

## Badator hamalaugarren Eguzkierripa Rock

Dagoeneko hasi dira motorrak berotzen Aramaioko gazteak. Hala, Eguzkierripa Rock jaialdiaren hamalaugarren edizioa datorren asteburuan izango da, hilaren 27an, Aramaioko Andra Mari ermitan.

Beste urte batzuetan bazkaria egon izan da, baina aurten ez da izango. Hala, 21:00etan hasiko diren kontzertu-sortarekin ospatuko dute Aramaion Eguzkierripa Rock jaialdiaren hamalaugarren aldia. Taldeei dagokienez, bost igoko dira oholtza gainera Andra Mari ermitan; ohikoa den El Exterminio de la Raza del Mono taldeaz gain, Rebel Noise ere izango da, 112 taldea, No Somos Cicatriz eta Rodeo. Eguraldi kaskarra dago iragarrita, eta, horrenbestez, kontzertuak aterpean izango dira, azken urteetan bezala. Beti bezala, giro ona ziurtatuta dago.

DEBAGOIENEKO
GREMIOAK

AROZTEGIAK
AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK
EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA
EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINTZA
MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Dantzariz beteko dira kaleak azken astean

Dantza Astea antolatu du Jaikik, beste behin, eta herriko hainbat talderekin elkarlanean hainbat ikuskizun eskainiko dituzte maiatzaren 26tik ekainaren 6ra bitartean; ikastaroak ere egongo dira, dantzari ekin gura diotenendako

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Maiatzaren azken egunetan dator Dantza Astea aurten ere, Jaiki elkartearen eskutik. Dantzak kalera atera gura dituztela aditzera eman du Jaikiko kide Maier Etxebarriak: "Aretxabaletan lantzen diren dantzak erakutsi gura ditugu, askotariko estiloak ezagutzera eman. Eta gero, herritarrak animatzen badira talde horietakoren baten parte hartzera urtean zehar, primeran!".

Ekitaldi-sortarekin osatu dute egitaraua: "Ikastaroak daude, batetik, oso interesgarriak, gainera; eta ikuskizunak, bestetik". Emanaldi horiek hainbat elkartek egingo dituzte; haien artean daude: Leizarra musika eskolako helduen taldea, Gemma Iñiguez partaide den saltsa taldea, Bergarako Candem Dance Studio eta Basotxo erretiratuen elkartea –euskal dantzetako taldea eta aretoko dantzak egiten dituena–.


Aretoko dantzen erakustaldia Basotxoko kideen eskutik, iaz. MIRARI ALTUBE

**Gaztetxoendako ikastaroa**
Aurtengo berritasunen artean dago 12 eta 16 urte bitarteko gazteei bideratutako ikastaroa. *Dantza garaikide eta sortzailea* da horren izena eta Zuriñe Benavente dantzariak emango du: "Nerabeek dantzan egiteko aukera askorik ez dute izaten, eta hori pentsatuta antolatu dugu". Bi saio izango dira, ekainaren 3an eta 17an, eta, handik talde bat sortuz gero, datorren ikasturtean asteroko eskolak emango dituzte. Izena aurretik eman behar da: 644 35 10 40 edo 661 95 71 86.

Beste bi ikastaro ere izango dira egun horietan: batetik, Butoh, maiatzaren 27 eta 28an, Ainhoa Alberdi aktore eta dantzariak gidatuta; eta, bestetik, ekainaren 3an, dantza garaikidearen gainekoa, Other Side Company taldeko Marie Giquelen eta Nelson Martinezen eskutik. Izena emateko edo argibideak eskatzeko: 686 17 87 19.

Haiez gain, Ecstatic Dance saioa nabarmendu gura izan du Etxebarriak: "Edonori irekitako saioa da eta hiru baldintza bakarrik bete behar dira: ezin da oinetakorik erabili, ezin da hitzik egin eta ezin da substantziarik hartu. Musika benetan polita jartzen du Oskar Estangak, eta plazer hutsa da dantzan egitea".

**Ikuskizun profesionalak**
Ikuskizunei dagokienez, berritasunen artean dago oihal akrobazia musikatua. *Oholtza mediokreen apologia* izena jarri diote eta Larraitz Arando eta Ainhoa Sanchez aretxabaletarrek hartuko dute parte, besteak beste.

Horrez gain, bi dantza konpainia profesionalek dantza garaikide ikuskizunak egingo dituzte, Fagor Automationen eta Udalaren laguntzari esker. Maiatzaren 31n, Altraste Danza konpainiak *Bolero, work in progress* emanaldia egingo du eta ekainaren 2an, Other Side Company taldeak *Cuatro puntos*.

## Egitaraua

**Maiatzak 26, ostirala**
- **18:00** Ecstatic Dance saioa. Kiroldegian.

**Maiatzak 28, domeka**
- **10:00** Haur Dantzarien Eguna. Kalean.

**Maiatzak 30, martitzena**
- **19:00** Bat-bateko konposizio dantza. Kalean.

**Maiatzak 31, eguaztena**
- **17:30** Euskal dantzak (Basotxo). Mitarten.
- **19:00** Dantza garaikidea: Altraste Danza. Mitarten.
- **19:30** Saltsa. Mitarten.

**Ekainak 1, eguena**
- **19:00** Oihal akrobazia musikatua. Plazan.
- **19:45** Euskal dantzak (Leizarra). Duranan.

**Ekainak 2, egubakoitza**
- **19:00** Dantza garaikidea: Other Side Company. Mitarten.
- **19:30** Flamenkoa, klakea, sabel dantza. Mitarten.

**Ekainak 3, zapatua**
- **17:00** Gazte tailerra: *Dantza garaikidea eta sortzailea.*

# Montferrikoak bigarrenez datoz, Urbaltzeko kideek gonbidatuta

Laugarren topaketa egingo dute ekainaren 2tik 4ra; herri bazkaria antolatu dute eta txartelak salgai daude

**M.A.** ARETXABALETA
Ekaineko lehen asteburuan etorriko dira Tarragonako Montferriko herritarrak Aretxabaletara; 50 inguru izango dira. Orain dela lau urte abian jarritako elkartrukearen baitako ekimena da, eta iaz aretxabaletarrek egindako bisita itzultzera datoz.

Kataluniarren egonaldia aprobetxatuta, Urbaltz elkartearen eguna ospatuko dute hilaren 3an, zapatuan. Bazkaria antolatu dute orduko, eta 150 bat lagun elkartzea da asmoa. Bazkarirako txartelak dagoeneko jarri dituzte salgai Urbaltz tabernan; 22 euro izango da arrunta eta 17 euro haur, gazte eta langabeena. Erosteko azken eguna maiatzaren 29a da. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte asteburu horretarako Tarragonakoen egonaldia girotzeko. Eta hori finantzatzen laguntzeko poltsak eta kamisetak jarri dituzte salgai; haiek ere tabernan dauzkate.

**Egitarau betea**
Urbaltzekoen eta Montferrikoen artean egingo den laugarren topaketa da. Lehenengoz, 2019ko otsailean joan ziren aretxabaletarrak Tarragonara, eta urte berean, ekainean, etorri ziren kataluniarrak hona. Ondoren, pandemia sasoian, ez zuten egiterik izan, eta iaz joan ziren bigarrenez Aretxabaletakoak Montferrira. Bisita hori itzultzera datoz orain handik.

Egitarau bete-betea prestatzen dabil Urbaltzeko bazkide taldetxo bat. Aurreratu dute talo-txosna jarriko dutela ekainaren 3an eta bertan ekoiztutako produktuak dastatu ahal izango direla; hanburgesak eta gazta, esaterako. Eñaut Zubizarreta musikari aretxabaletarrak eta Larraitz Iparragirre eskoriatzarrak emanalditxo bat egingo dute eta bola-txapelketa ere egingo da, beste hainbat konturekin batera.



NIRE USTEZ

**MIKEL ARROIABE**

## Alarma egoeran?

Hedabideetan eguneroko kontua da klima aldaketarena. Iazko urtea inoizko lehorrena izan zen Iberiar penintsulan eta aurtengoa iazkoaren markak hausten ari da. Doñanan, Extremaduran eta Gaztelan duten egoera larria dagoeneko Araba eta Nafarroa hegoaldera iristen ari da. Denbora kontua da gure herrira iristea. Azken egunetako euriak kontuan hartuta ere, Urkulu garai honetako minimo historikoetan dagoela irakurri dut. Egoera nahikoa serioa bada.

Gobernuek egiten dituzten kanpainek gutako bakoitzari jarri digute klima aldaketaren aurka egiteko ardura; ez gastatu ura alferrik, ez erabili kotxe partikularrik, ez jarri berogailurik neguan... Gaiaren inguruan kontzientzia hartzeko balio dute aholku horiek, baina gutako bakoitzaren eragina hutsala da industriaren, azpiegitura erraldoien eta turismo basatiaren eraginaren aurrean.

Maiatzaren 28an botoa nori eman aukeratzeko orduan hainbat irizpide izango ditugu bakoitzak; ea ingurumenarekiko jarrera ere irizpide horien artean sartzen dugun.

M-28

# Zaintza eta osasuna eta institutua, EAJren ardatzak

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Herritarrei programaren berri ematen dabiltza EAJko hautagaiak egunotan, eta eguaztenean Bedarreta auzoan elkartu ziren, Mikel Uribetxebarria alkategaia buru zutela: "Gure proiektuak zeintzuk diren zabaldu gura dugu herritarren artean. Eta egunotan jasoko dute etxean programa guztiaren berri".

**Zaintza, arreta eta osasuna**
Aretxabaletarrek "pozik" hartu dituztela jeltzaleen programan jasotakoak azaldu du Uribetxebarriak: "Proiektu zehatzak direlako eta herriarendako garrantzitsuak". Proiektu horien artean dago institutu berria. Oraingoak dituen "espazio eta ekipamendu gabeziei irtenbidea ematea" da asmoa horrekin, eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean dihardutela zioen.

"Pisu handiko" beste proiektu bat da zaintza, arreta eta osasun ekosistema. Horren baitan daude komentuan kokatuko diren eguneko arreta zerbitzua eta jubilatuen egoitza berria eta iaz hasi zituzten lanak. Hori osatzeko, etxebizitza komunitarioen proiektua ere martxan jarri gurako lukete. Zentro soziosanitarioaren lanak ere aurrera doazela gogorarazi zuen alkategaiak; osasun zerbitzuak eta Udaleko Gizarte Zerbitzuak bateratuko dira han, "aitzindari izango den ekosistema oso bat artikulatzeko".


EAJko kideak, Mikel Uribetxebarria alkategaiarekin, Bedarretan. MIRARI ALTUBE

Kirolari dagokionez, Iturrigorri pilotalekura bideratu gura dute beste inbertsio nagusietako bat, "frontoi duina izateko". Eta kiroldegiaren aurrealdeko berdeguneari ere heldu gura diote; asmoa da ur-jolasak, kalistenia parkea eta aisialdirako elementuak jartzea han.

Horiekin batera, programan jasotako beste proiektuetako batzuk dira Lausitta kaleko ur hornidura eta saneamendu sareak berritzea eta gazteei baliabideak eskaintzea jarduerak bultzatzeko.

M-28

# Auzoen beharrak ase gura ditu EH Bilduk

**M.A.** ARETXABALETA
Gipuzkoa plazan elkartu ziren EH Bilduko kideak martitzenean, agerian uzteko auzoek, herrikoek zein landa ingurukoek dituzten beharrak. "Herritarrei eta auzotarrei entzunda, dauden beharretara hobekien egokitzen diren planteamenduak garatzen jarraituko dugu", zioen Gari Iturbe alkategaiak.

Portasol alderako aurkeztutako proposamenen artean daude Loramendi kalearen eta Deba ibaiaren arteko paseoa konpontzea eta Zaraia eta Gorbeia kale inguruetako irisgarritasuna bermatzea. Kalebarrenen eta Lausittaren kasuan, ibai alboko paseoan hobekuntzak egitea da asmoa, kultura ekintzak bultzatzea eta garajeetako irteeren segurtasuna hobetzea. Txarapea ibilbidean beste igogailu bat jartzeko azterketa teknikoa egin gura dute, baita etxe osteko maldaren egonkortzea bultzatzeko ekintzak ere. Herriaren erdiguneari dagokionez, alde zaharreko arauak (PERI) aldatu gura dituzte, erraztasunak emateko, Errekabarren eta Durana arteko plaza konpontzea eta bizikletendako aparkaleku itxia egitea. Eta baserri-auzoetarako proposatu dute konponketak egiteko diru-funts bat auzo-alkateen esku uztea, auzoetako jaiak bultzatzea eta energia berriztagarrien hedapenaren gaineko ordenantza garatzea, besteak beste.


EH Bilduko hautagaiak Gari Iturbe alkategaiarekin, Gipuzkoa plazan. M.A.

**Beste hamar proposamen**
Auzoetako proposamenetatik kanpo aurkeztutako programa osatzera datozen beste hamar neurriren berri ere eman zuten: institutuarentzako lursaila, ortu komunitarioak, ibaian interbentzioak, ekintzaile eta sortzaileentzako bekak, herriko jolasguneen diagnostikoa, espazio ilunak argiztatzea, kiroldegi aurreko kirolgunea, merkataritzaren eta ostalaritzaren egutegi gida, autobus geltokia hobetzea eta autokarabanentzako huste gunea.

## Lau domina EuskoSkills-en

Aretxabaleta Lanbide Eskolako sei ikaslek hartu dute parte EuskoSkills lehiaketetan, eta lau dominarekin itzuli dira. June Saezek eta Izaro Oterok arreta soziosanitarioko modalitatean zilarrezko eta brontzezko domina bana jaso dute; Oier Limiak automobiletako teknologia modalitatean zilarrezkoa; eta Ekaitz Zabartek karrozeria modalitatean brontzezkoa.


ARETXABALETA LANBIDE ESKOLA

Jon Díaz
Harakina
Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Leizarra Musika Eskolaren instrumentuak kalean, haurrek ikusi eta ezagutzeko. MIRARI ALTUBE

# Martxan da musikaz betetako hilabetea

Hainbat instrumenturen entzunaldiekin, Haurren Egunarekin, kurtso amaierarekin eta beste hamaika ekitaldirekin agurtuko dute Leizarra Musika Eskolakoek ikasturtea. Datorren urtera begira, matrikulazioa itxita dago oraindik: maiatzaren 22an irekiko da

**Miren Arana Pagaldai** ARETXABALETA

Hemendik eta kurtso amaierara lan asko dute egiteko Leizarra Musika Eskolako irakasle eta ikasleek. Kurtsoan zehar zenbait entzunaldi egiten dituzte, instrumentu bakoitzak berea, eta oraindik entzunaldi batzuk egiteko daude; trikitiak maiatzaren 23an izango du berea. Bestela, Debagoieneko haurren egunetan ere izango dira, maiatzaren 28an Aretxabaletan eta ekainaren 4an Soraluzen; Arrasateko musika eskolaren 50. urterrenean ere izango dira, Debagoieneko beste musika eskola batzuekin batera. Mariatxen Urkia musika eskolako zuzendariak azaldu duenez: "San Juan bezpera izango da kurtso bukaera; ekainaren 23an plazan ekitaldia egingo dugu".

Matrikulazioa laster zabalduko den arren, itxita dago oraindik. "Leizarrako ikasleei galdetzen hasi zaie ea hurrengo ikasturtean jarraituko duten, eta maiatzaren 22an zabalduko dugu matrikulazioa". Maiatzaren 22tik ekainaren 16ra aukera egongo da matrikulazioa egiteko; Internet bidez egin beharko da, eta informazioa jasotzeko musika eskolako hirugarren solairura joan beharko da 17:00ak eta 19:00ak bitartean.

**Ikusi eta ezagutu**

2019an ikasturtea amaitzerakoan ateak ireki zituzten lehenengoz, baina pandemia zela-eta proiektua albo batera utzi behar izan zuten. Aurten, "esfortzu txiki bat" egin dute hori berreskuratzeko, eta gelako ekintzak kalera atera dituzte: "Gela barruan egiten duguna erakustea zen helburua. Musika eskolako ikasleak Aretxabaletako beste haurrei erakusten egon ziren; hala, instrumentuak ikusi eta ezagutzeko aukera izan zuten".

**HAURREK INSTRUMENTUAK IKUSI ETA EZAGUTZEKO AUKERA IZAN ZUTEN**

Egunaren balorazio "oso positiboa" egin zuten musika eskolakoek: "Ez ziren instrumentuak bakarrik kalera atera; nolabait, klasea atera zen; instrumentuak jotzeaz gainera, klasean egiten dira gauzak azaldu ziren modu didaktikoan. Herritarren aldetik oso parte hartze ona egon zen, eta balorazio oso ona egin dugu".

**Hasiera batean, betikoa**

Iaz, ikastaro eta instrumentu berriekin hasi ziren, dultzainarekin eta albokarekin; baina datorren ikasturtean, berez, urtero bezala hasiko dira eta ez dute ezer berririk ekarriko. Hala ere, Mariatxen Urkiak gauza berriak egitea posible dela aitortu du: "Jendeak interesa badu eta talde eta baliabideak badaude, ahal den heinean, prest gaude gauza berriak egiteko. Printzipioz, talde berdinak egongo dira, ez da ezer berririk izango".



JUAN MARI ERRASTI

## San Isidro txapelketako garaile

San Isidro txapelketak baditu garaileak: zapatuan Antzuolako pilotalekuan jokatutako finalean garaile irten ziren UDA taldeko kideak. Infantil eta kadete mailan, Ainhize Saez de Viteri gatzagarrak eta Irati Betegi aretxabaletarrak Nahia Sorondo eta Arhane Rey donostiarren aurka 18-6 irabazi zuten. UDAko bikoteak txapelketako partida guztiak irabazi ditu.

## 52. hiru txirlo bola-jokoa

Zapatuan jokatu zen 52. Gipuzkoako hiru txirlo bola-joko txapelketako zortzigarren saioa, Aretxabaletan. 68 lagun elkartu ziren nor baino nor gehiago, eta giro polita sortu zen, beste behin, bola-jokoaren bueltan. UDA taldeko Jose Luis Gorosabel eskoriatzarrak irabazi zuen txapelketa, sei txirlo botata. Hurrengo saioa Elgetan jokatuko dute, maiatzaren 20an.



UDA

## Maier Etxebarriaren hitzaldia Kukumikun maiatzaren 25ean

Umearen esperoan daudenei eta 0-18 hilabete bitarteko umeen gurasoei zuzendutako euskarazko hitzaldia egingo du Maier Etxebarriak maiatzaren 25ean Kukumikuren egoitzan. Arratsaldeko seietan hasiko da hitzaldia eta adin horretako haurren inguruko ezaugarriei buruz arituko da hizlaria: lehen urteko ohiko garapen psikomotorrari, mugimenduen askatasunean heztearen abantailari eta garrantziari, atxikimendu seguruari eta segurtasunaren zirkuluari buruz hitz egingo du; espazio eta material egokiak zeintzuk diren ere azalduko du; hitzaldia bukatzeko, gorputz-jolasen inguruan arituko da.

## OHARRAK

### Brgs DJaren emanaldia

Aretxarte merkatarien elkarteak antolatuta, Mitarte kalea girotuko du maiatzaren 19an, 19:00etatik 21:00etara.

### Odol ematea

Odola ematera deitu dituzte herritarrak. Durana kalean izango da autobusa, maiatzaren 23an, 16:45-20:00 bitartean.

### Txakolin eguna

Maiatzaren 27an, Getariako Txakolina jatorriko sei upategik parte hartuko dute Mitarte kalean egingo den topaketan. 12:30etik 14:30era bitartean.

# Motorrak berotu eta erretzeko eguna bihar

Eskomotor Eguna ospatuko dute lehen aldiz bihar, zapatua, Eskoriatzan, uztailaren 15erako antolatzen diharduten rallysprinta finantzatzeko. Askotariko ibilgailuen erakusketa, herri bazkaria, pilota partiduak eta kontzertuak egongo dira denen eskura

**Hasier Larrea** ESKORIATZA

Gogotsu dago Eskomotor taldea herriko bigarren rallysprinta antolatzeko, iazko estreinaldia nola joan zen ikusita. Aritz Zubia antolatzaileak gogoan du bero handia egin zuen uztailaren 16 hartan istripu dezente egon zirela: "Antolatzaileok kontrolatu ezin ditugun eguraldia moduko faktoreengatik eraginda-koak gehienak". Hala ere, egun haren "irakurketa positiboa" egin zuten antolatzaileek: "Batik bat, lasterketako partaideen eta publikoaren erantzun aparta ikusita".

Gustura egin eta ondo irteten diren gauzak errepikatzea izaten da ohikoena. Eskomotorreko ibilgailu-zaleek beste egun ahaztezin batez gozatu nahi dute, eta jada jarri dute bigarren rallysprinterako eguna: uztailak 16. Kontziente dira halako ekitaldi bat antolatzeak inbertsio ekonomiko handia egitea eskatzen duela, eta, rallysprinterako dirua batzeko helburuarekin, jaialdi itxurako Eskomotor Eguna antolatu dute biharko.



Iazko rallysprintean, zaleak primeran pasatzen. I. SORIANO

### Erakusketak eta kontzertuak

Logikoa den moduan, ibilgailuek protagonismo berezia izango dute. Gertuko pilotu eta lagunek ekarritako ibilgailuen erakusketak egingo dituzte herriko hiru txokotan, askotariko modalitateak ikusgai jarrita: 10:00etatik aurrera, Gorosarri plazan 4x4 estilokoak egongo dira, Santa Marinan auto klasikoak eta motorrak, eta Herriko Plazan lasterketetako autoak.

Kirol ekitaldiak ere izango du tokia, pilota partiduak jokatuko baitituzte udal pilotalekuan. 09:00etan emango diote hasiera txapelketari, eta finalak 17:30ean jokatuko dituzte.

13:00etan, berriz, *txikipoteoa* egingo dute erdigunean zehar, eta, jarraian, 195 laguneko herri bazkaria izango dute zain udal pilotalekuan: "Herriko Plazan egitea zen asmoa, baina ez dago eguraldi onik iragarrita. Hasieran, tiket gutxiago atera genituen, baina, jendeak bazkarirako interes handia erakutsi duenez, 195era igo dugu mahaikideen kopurua". Hori horrela, astelehenean itxi behar izan zuten zerrenda: "Eta, hala ere, hurrengo egunetan ere jaso ditugu tiket eskaera gehiago".

**HERRI BAZKARIAN 195 LAGUN BATUKO DIRA, FRONTOIAN: "SEKULAKO KOPURUA"**

Kontzertuekin borobilduko dute Eskomotor Eguna, pilotalekuan bertan, 21:00etan. Alor horretan ere tokiko taldeen aldeko apustua egitea lehenetsi dute. Hala, Debagoieneko lau musika talde igoko dira oholtzara: Oihu!, Youth United, Erne eta Txakurrak; gauaren hondarrean, Oier Mendizabal musika-jartzaileak astinduko ditu gerriak. Zubiak azaldu duenez, kanpoko taldeekin ere jarri dira harremanetan, baina "polita" iruditu zaie bertako musikariekin osatzea kartela: "Hemen baditugulako nahikoa musika talde".

Egitarau oso hori txukuntzeko "barruko guztia" eman dutela ere aipatu du Zubiak: "Motibatuta gaude".

## Zapatuko egitaraua

Ekitaldi gehienak Joseba Iñurrategin izango dira.

**Zapatua, hilak 20**

- **09:00** Eskupilota txapelketa, frontoian.
- **10:00** Ibilgailu klasikoen erakusketa, hiru gunetan.
- **15:00** Herri bazkaria, frontoian.
- **17:30** Eskupilotako txapelketako finalak.
- **21:00** Kontzertuak: Oihu!, Youth United, Erne eta Txakurrak.
- **Ondoren,** Oier Mendizabal DJa izango da musikarekin jaialdia borobiltzen.

## Informazioa, hatz puntarekin


GOIENA

Eskoriatzako Udalak ukipen-pantaila estiloko informazio-panela jarri du udaletxeko kanpoko paretan, Inkernu tabernaren parean. Aurrerapen teknologiko horrek atzamarra nabigatzaile moduan erabiltzea ahalbidetzen du, eta modu errazean jakin daitezke herrian programatutako ekitaldien, txoko erakargarrien zein interes orokorreko albisteen nondik norakoak.

## 'Eskoriatza bizirik' bonuak erosteko bigarren txanda

*Eskoriatza bizirik* erosketa-bonuak bigarren aldiz erosteko aukera emango du Udalak maiatzaren 29tik aurrera. Hala ere, maiatzaren 29a bitartean, bonurik erosi ez duten herritarrek lehen txandako bonuak erosteko aukera izango dute; betiere, Eskoriatzan erroldatuta badaude eta adinez nagusiak badira. Orain arte bezala, bigarren txandan 20 euro ordaindu eta 30 euro eraman ahal izango dituzte interesdunek.

Bonuak Ibarraundi museoan salduko dira, maiatzaren 29tik ekainaren 1era, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Ekainaren 2tik aurrera, astelehenetik egubakoitzera, 10:00ak eta 13:00ak bitartean, bonuak agortu arte. Orain arte bezala, ordutegi horretan erosteko aukerarik ez duenak hirugarren bati eskatu ahal izango dio bonua erosteko.

M-28

## EAJren eta EH Bilduren alkategaien arteko debatea astelehenean

Astelehenean hasi ziren Goiena telebistan udal hauteskundeetako herriz herriko alkategaiekin mahai-inguruak. Hala, Eskoriatzaren txanda astelehenean izango da, maiatzaren 22an.

Txomin Madinak gidatutako saioa 21:30ean emitituko da, eta bertan zenbait gai izango dituzte berbagai. EAJko eta EH Bilduko alkategaiek kulturari, kirolari, hezkuntzari, ongizateari, mugikortasunari zein irisgarritasunari ze proposamen zehatz egindа heldu gura dieten jakin ahalko dute eskoriatzarrek. Elizateen gaia ere irtengo da mahai gainera. Bestalde, herritarren batek galdera zehatzen bat egin nahi baldin badie, zenbaki honetara bidali dezake *whatsapp*-a: 688 69 00 07.



M-28

# Eraikitzen jarraitzera, azpiegiturak hobetuta

Eskoriatzako EAJk hamar puntuko programa aurkeztu du: "Guztion artean Eskoriatza eraikitzeko helburuarekin". Musika eskola eta kanpoko igerileku berriak, adinekoei zuzendutako arreta eta genero berdintasunaren aldeko dinamikak dauzkate jomugan

**Hasier Larrea** ESKORIATZA

Udal eta foru hauteskundeetarako atzerako kontaketa martxan dago, eta Eskoriatzako EAJk prest du herritarrei zuzendutako programa. Kultura arloan "apustu garrantzitsua" egingo du alderdi jeltzaleak, Musika Eskola berria erreferente izatea nahi baitu, "hazteko espazio duin" hori eskolako arduradunen eskutik diseinatuta.



Eskoriatzako EAJren hautagai-zerrendaren talde argazkia. ESKORIATZAKO EAJ

**Kale irisgarriak**

Adineko pertsonak udal ekintzaren erdigunean jartzea ere proposatu dute, "euren inguru hurbilenean modu autonomoan bizitzeko behar dituzten baliabideak dauzkatela ziurtatuz".

Kirolzaleei begira, hiru dira jomugan dituzten berrikuntzak: kanpoko igerilekua, pilotalekua eta muskulazio-gimnasioa.

Genero berdintasunari dagokionez, gizartearen kontzientziazioa bultzatzeaz gain, "emakumeak mehatxatuta sentitzen diren espazioak murrizteko lanean" jarraituko dutela hitz eman dute. Luis Ezeiza eskolaren ingurua berrurbanizatu eta eskoriatzarrendako topagune bihurtzea da beste egitasmo bat, Hezkuntza Sailaren, gurasoen eta ikastetxeko arduradunen eskutik.

Irisgarritasunean, San Pedro 6-9 atzealdeko espaloi berrian, Aranburuzabala kalean eta Olazar auzoan jarriko dute hobekuntza-obrak bultzatzeko arreta.

Herriko errealitate linguistikoa errespetatze aldera, euskararen erabilera eta normalizazioa bultzatzen jarraitzea bada EAJren beste asmo bat, hori ere eskoriatzarren eskutik eginda.

Baserritarrez ez dira ahaztuko, konpromisoa erakutsi baitiete haien ordezkarien eskutik lan egiteko; elizateetan azpiegitura gehiago eraikita, esaterako.

**Energia garbia eraikinetan**

Eskoriatza jasangarriagoa lortzeko, eraikin publikoak energia garbia sortzeko gailuekin hornitzeko hainbat proiektu garatzea proposatzen du EAJk. Bestalde, hiritarren energia komunitateak bultzatzen jarraitzeko erabateko konpromisioa dute Eskoriatzako jeltzaleek; adibidez, Ekiola proiektuarekin.

Eta gehien behar duten pertsonentzako laguntza-programak mantendu eta indartuko dituzte; tokiko komertzioarekin antzera, erosketa-bonuen programak eta halakoak garatzen jarraituko dute.

## Asteburuan ere eman daiteke izena haurren danborradarako

2019tik ez dute ospatu sanpedroetako ekitaldi hori, baina aurten guraso talde bat antolatzera animatu da

**H.L.** ESKORIATZA

Duela pare bat aste ireki zuten ekainaren 29ko haurren danborradan parte hartzeko izen-ematea, eta dagoeneko 2009tik 2019ra jaiotako 50 haurrek baino gehiagok eman dute izena. Arantxa Zulueta Kultura Saileko teknikariak hauxe esan du: "Gustatuko litzaiguke ahalik eta kopuru handienera heltzea, ehun partaide ingurura". Beraz, nahiz eta *eskoriatzakoagenda.eus*-en izen-ematea gaur ixten dela jarri, etzira arte luzatu dute epea, eta webgune horretan bete daiteke formularioa.



2019ko jaietan. GOIENA

Izan ere, astelehenean jarriko dira boluntarioak danborrada-taldeetako zerrendak osatzen. Eskoriatzako Udalak deialdia ireki zuen antolakuntza taldea eratzeko, eta lauzpabost gurasok hartu dute konpromisoa: "Eskertzekoa da, iaz boluntarioak erakartzeko arazoak izan genituenez bertan behera geratu baitzen ekitaldia".

Entseguei maiatzaren 29an ekingo diete Joseba Iñurrategi udal pilotalekuan, eta astelehen eta asteazkenero batuko dira, 18:00etatik 19:00etara.

## Pizza goxoa egingo dute taldean gaur gaztelekuan

Sukaldaritza tailerra izango dute hizpide gaur 12 eta 16 urte arteko gazteek, gaztelekuko arduradunek gidatuta. 18:00etan egoitzan batu eta erosketak egitetik abiatuko dute ekimena. Masa, tomatea eta gazta, noski, ez dira faltako menuan, eta gainerako osagaiak partaideen gustuen araberakoak izango dira. Arratsaldean zehar pizza prestatu eta afari-merienda eginda borobilduko dute eguna.

Datorren ostiralean ere sukalde kontuei helduko diete gaztelekuan, 18:00etan hasita, baina gonbidatu berezi baten testigantzak entzunda. Izan ere, Bittor Barandiaran sukaldari eskoriatzar gaztea jarduten duen esparruaz eta bidean aurkitu dituen esperientziez mintzatuko zaie nerabeei. Barandiaranek duela gutxi Michelin izar bat lortu duen Kanpezuko Arrea! jatetxean egiten du lan.

## Gabez Takarraran lasterketako izen-ematea aurrera doa

Ekainaren 10ean, zapatua, egingo dute Gabez Takarraran eta Pasiuen ekitaldia. Oinezkoak 20:00etan abiatuko dira erdigunetik, eta korrika egingo dutenak, 22:00etan. 25 kilometroko ibilbidean 1.200 metroko desnibel metatuari egingo diote aurre. Asensio mendia igo eta jaitsi, herriko plazatik pasa, Aitzorrotzera jo, Makatz Gain mendian gora jarraitu eta Lete auzoan jaitsiko dira parte hartzaileak, berriro plazara iritsi arte. 60 boluntarioren laguntzaz gain, bost anoa-postu egongo dira. Izen-ematea zabalik dago, ekainaren 4ra arte, *rockthesport.com* webgunean. Lasterkariek 25 euro ordaindu beharko dituzte eta oinezkoek, 15. Herri lasterketako lehen gizonezko eta emakumezko sailkatuek 300 euroko sari bana irabaziko dute, bigarrenek 200 eurokoa eta hirugarrenek 100 eurokoa.

## Zaharren etxekoek haurren umoreaz gozatuko dute berriz

2018an hasi ziren, Tortolis ludotekaren ekimenez, Jose Arana egoitzako egoiliarrei begirako ikuskizuna eskaintzen. 3 urtetik gorako haurrek gaur dute adinekoei hainbeste gustatzen zaizkien kantuak eta dantzak prestatzeko lehen hitzordua, 16:45ean ludotekan, eta datorren asteartean, ostegunean eta ostiralean jarraituko dute.

## Odola emateko bi hitzordu egongo dira datozen asteetan

Osakidetzak odol transfusioak behar dituztenei laguntzeko *Nigan bizi* kanpaina dauka martxan, eta Euskadiko Odol Emaileak elkartearen eskutik herriz herri joaten dira odola emateko materialez hornitutako autobusarekin. Bada, Eskoriatzan Herriko Plazan kokatuko dute ibilgailua, ekainaren 8an eta 15ean, 16:30etik 20:15era.

M-28

## EH Bilduk ekitaldia egingo du gaur Herriko Plazan

Eskoriatzako EH Bilduk agerraldia egingo du gaur, ostirala, 19:00etan. "Herri honen izaera eta kaleko bizitza berreskuratzeko" planak azalduko dituzte: "Eskoriatzan potentzialtasun handia dago duintasunez bizi eta tokiko merkataritzan erositа gozatu eta kontsumitzeko".

# PENTEKOSTEAK 2023



## Jai-soinuetarako gertu

Bergarako Pentekosteekin hasiera emango zaie herriz herriko festa nagusiei

ENEKO AZKARATE

RPS: 50/19

AGIRRE
HORTZ KLINIKA

Gora Bergarako jaixak!

Ibargarai 32, behea BERGARA | agirrehortzklinika@gmail.com | Tel.: 943 76 00 23 | Mug.: 665 72 36 28

# JAIETAKO EGITARAUA

## EGUBAKOITZA 26

**15:00** IKASLE BAZKARIA. Antolatzaileak: Ikama eta Bergarako Neska* Gaztiak.

**18:30** ELEKTROTXUFLA ELEKTROTXARANGA, kaleetan barrena.

**20:00** Jaiei hasiera emateko TXUPINAZOA zaintzan aritzen diren emakume langileen ordezkaritza baten eskutik eta BITORIANATXOREN JAITSIERA San Martin plazan. Segidan, Bergarako MUSIKA BANDAREN KALEJIRA hiriguneko kaleetan, San Martin plazatik irtenda. Kalejiraren ostean, berriz plazan, Xaxau konpartsaren 15 urteak ospatzeko, Enrike Txurruka Bandako zuzendariak sortu duen abestia estrenatuko dute.

**20:00** PLAZAKO TXOSNAREN IREKIERA: Hiriart, K-PO eta Blind.

**20:30** PARRILLADA AUZOLANEAN Seminarioko karpan, Oxirondo Aisialdi Guneko gurasoek antolatuta, haur eta gurasoentzat.

**21:30** ERROMERIA JOXE MENDIZABALEKIN Seminarioko karpan.

**23:00** KONTZERTUA DELIRIUM TREMENS taldearekin San Martin plazan.

**23:00** KONTZERTUAK TXOSNAGUNEAN: Orhi, The Lio eta Bad Sound. Ostean, DJ Edozer.

**00:30** KONTZERTUAK PLAZAKO TXOSNAN: Rodeo, DJ Guti & Felixin.

**07:30** SKAPAIE ELEKTROTXARANGA eta *gaupasero* argazkia.

## ZAPATUA 27

**11:00** DIANA. Bolutik, Bergarako Txistulari Banda. Labegaraietatik, Bergarako trikitilariak. Oxirondotik, Elgoibarko dultzaineroak. Ondoren, herriko plazan elkartuko dira guztiak eta BETeko umeen erraldoiekin batera Mizpirualdera egingo dute bisita.

**11:00** Herriko elkarteen arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan. Honako elkarte hauek hartuko dute parte: San Juan, Pertxa, Basalgo, Aizpe, Gure Ametsa, Aizepe eta Danok Bat.

**11:30** ERRALDOIEN GUNEA San Martin plazan: erraldoien erakusketa, gomazko erraldoien erakusketa, krispeta-makina, erraldoien liburuxka umeek margotzeko, umeentzat puzgarria... Antolatzailea: BET elkartea.

**11:30** PENTEKOSTEETARA ONGIETORRIA EGITEKO EKITALDIA, iazko Pentekosteetatik hona mundura etorri diren bergarar txikitxoei, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Ondoren, argazki bateratua ateratzea udaletxearen atzealdean, San Pedro kalean.

**12:00** ERRALDOI TALDEEN KALEJIRA Espoloitik eta Matxiategitik. Colla de Gegants i Cabuts de Borriana (Castello), Sestao eta Buztintxuri taldeak.

**13:30** BAKAILAO LEHIAKETAKO SARI BANAKETA San Martin plazan.

**15:00** PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO BAZKARIA txosnagunean. Antolatzailea: Gure Artera.

**18:00** *Erdaldun berrien kluba* BAKARRIZKETA txosnagunean.

**18:15** ERRALDOI, BURUHANDI ETA KILIKIEN KALEJIRA. Castelloko Burrianan, Sestao, Buztintxuri, Deustuko Ondalan eta Bermeoko Kieb taldeak. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon M. Lili, Ibargarai, Irizar, Kruz Gallastegi, Bideberri, Fraiskozuri, Herrilagunak, D. Irala, Barrenkalea, San Martin plaza.

**18:30** ERREKORTADORE TXAPELKETA zezen-plazan.

**19:30** GUATEKE MORE IBILTARIA txosnagunean. Antolatzailea: Martxanterak.

**17:00-21:00** Ndank Ndank Bergarako Senegalgo lagunen elkartearen TONBOLA SOLIDARIOA Irizar kalean.

**23:00** KONTZERTUA J MARTINA TALDEAREKIN San Martin plazan.

**22:30** KONTZERTUAK TXOSNAGUNEAN: Olaia Inziarte, Etxepe, Mutiko, Tatta & Denso, Mugi Panderoa. Eta tartean, sokasaltoa.

**00:30** KONTZERTUAK PLAZAKO TXOSNAN: DJ RU2, Ze Txiquia B2B Keep_A eta DJ Ruda.



Bitorianatxoren jaitsierak jendetza batuko du San Martin plazan. IMANOL SORIANO

## DOMEKA 28

**09:00** BIGANTXAK zezen-plazan.

**10:00-13:00** GESALTZA FANFARREAREKIN ANIMAZIOA herriko kaleetan.

**11:00** XLIII. HAUR ETA GAZTEEN SIMON ARRIETA PLASTIKA SARIKETA San Martin plazan. Laguntzailea: BEART elkartea.

**12:30** BERGARAKO MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA Espoloian. Euriarekin Boluko pilotalekuan.

Egitaraua:
*Encuentros.* J. R. Pascual Vilaplanaren pasodoblea.
*Tancredi.* G. Rossini-ren obertura.
*The Danserye.* T. Susato-ren XVI. mendeko dantzak, M. Mellaerts-ek bandarako moldatuak.
*Omisoka.* T. Hashimoto-k, urte berriko ospakizunetarako konposaturiko obra.
*Jaialdia.* I. Urkizu-ren moldaketa, 1970-80 hamarkadetakoko euskal kanta batzuk jasotzen dituena.
*Bergarako ereserkia.* Alfredo Glz. Chirlaque-rena.

**13:00** XLIII. haur eta gazteen Simon Arrieta PLASTIKA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA San Martin plazan.

**14:00** TXOMINGERO BAZKARIA txosnagunean, bakoitzak berea ekarrita.

**18:00** MOKOLOBLOCK KALE BLOCK TOPAKETA. San Martin plazatik hasita. Bergarako kaleetan.

**18:30** *Ez da kasualitatea (nahita egin dugu)* BERTSO SAIO MUSIKATUA txosnagunean.

**18:30** Euskal Herriko ERREKORTARIEN IKUSKIZUNA zezen-plazan.

**20:30** *Beste gu* IRRATSAIOA ZUZENEAN txosnagunean.

**21:00** HERRI AFARIA txosnagunean.

**21:30** KONTZERTUA GOXUA'N SALSA taldearekin San Martin plazan.

**22:00** KORTO LEHIAKETA eta urteurreneko brindisa txosnagunean.

## ASTELEHENA 29

### KUADRILLEN EGUNA

**12:00** KUADRILLEN ARTEKO XIII. OLINPIADAK zezen-plazan, Zaldibiako trikitilariek eta Incansables txarangak animatuta.

**12:30-14:00** DANTZALDIA Joselu Anaiak taldearekin Espoloian.

**14:30** HERRI BAZKARIA San Martin plazan, Incansables txarangaren animazioarekin. Bazkalosteko jolasak, Xaxauren eskutik.

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com





Iazko kuadrillen arteko olinpiadaren irudi bat. Astelehenetako klasikoa. AITOR AGIRIANO

**18:30** BERGARA HIRIA PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK –nesketan zein mutiletan– udal pilotalekuan. Antolatzailea: BKE Pilota saila.

**18:30** GAZTETXOENTZAKO BIGANTXAK zezen-plazan.

**20:00** KONTZERTUA txosnagunean LAKET taldearekin.

**23:00-02:00** DANTZALDIA JOSELU ANAIAK taldearekin Espoloian.

**23:00** KONTZERTUAK TXOSNAGUNEAN: Dupla bikotea eta Yogurinha Borova. Ostean, karaoke xaxautarra.

## MARTITZENA 30

### UMEEN ETA HELDUEN EGUNA

**09:00** BIGANTXAK zezen-plazan.

**11:00-14:00** JOLAS-PARKEA haurrentzako eta gazteentzako Ipintza II-ko patioan.

**12:00** HERRI KIROL ERAKUSTALDIA San Martin plazan. Aizkolariak: Hodei Ezpeleta, Alex Txikon, Ernesto Ezpeleta Bihurri eta Xabier Zaldua. Harria jasotzen: Paulo Azpiazu bergararra eta Ainitze Zumeta. Iparraldeko jokoetan: Karlos Aretxabaleta.

**13:00** BANKAKO MENDITARRAK taldearen kantu-emanaldia D. Irala kalean.

**14:30** BAZKARIA SAN JOXEPE ELKARTEAN, eta, ondoren, KANTU SAIOA Menditarrak taldearekin. Horren ondoren, dantza saioa San Joxepe elkartean.

**16:30** BOLO, TOKA ETA IGEL JOKOEN TXAPELKETA San Joxepen. Antolatzailea: San Joxepe elkartea.

**17:00-20:00** HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan.

**17:00** PILOTA PARTIDA PROFESIONALAK Udal Pilotalekuan.

**17:00** MAGIA IKUSKIZUNA plazako txosnan: Iago Mago. Eta umeentzako jolasak.

**17:30** Zirkun zirku eskolaren Bidaibizitzen HAURRENTZAKO ANTZERKI EMANALDIA txosnagunean.

**18:00** *Bidaibizitzen* TXOTXONGILO, ANTZERKI ETA ZIRKU IKUSKIZUNA Zirkun zirku eskolaren eskutik txosnagunean.

**18:30** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA gaztetxoentzat zezen-plazan.

**20:00-22:00** TRIKIDANTZ TALDEAREKIN ERROMERIA San Martin plazan.

**22:00** BITORIANATXOREN IGOERA San Martin plazan.

**22:00-22:15** TRIKIDANTZ taldearekin erromeria San Martin plazan.



Barrakak Matxiategin. AITOR AGIRIANO



*Erdaldun berrien kluba* bakarrizketa zapatuan Olatz Pagaldairekin. GOIENA

## Xaxauren egitaraua txosnagunean

**EGUBAKOITZA 26**

- **15:00** IKASLE BAZKARIA. Antolatzaileak: Ikama eta Bergarako Neska* Gaztiak.
- **18:30** Elektrotxufla ELEKTROTXARANGA.
- **23:00** KONTZERTUAK: Orhi, The Lio eta Bad Sound. Ostean, DJ Edozer.
- **07:30** Skapaie ELEKTROTXARANGA eta *gaupasero* argazkia.

**ZAPATUA 27, GURE ARTERA EGUNA**

- **15:00** PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO BAZKARIA. Antolatzailea: Gure Artera.
- **18:00** *Erdaldun berrien kluba* BAKARRIZKETA.
- **19:30** GUATEKE MORE IBILTARIA. Antolatzailea: Martxanterak.
- **22:30** KONTZERTUAK: Olaia Inziarte, Etxepe, Mutiko, Tatta & Denso, Mugi Panderoa. Eta tartean, sokasaltoa.

**DOMEKA 28, BIDELAGUN GUZTIEN EGUNA**

- **14:00** TXOMINGERO BAZKARIA, bakoitzak berea ekarrita.
- **18:30** *Ez da kasualitatea (nahita egin dugu)* BERTSO SAIO MUSIKATUA.
- **19:00** Lagundu afaria prestatzen.
- **20:30** *Beste gu* IRRATSAIOA ZUZENEAN.
- **21:00** HERRI AFARIA.
- **22:00** KORTO LEHIAKETA eta urteurreneko brindisa.

**ASTELEHENA 29**

- **20:00** Laket taldearekin KONTZERTUA.
- **23:00** KONTZERTUAK: Dupla bikotea eta Yogurinha Borova. Eta ostean, karaoke xaxautarra.

**MARTITZENA 30**

- **18:00** Bidaibizitzen TXOTXONGILO, ANTZERKI ETA ZIRKU IKUSKIZUNA Zirkun zirku eskolaren eskutik.
- **20:00** DESMUNTATZE LANAK.

Alberto Gorosabel Mendizabal eta Andrea Gorosabel Badiola doktoreak

GOROSABEL DENTAL

RPS: 258/18

943 76 56 88 • 618 95 90 17
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA
clinicagorosabel
www.gorosabeldental.com

- Ortodontzia: tradizionala eta ikusezina. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZIAREKIN.
- ESKANER DIGITALA diagnostiko zehatzak egiteko.
- AHO eta INPLANTEEN KIRURGIA punta-puntako teknologiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- Ezpainen estetika eta aurpegiko zimurrak betetzeko tratamenduak (azido hialuronikoa).

Ondo ibili jaietan!

1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DENOI!

# Aitor Zengotitabengoa da kartel garailearen egilea

Hiru lan aurkeztu dira aurtengo Pentekosteak iragartzeko kartel lehiaketara, eta horietatik bat kanporatu egin behar izan dute, ez zituelako arau guztiak betetzen; herritarrek aukeratu dute irabazlea beste bi kartelen artean, boto bidez

**Miren Arana Pagaldai** BERGARA

Aitor Zengotitabengoak eginiko *Harri, orri, ar* izena duen kartelak iragarriko ditu aurtengo Pentekoste jaiak. Herritarrek bozketa bidez irabazlearen aukeraketan parte hartzeko aukera izan dute; guztira, 191 boto jaso dira webgunearen bidez.

Pentekoste jaiak iragarriko dituen kartel lehiaketara hiru lan aurkeztu ziren arren, epaimahaiak bat bozketatik kanpo utzi behar izan zuen, oinarri guztiak betetzen ez zituelako. Irudia onargarria izateko, lehiaketako oinarrietan jasotako 5. artikuluak dioenez, nahitaez agertu behar zuen *Pentekoste jaiak 2023 Bergara* esaldiak; eta aurkeztutako lanetako batek ez du puntu hori bete. Hala, herritarrek eta epaimahaiak biren artean aukeratu dute: *Harri, orri, ar* eta *Aurtengua alaiagoa.*

Lehiaketaren oinarrietan jasotzen den bezala, Udaleko Berdintasun, Prebentzio, Komunikazio eta Kultura sailetako ordezkari banak, Jai Batzordeko ordezkari batek eta Bearteko bi kidek osatu dute epaimahaia.

**Ezohikoa**

"Egia da ez dela ohiko jaietako kartel baten diseinua, baina, nola edo hala, jendeari mezua iritsi zaiola dirudi, agian mezu desberdina izan den arren", aitortu du kartelaren sortzaileak. Zerbait "sinple" eta "antolatuagoa"egitea zen haren ideia: "Baliteke ez izatea inoiz egin den kartel alaiena, baina ez nuen kartel bizi bat egiteko asmorik; egia da ez dela guztiz simetrikoa, baina nahiko sinple egiten saiatu naiz, ordenatuago".

Epaimahaia ere konturatu da kartelak ez dituela betiko ezaugarriak jarraitzen, eta, irudiaren "argitasuna" eta duen "presentzia ozena" goraipatzeaz gain, proposamen "ausarta eta desberdina" dela ere aitortu dute. Gainera, epaimahaiak jaietako pertsonaia nagusia –Bitoriana-




Aitor Zengotitabengoa, kartelaren irabazlea. LARRAITZ ZEBERIO

construcciones
Goitu
eraikuntzak S.L.
Gora Bergarako jaiak!
• Eraikuntza orokorra • Fatxadak • Teilatua
• Terrazak • Birgaitze orokorra • Baserriak
• Unifamiliarrak • Pabilioiak • Proiektoak...
Tel.: 943 76 11 23 - Faxa: 943 76 30 41 | Masterreka 14-16 / 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
goitu@grupogoitu.com | www.grupogoitu.com

BOSCH Service
Lagun Garajea
Santalaitz, 3
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Ondo ibili jaietan!



*Harri, orri, ar* kartela.



*Aurtengua alaiagoa* kartela.

txo– kartelaren erdian jarri izana nabarmendu du, eta hori, Bitorianatxo zentroan jarri izana, emakumea erdigunean jartzearekin lotu dute.

**"Aske eta feminista"**

Ez da Aitor Zengotitabengoak irabazten duen lehenengo aldia; 2017an ere izan zen lehiaketan saritua, baina berezia izan da oraingoa, aldarrikapen bat egiteko erabili baitu kartela: "Kartelaren indarra egiten den aldarrikapenean dago, asko gelditzen da borrokatzeko, oraindik jaietan erasoak jasaten dira eta edozein plataforma erabili behar da horren aurka egiteko".

Kartelaren inguruan herritarrek izango zuten erreakzioaren "beldur" zen arren, pozik agertu da lehiaketako irabazle eta, gainera, mezu-zabaltzaile izateagatik: "Hasieran beldur nintzen arren, mezu bat zabaltzea zen nire asmoa, Bitorianatxo erdian jarrita, ez panpina, ez objektu bat; emakume indartsu eta borrokalari bati eskaini diot normalean izaten ez duen tokia. Pentekoste aske eta feministen alde egitea zen ideia".



Marrazki irabazlea, helduen kategorian.



Marrazki irabazlea, haurren kategorian.

# Zapian, Kaiet Azkarateren leloaz bat, Uzuri Osinalderen eta Eneko Ibañezen marrazkiak

**Miren Arana Pagaldai** BERGARA

Beste behin, Jardun Euskara Elkarteak Pentekoste jaietako zapirako lelo eta marrazki lehiaketak antolatu ditu. Marrazki txapelketan bi kategoria saritu dituzte: helduena eta haurrena. Lelo lehiaketarako, aldiz, kategoria bakarra izaten da. Helduen mailan hamar pertsona aurkeztu dira eta Eneko Ibañez izan da irabazlea. Haurren kategorian, berriz, 97 parte hartzaile izan dira eta Uzuri Osinalde nabarmendu da.

Urtero bezala, marrazkia esaldi batez lagunduta joango da; hamar leloren artean aukeratu behar izan du epaimahaiak marrazkiari egokien dagokiona. Aurten, Kaiet Azkaratek eraman du saria, *Euskara dantza ta jaia hirukote alaia* leloarekin.

Aukeraketa Jarduneko lantaldea osatzen duten kideek egin dute. Lehenengo, gustukoen dituzten marrazkiak aukeratzen dituzte, eta ondoren, marrazkiari egokien dagokion leloa. Bozketa lantaldean egiten dute, langile guztiek bozkatzen dute, eta boto gehien dituen marrazkia izaten da irabazlea.






**2016eko Pentekoste jaietako txosnagunea.** XAXAU JAI HERRIKOIEN KONPARTSA

# 15 urte, eta xaxatzen jarraitzeko gogoz

Xaxau Jai Herrikoien Konpartsaren 15. urteaurrena ospatzeko hainbat ekimen bultzatu dituzte: argazki erakusketa, abestia... Bestalde, Pentekoste jaietako txosnagunea Bideberrira itzuliko da berriro, iaz Oxirondo plazan egon ostean

**Miren Arana Pagaldai** BERGARA

15 urte bete berri ditu Bergarako jaiak antolatzen dituen Xaxau Jai Herrikoien Konpartsak. Pol Pol tabernak argazki erakusketa bat izan du hilabetez, konpartsaren 15 urteak gogoratzeko, eta txosnagunean ere ikusgai izango dira argazkiak jaietan. Gainera, Xaxauren omenez abesti bat egiteko Bergarako Musika Bandarekin aritu dira lanean. "Bien arteko elkarlana izan da: bandako zuzendari Enrique Txurrukak konposatu du abestia eta Xaxauko kide Aroa Elortzak jarri dio letra", azaldu du Xaxauko Andoni Etxezarretak.

Hurrengo astean zehar plazaratuko dute abestia, eta jaietan ere entzuteko aukera egongo da. Abestia "herria dantzan" jartzeko modukoa da, eta eskertuta agertu dira Xaxauko kideak: "Oso abesti *martxosoa* da; ska puntu bat ere badauka, eta herria dantzan jartzeko moduko abestia da. Oso pozik gaude, eta eskertuta Enriquerekin".

**Ohiko lekura**

Aurreko urtean, kaleko obrak zirela eta, azokako parkingean kokatu zituzten txosnak, alternatiba bezala. "Giro polita" sortu zuten arren, Bideberrira bueltatuko dira aurten, ohiko txosna-eremura. "Gune alternatibo bezala Azokako parkingera joan ginen; oso gustura egon ginen eta giro polita sortu zen, baina uste dugu ez zela tokiagatik izan, baizik eta jendeagatik. Aurten azokan obretan hasi dira, eta Bideberrira itzuliko gara" aitortu du Andrea Gonzalezek, Xaxauko kideak.

**Eskaintza zabala**

Maiatzaren 8an aurkeztu zuen konpartsak "gustu guztietarako" ekitaldiak dituen jaien egitaraua: "Egubakoitzean Bergarako Orhi taldea egongo da, The Lio eta Bad Sound taldeekin batera, eta, gaua amaitzeko, DJ Edozer; zapatuan, gaupasa egin duten argazkiarekin eta elektrotxarangarekin hasiko da eguna, eta gauean Olaia Inziarte eta bailarako abeslariak izango ditugu; domekan, film labur lehiaketa eta urteurreneko brindisa izango dira hitzordu garrantzitsuenak".

Aurreko urteko "balorazio positiboaren" ostean, domekan jokatuko da film labur lehiaketaren XI. edizioa. Lau sari banatuko dira; hiru epaimahaiak banatuko ditu: edizio, aktore eta film labur onenaren sariak; eta laugarrena publikoaren saria izango da. Jone Albenizek, Yune Nogueirasek, Jon Olivaresek eta Ione Santamariak osatuko dute epaimahaia. Lana aurkezteko azken eguna maiatzaren 22a izango da.

**Berezitasuna**

Jaien antolakuntzan laguntzeko, herritarrek osatutako boluntario-sare bat sortu dute, eta Andrea Gonzalezek parte-hartzearekin oso pozik daudela adierazi du: "Jaietan zehar zabalik egongo da sarea gauza puntualak egiteko; eta horiek bukatzean ere mantenduko dugu, sanmartinak antolatzeko. Parte-hartze bikaina izaten ari da, jende asko dago talde barruan".

**"HERRIA DANTZAN JARTZEKO MODUKO ABESTI DA, OSO 'MARTXOSOA'; SKA PUNTU BAT DAUKA"**

## Kontseilu Sozialistaren txosna

Xaxau-k Bideberrin jarritakoaz gain, San Martin plazako txosna Mugimendu Sozialistak kudeatuko du –Larramendiko Arnasarekin–. Egitarau propioa egin dute:

- **Maiatzaren 26:** 20:00etan txosnaren irekiera, eta K-Po, Hiriart eta Blind-en kontzertuak. Afaltzeko aukera egongo da. 00:30ean, Rodeo eta DJ Guti & Felixin-en kontzertuak.
- **Maiatzaren 27:**15:00etan, bazkaria eta gero Txaranga. Afaltzeko aukera egongo da. 00:30ean, DJ RU2, ZE Txiquia B2B Keep-a eta DJ Rudaren kontzertuak.
- **Maiatzaren 30:** 17:00etan, IAGO MAGO magia ikuskizuna eta umeentzako jolasak.



# Herri bazkariek ez dute hutsik egingo jaietan

Urtero legez, Pentekoste jaietan bergararrak mahaiaren bueltan elkartuko dira indarrak hartzeko. Udalak bi hitzordu antolatu ditu: herri bazkaria eta auzolanean egindako parrillada, hain zuzen. Xaxau konpartsakoek lau otordu antolatu dituzte

**Mikel Zumalde Etxabe** BERGARA

Pentekoste jaietan klasikoetako bat izaten dira herria bazkariak, eta aurten ere ez dute hutsik egingo. Beste urte batez, mahaiaren bueltan elkartuko dira herrikideak jaietan, indarra hartzeko asmoz.

Maiatzaren 29an, astelehenean, izango da jaietako herri bazkari jendetsuena. Kuadrillen Egunean, 14:30ean, herri bazkaria egingo da San Martin plazan, eta Incansables txarangak jarriko du giroa. Aurtengo Pentekoste jaietan hiru menu egongo dira aukeran: orokorra, beganoa eta zeliakoa. Menu guztiak Orioko Euskal Parrillas enpresak egingo ditu eta bazkariko txartelen prezioa hamabost eurokoa izan da. Maiatzaren 5ean jarri ziren bazkariko txartelak salgai, eta dagoeneko agortu dira txartel guztiak; Herri bazkariaren egunean ezinbestekoa izango da QR kodea aurkeztea, inprimatuta edo eskuko telefonoan gordeta edukitzea. Bestalde, herri bazkarira joan nahi duten eta alergia kasuren bat duten herritarrek Kultura Zerbitzura deitu dezakete (943 77 91 59). Eguraldi txarra eginez gero, San Martin plazan egingo da, eta 700 bat lagunendako lekua egongo da.



Iazko herri bazkarian, neska gazte kuadrilla bat. GOIENA

Horrez gain, Udalak eta Oxirondo Aisialdi Guneko gurasoek antolatuta, herri parrillada izango da jaietako lehenengo egunean, maiatzaren 26an, 20:30ean, Seminarioko karpan.

## Xaxauk, lau otordu

Xaxau Jai Herrikoien Konpartsak, berriz, lau otordu antolatu ditu Pentekoste jaietarako. Urtero bezala, presoen aldeko bazkaria egingo da maiatzaren 27an, 15:00etan –Xaxauk eta Gure Artera plataformak antolatuta–. Txartelak Arranon eta Pol-Polen daude salgai; langabeentzat hamar eurotan eta langileentzat hamabost eurotan. Menua honako hau da: entsaladilla errusiarra, piper berdeak, karrillerak eta arroz-esnea.

Hurrengo egunean, maiatzaren 28an, domekan, *txomingero* bazkaria egingo da. Nork bere jatekoa eramatea da bazkariaren funtsa, eta txosnagunean mahaiak eta aulkiak egongo dira erabilgarri. Norbait goseak gelditu gero, gauean izango du hura asetzeko aukera. Aurten, Txapa Irratikoek arroza prestatuko dute. Urtero talde bat omentzen du Xaxauk, baina aurten ez da horrela izango. Xaxautik adierazi dute aurten ez dela talde omendurik egongo, eta herria omentzea erabaki dute. Horrez gain, aurreratu dutenez, Xaxau konpartsako sorrera bultzatu zuten herritarrak omentzeaz gain, urte hauetan guztietan lanean ibili direnak omenduko dituzte. Afariko txartelak egunean bertan arratsaldean hasiko dira saltzen, zortzi eurotan.

## Ikasleek eta erretiratuek ere bai

Jaiei hasiera emateko, maiatzaren 26an, ikasle bazkaria egingo da Seminarixoko karpan, 15:00etan, Ikamak eta Bergarako Neska Gaztiek antolatuta. Txartelak Arranon eta Pol-Polen daude salgai, zazpi eurotan. Bazkalostean, Laino Beltzak taldearen kontzertua egongo da. Bestalde, San Joxepe elkarteko erretiratuek, ohiturari jarraituz, maiatzaren 30ean bazkaria eta dantzaldia egingo dituzte. Aurten, Menditarrak taldeak alaituko du bazkalostea.

## Bakailaoa pil-pil erara

Bergarako jaietako beste hitzordu handietako bat izaten da bakailao lehiaketa. Aurten, maiatzaren 27a egingo da, jaietako zapatu goizean. Urtero moduan, herriko elkarteko gastronomikoetako ordezkariak nor baino nor gehiago arituko dira bakailao plater onena prestatu nahian. Zazpi elkartek eman dute izena –gehienez ere, hamabik har dezakete parte, oinarrien arabera–. Elkarte bakoitzeko bi ordezkari izango dira udaletxeko arkupeetan jarriko duten sukalde inprobisatuan bakailaoa prestatzen. Honako hauek dira aurtengo bakailao lehiaketan parte hartuko duten elkarteak: San Juan, Pertxa, Basalgo, Aizpe, Gure Ametsa, Aizepe eta Danok Bat.

Bi urtez jarraian Pertxa elkarteko kideek irabazi dute lehiaketa. Iaz, Madura elkarteak jaso zuen bigarren saria, eta hirugarren saria, berriz, Aizepe elkarteak.

Antolakuntzatik adierazi dutenez, beranduenez, 11:00etarako egon beharko dute elkarte gastronomikoetako ordezkariek tokian. Hori horrela, antolatzaileek jarriko dute sukaldarientzako tresneria: suak, lapikoak, amantalak... Azken horiek, Lacor enpresak emandakoak. Parte hartzaileentzako eta ikusleentzako mokadutxoa egongo da, herriko hainbat okindegiren eta ardotegiren eskutik.

Sari banaketa 13:30ean izango da, San Martin plazan.

Bergarako Udalak 110 euro emango dizkio parte hartzaile bakoitzari. Diru horrekin bakailaoa eta hura prestatzeko beharrezko izan dituzten osagarriak erosiko dituzte lehiakideek. Alazne Etxabarrik, Julen Muruamendiaraz eta Unai Agirrek osatuko dute epaimahaia.

## Tonbola solidarioa

Tonbola solidarioa, aldiz, maiatzaren 27an izango da, 17:00etatik 21:00etara, eta Ndank Ndank Bergarako Senegalgo lagunen elkarteak antolatuko du, Irizar kalean.

**UDALAK HERRI BAZKARIA ETA PARRILLADA ANTOLATU DITU; XAXAUK, LAU OTORDU**





Barrakez gozatzen iazko Pentekosteetan. IMANOL SORIANO



Pentekosteetako jolas-parkea aurreko urte batean. GOIENA

## Jolas-parkea eta antzerkia ere bai

Umeen eta Helduen Egunean, maiatzaren 30ean, jolas-parkea izango dute goizean zein arratsaldean Ipintza II-ko patioan. Euria eginez gero, bertan behera geratuko da. Arratsaldean, berriz, *Bidaibizitzen* antzerkia egongo da ikusgai txosnagunean.

# Gaztetxoek ere izango dute non gozatu jaietan

Matxiategi eta Fraiskozuri guneetan 22 postu jarriko dituzte gaztetxoenek barrakekin gozatzeko. Era berean, jolas-parkea izango dute Umeen eta Helduen Egunean Ipintzako II-ko patioan; antzerkiaz gozatzeko aukera ere izango da txosnagunean

**Iñigo Barrena Kortabarria** BERGARA

Askotariko barrakek hartuko dituzte, aurten ere, azken urteotan kokaleku dituzten Matxiategiko eta Fraiskozuri. Denen gozamenerako, helduentzako eta umeentzako barrakak izango dira, eta baita bestelako kaxeta eta tonbolak ere; horrekin batera, ohiko tabernak eta txurro saltzaileak ere ez dira faltako Pentekoste jaietan. Guztira, 22 postu egongo dira jaietan, eta maiatzaren 24an jarriko dituzte eta ekainaren 6ra arte egongo dira barrakak Bergaran.

Aurten ere, urteetan Bergarara etorri izan diren barrakak jarriko dituzte Matxiategiko eta Fraiskozuriko guneetan. Horietako batzuk Atracciones Sanz enpresarenak dira eta aurten ere ez dute hutsik egingo.

Maria Garmendiak du barraka horietariko bat. Denbora daramatzate Bergarara etortzen, eta aurtengoan Scalextric umeentzako gozagarri den barraka jarriko dute. Bergara uda sasoi luzeko lehenengoetako geltokia izaten da eurentzat, eta beti "erantzun ona" izaten dutela azpimarratzen du. Eguraldiak bere "eragina" izaten duela ere aitortu du, baina lan egiteko "toki aproposa" dela uste du, eta Bergarako jaiak "onak" direla gaineratu du.

### Prezio igoera

Aurten barrakek prezio igoera izango dute. Iaz izan zuten prezioekin alderatuz, hamar zentimo garestituko da bidaia bakoitzaren prezioa; beraz, 2,30 euro balioko du itzuli edo bidaia bakoitzak; sei bidaiaren truke, ordea, joan den urteko prezio berbera mantenduko da: 10 euro, hain zuzen ere. Itzuli bakoitzak gutxienez hiru minutuko iraupena izan beharko du, iaz izan zen bezala.

### Musikarik gabe barraketan

Joan den urteko Pentekosteetan egin bezala, aurten ere jaietako bi egunetan, maiatzaren 28an eta 29an, 17:00etatik 19:00etara ez da musikarik izango feria-gunean, behar bereziak dituzten herriko eta inguruetako haurrek ere feriaz gozatu dezaten.

Joan den urtean ekin zioten ekimen horri eta aurten ere jarraipena eman nahi izan diote Udaletik, Gautena elkartearekin adostuta. Era berean, ferien arduradunei eskatu zaie ilara egiten baldin badago premia berezia duen umeren bat lehentasuna emateko.

**IAZ IZAN ZUENAREKIN LADERATUTA, BARRAKEN PREZIOAK HAMAR ZENTIMOKO IGOERA IZANGO DU**




# Txikienek erraldoiekin gozatuko dute

Maiatzaren 27an, zapatua, Bergarako eta kanpotik etorriko berrogei bat erraldoi arituko dira Pentekosteetako zapatua girotzen; bi kalejiratan banatuta iritsiko dira San Martin plazara eta han aurkeztuko dituzte gonbidatutako erraldoi taldeak

**Mikel Zumalde Etxabe** BERGARA

Beste urte batez, erraldoiek Bergarako jaien zapatua girotuko dute. Goiz eta arratsalde, herriko kale nagusietan arituko da Bergarako Erraldoi Taldea, umeen gozamenerako. Aurten, herriko erraldoi taldeaz gain, herrian izango dira Burrianatik, Iruñetik, Sestaotik, Bermeotik eta Deustutik iritsitako beste erraldoi talde batzuk. Ibon Unamuno Bergarako Erraldoi Taldeko kidea da, eta Deustuko Ondalan taldea eta Bermeoko erraldoiak arratsaldean bakarrik egongo direla azaldu du. Eguna 11:00etan hasiko da, dianarekin. Bergarako Txistulari Banda Bolutik abiatuko da; Bergarako trikitilariak, Labegaraietatik; eta Elgoibarko dultzaineroak, Oxirondotik. Ondoren, 11:30 inguruan, talde gonbidatuek kalejira abiatuko dute.

Aurten, joan den urtean moduan, bi kalejira egingo dituzte. "Aurten, joan den urteko asmo bera mantentzen dugu, eta, iaz bezala, bi kalejiratan abiatuko dira talde gonbidatuak", azaldu du Ibon Unamunok.

Espoloitik eta Matxiategitik abiatuko dira Burrianako *Colla de Gegants i Cabuts* erraldoi taldea (Castello), Sestao eta Buztintxuri taldeak. Ondoren, guztiak San Martin plazan elkartuko dira.

**Erraldoien gunea**

11:30ean hasita, San Martin plazan erraldoien gunea jarriko dute: erraldoien erakusketa, krispeta-makina, erraldoien liburuxka umeek margotzeko, umeentzako puzgarriak eta abar. Beti bezala, Bergarako Erraldoi Taldeak antolatuko du erraldoien gunea.

Aipatzekoa da gomazko erraldoiak salgai egongo direla, bai Bergarakoak eta baita kanpoko taldeenak ere.

12:00etan, umeen taldea musikariekin batera Mizpirualde egoitzara joango da. "Egoitza barrura sartuko gara, eta han, beti bezala, dantza egingo dugu. Beste urte batzuetan, pandemiaren ondorioz, ezin izan gara barrura sartu, baina aurten barrura sartuko gara", jakinarazi du Unamunok.

**"OÑATIKO ERRALDOIAK IAZ EGON ZIREN; DATORREN URTEAN, BERRIRO"**

IBON UNAMUNO

Gero, talde gonbidatuak aurkeztuko dituzte plazan, eta bakoitzak dantza bat egingo du. Horren ostean, Bergarako Oilagorra Ehiza Elkartean bazkalduko dute. "110 pertsona inguru egongo gara erraldoiekin dantzan eta laguntzen, eta elkarrekin bazkalduko dugu, urtero egiten dugun moduan", dio Unamunok. Aurten Bergaran izango den erraldoi kopuruaz galdetuta, aurreko urteetakoaren antzekoa egongo dela argitu du Unamunok: "Buruz ari naiz, baina berrogei bat erraldoi izango dira Bergaran". Bergarako hemezortzi erraldoiez gain, Buztintxuriko lau, Bermeoko beste lau, Sestaoko lau, Deustuko Ondalaneko zortzi eta Burrianako bi edo hiru, hain zuzen ere.

Bazkalostean, azkenik, 18:15ean hasita, erraldoien, buruhandien eta kilikien kalejira egingo dute, guztiek elkarrekin plazan hasi eta bukatuta. San Martin plazan hasi ondoren, Bidekurutzeta, Ibargarai, Irizar, Bideberri, D. Irala eta Barrenkalea kaleetan arituko dira.

**Urtero gonbidatu ezberdinak**

Unamunok adierazi duenez, saiatzen dira urtero talde ezberdinak gonbidatzen. "Pandemia baino lehen, otsailean Burrianan egon ginen, eta, hiru urte igaro eta gero, haiek etorriko dira. Bestalde, sekula ez gara egon Bermeon, eta Sestaon bueltatu egingo diegu mesedea handik deitzen digutenean. Deustuko Ondalan taldekoak 2020an etortzekoak ziren, eta, hitz eginda genuenez, joan den urtean etorri ziren, eta aurten ere etorriko dira, baina arratsaldez bakarrik", azaldu du.

Azkenik, joan den urtean lehenengoz Oñatiko erraldoiak izan ziren Bergaran, baina aurten ez dira izango. "Hurrengo urtean berriro ere gonbidatuko ditugu", azaldu du Unamunok.

Gauzak horrela, jaietako bigarren egunean, goiz eta arratsalde, umeek eta helduek erraldoiekin gozatzeko aukera izango dute Bergarako Pentekosteen barruan.



Bergarako erraldoiak herriko plazan. GOIENA

iBARRALDE
Administrazio zerbitzuak SL
• Etxe agentzia
• Fiskalak
• Laboralak
• Kontableak
• Finken administrazio zerbitzua
Ondo ibili jaietan!
25.068 kolegiatu zenbakia
Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64

# Zazpi zezen-ikuskizun Pentekoste jaietan

Bergarako Zezenak ganadutegiko lagunek hilaren 22an ekingo diete 1.500 lagunendako lekua duen zezen-plaza muntatzeko lanei. "Zezen-plaza handiagoa ere bete egingo litzateke Bergaran, baina ez da kabitzen", azaldu du Iñigo Almorzak

**Larraitz Zeberio Lekuona** BERGARA

Errekorte ikuskizun bi, parrandazaleentzako eta gaupasan dabiltzanendako bigantxak, kuadrillen arteko olinpiadak eta errekortarien edo izkingileen eskola ibiltaria hartuko ditu zezen-plazak. "Zezenik ezin daiteke falta Bergarako jaietan. Ordainpekoak diren jaietako ikuskizun bakarrak dira, eta jende gehien batzen dutenak. Bete egiten da plaza; egitarau osatuena prestatzen saiatzen gara", esan du Iñigo Almorzak.

Sarrerak erosterakoan ilarak saihesteko eta haiek gabe ez gelditzeko aurrez eskuratzeko aukera emango dute aurten ere: "Jaiak hasi baino pare bat egun lehenago ikuskizun guztietarako sarrerak salgai jarriko ditugu zezen-plazako leihatilan. Iaz oso ondo funtzionatu zuen, eta aurten berdin egingo dugu".



Izkingileen ikuskizuna iaz Bergarako zezen-plazan. IMANOL SORIANO

**Errekortarien txapelketa**

Zazpi ikuskizun izango dira Pentekoste jaiotan zezen-plazan; lehenengoa, zapatuan. "Maila handiko errekortari txapelketa izango da. Hamabi errekortari arituko dira; lau Euskal Herrikoak, lau Valentziakoak eta lau Gaztela eta Leongoak. Truke moduko bat antolatu dugu. Orain, haiek datoz gurera, eta gero, gu joango gara Valentzian eta Gaztela eta Leonen jokatuko diren txapelketetara. Maila handiko errekortariak etorriko dira kanpotik, baina ez dugu hemen inoren inbidiarik. Anartz Almorza (Bergara), Ander Gallastegi (Durango), Jon Maiztegi (Bergara) eta Gorka Santamaria (Soraluze) arituko dira. Almorza, esaterako, orain bi aste bukaera izan zen Niza ondoko herri batean, Picassoren heriotzaren 50. urteurreneko ekitaldien barruan antolatutako errekorte txapelketa batean, eta finalera heldu zen", azaldu du Bergarako Zezenak ganadutegiko arduradunak. Haren esanetan, polita izango da ikustea zer-nolako estiloak eta egiteko moduak dauden alde batetik bestera. "Lekuan lekuko berezitasunak daude. Gaztela eta Leonen errekorte klasikoa egiten dute gehiago; Valentzian ere badituzte beraien ezaugarriak. Hemen bestelako saltoak, izkin egiteak eta figurak egiten dira".

**EUSKAL HERRIKO, VALENTZIAKO ETA GAZTELA ETA LEONGO ERREKORTARIAK ZAPATUKO SAIOAN**

Txapelketarako zezenak Nafarroatik ekarriko dituzte, Mendabiako Estenaga ganadutegitik. "Maila horretako txapelketa baterako tamaina bateko zezenak behar dira, eta sekula plazara irten ez direnak. Lau behar dira, gainera. Pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, gaur-gaurkoz, guk ez dauzkagu", esan du Almorzak.


alet
BERGARA
www.alet-taldea.com
Tel.: 943 765 815
620 56 13 16
669 36 69 53
Ingenieritza eta Instalakuntza
Energia fotovoltaikoa • Energia Termikoa • Geotermia
Biomasa • Zoru Erradiatzailea • Aerotermia
Autokontsumoko instalakuntza fotovoltaikoetan eta litiozko baterietan adituak gara.
Gora bergararrok!



• Ibargarai 24
Tel.: 943 76 70 29
• Super Amaran ere bai:
San Lorentzo pol. 9
Amillaga 18
Tel.: 943 76 99 34
BERGARA
Gora Bergarako jaiak!
PESCADERIA JOXAN ARRAINDEGIA

## Zezen-plazako ikuskizunak

Maila bateko errekortariekin eta unean uneko toreatzaile espontaneoekin, baina ikuskizunik ez da faltako.

**MAIATZAK 27, ZAPATUA**
- **18:30** Errekortari txapelketa.

**MAIATZAK 28, DOMEKA**
- **09:00** Bigantxak.
- **18:30** Euskal Herriko errekortarien ikuskizuna.

**MAIATZAK 29, ASTELEHENA**
- **12:00** Kuadrillen arteko XIII. olinpiadak.
- **18:30** Bigantxak gaztetxoendako.

**MAIATZAK 30, MARTITZENA**
- **09:00** Bigantxak.
- **18:30** Errekortadore eskola ibiltaria gaztetxoendako.

Oharra: ikuskizun guztietarako sarrerak salgai egongo dira jaiak hasi baino pare bat egun lehenago zezen-plazako leihatilan.



Kuadrillen arteko olinpiadak iazko Pentekoste jaietan. AITOR AGIRIANO

**Errekortarien ikuskizuna**

Domeka arratsaldean, Euskal Herriko errekortariekin egindako ikuskizuna izango da zezen-plazan. "Etxeko mutilak izango dira denak: Unai Arana *Xurra*, Blas Cruz, Anartz Almorza, Jon Maiztegi, Sergio Zapatero... Hamar bat lagun, eta publikotik ere aterako dugu bateren bat. Ikuskizun horrek bi zati izaten ditu: bata, formala; eta bestea, komikoagoa –kulunkarekin eta abar–. Iaz berreskuratu genuen, eta harrera oso ona izan zuen. Berriz egingo dugu aurten".

**KUADRILLEN ARTEKO OLINPIADETAN JOKO BERRIAK ETA SORPRESA UGARI EGONGO DIRA**

**Kuadrillen arteko olinpiadak**

Eta herriko gazteen artean arrakastatsuenetakoak asteleheneko kuadrillen arteko olinpiadak dira. "Sortzen den giroak ez du parekorik, eta gero eta jende gehiago etortzen da. Itzela da", dio Almorzak. "Egiten hasi ginenean jendea bildu ezinik ibiltzen ginen, eta orain, gainezka gabiltza urtero. Baina guk ez dugu inor kanpoan uzten. Bigantxak egiten du aukeraketa. Kuadrilla bakoitzeko ordezkari bana jartzen da plazan uztai baten barruan, eta guk bigantxa askatzen dugu. Uztaitik irteten dena kanporatuta gelditzen da, eta sei taldek egiten dute aurrera. *Selekzio naturala* esaten diogu guk". Hortik aurrera hainbat joko egiten dituzte eta kuadrilla irabazleak 300 euroko saria eskuratzen du erosketa-bonutan. "Ez dakigu oraindik ze joko izango diren aurten, baina sorpresak egongo direla seguru".

Parrandazaleentzako eta gaupasan dabiltzanendako bigantxak domeka eta martitzen goizean izango dira, 09:00etan. Errekortari eskola ibiltaria, berriz, martitzen arratsaldean egingo dute, eta 16 urtetik gorako gazteendako izango dela jakinarazi du Almorzak.



# Lehenengoz ospatuko dituzte Pentekosteak

Maiatzaren 27an, ongietorria egingo diete iazko Pentekosteetatik hona jaio diren haurrei; udaletxeko osoko bilkuren aretoan zapia jarriko diete, eta, ondoren, erraldoiekin talde-argazkia aterako dute udaletxearen atzealdean, San Pedro kalean

**Mikel Zumalde Etxabe** BERGARA

2011n hasi zen ohitura, eta, ordutik hona, Bergarako ehunka jaioberrik jaso izan dute merezi duten omenaldia Pentekoste jaien hasieran. Beste behin, ongietorria egingo diete mundura etorri diren haurrei jaietako zapatuan. Aurten ekitaldia maiatzaren 27an izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 11:30ean hasita. Han jarriko diete etxeko txikienei zapia, banan-banan. Ondoren, familia-argazkia aterako dute udaletxearen atzealdean, San Pedro kalean.

Udalak dagoeneko bidali die ongietorrian parte hartzeko gonbidapena umea izan duten 60 gurasoei.

Hamabigarrenez egingo dute ekitaldi hori. Izan ere, pandemiaren ondorioz, 2020an ez zuten egin, 2021ean osasun neurriek baldintzatu zuten ekitaldia, baina iaz, pandemia aurreko egoerara bueltatu zen ekitaldia.



Iaz jaio ziren umeei egindako omenaldia, Ariznoako San Pedro parrokiaren aurrealdean. GOIENA

**Gurasoak, ilusioz gainezka**

Gurasoen artean ilusioa nabarmena da. Haien seme-alabek lehenengoz biziko dituzte Pentekosteak, eta hori ospatu beharra dago.

Umea izan duten hiru familiarekin izan da GOIENA, jaien atarian dituzten sentsazioak jakiteko. Proposamena onartu duen familietako bat da Maddi Laskurainek, Enaitz Zabaletak eta hauen seme Hodei Zabaleta Laskurainek osatzen dutena. Haien esanetan, ilusio "handia" egiten die haurrei egiten zaien ongietorri ekitaldiak. Jaietan kanpora joatekoak ziren, baina zapatura arte Bergaran gelditoko dira. Han izango den beste familia bat Erik Oribek, Yasmina Morenok eta Izei Oribe Morenok osatutakoa da. Ekitaldira zapia jasotzera "ilusioz" joango direla diote: "Batez ere, niri [Yasmina], Bergarakoa izanik, ilusio berezia egiten dit". Uxue Egurenek eta Jon Ander Romanek ere umea izan dute, Malen, eta zapatuan Bergarako udaletxean izango dira. Familia bergarar hori ere eguna iristeko irrikan dago: "Ilusio handiarekin gaude argazkian agertzeko, oroigarri polita delako". *Ilusioa* da protagonisten artean gehien errepikatzen den hitza.








## HODEI ZABALETA LASKURAIN

MADDI LASKURAIN ETA ENAITZ ZABALETA

Joan den urteko ekainaren 12an jaio zen Hodei Zabaleta Laskurain. Hasiera gogorra izan dela adierazi du familia bergararrak, baina, edozelan ere, poliki-poliki eskua hartzen joan direla diote. Aitatasuna eta amatasuna esperientzia "polita" bihurtu dela azpimarratu dute. Kanpora joatekoak ziren, baina zapatura arte geldituko dira Bergaran, jaioberrien ekitaldian egoteko.

**Jaietan, kanpora**

Jaien lehen bi egunetan egongo dira Bergaran: "Egubakoitzean, Bitorianatxo ikusi eta bueltatxo bat emango dugu. Zapatu goizean ekitaldira joan eta arratsaldean kanpora joango gara, furgonetarekin". Erabaki horren zergatia azaldu dute. "Aurten, kanpora joango gara, umea oso txikia delako oraindik. Baina hemendik aurrera, gaueko giroaz gain, egunez ere ibili beharko dugu", azaldu dute.



## MALEN ROMAN EGUREN

UXUE EGUREN ETA JON ANDER ROMAN

2022ko ekainaren 6an jaio zen Malen Roman Eguren. Ondo gogoan dute eguna Jon Ander Roman eta Uxue Eguren gurasoek: "Bergarako jaietako astelehena zen, eta denak parrandan zeuden bitartean gu ospitalean geunden gure umetxoari ongi etorria egiten". Bergarako Udalak jaioberrientzat antolatzen duen ekitaldirako ilusio "handiarekin" daudela adierazi dute, aterako den argazkian agertzeko eta oroigarri polita izateko.

**Pentekosteak, lasai**

Aurten Malenekin jaiak modu "lasaiagoan" biziko dituztela diote gurasoek; soilik haurrentzat egingo diren ekitaldietara joango dira. Gainera, umeak oso denbora gutxi izanik, biak etxean geldituko direla erabaki dutela adierazi dute: "Aurrerago helduko zaigu unea umea amamarekin uzteko eta gu parrandan irteteko".



## IZEI ORIBE MORENO

YASMINA MORENO ETA ERIK ORIBE

Izei Oribe Moreno, hiru haurren artean gazteena, 2022ko uztailaren 7an jaio zen. Yasmina Moreno eta Erik Oribe gurasoentzat gogorra bezain polita izan da urtea, eta bizitzako esperientziarik "basatiena" izan dela diote. Eguraldian jarri dute arreta; eguraldia lagun izatea Pentekosteak ospatu ahal izateko lagunekin eta senideekin.

**Gaupasak, etxean**

Pentekoste jaiak ospatuko dituztela argi dute, etxean denbora asko pasatuta: "Aurten gaupasak etxean egingo ditugu, 10 hilabete hauetan bezala". Hala ere, gehiago biziko ditu jaiak Yasminak Erikek baino. Yasminak, herrikoa izanda, astelehena harentzat hartuko du eta kuadrillen arteko bazkarira joango da astelehenean. Izei "parrandazale" hutsa irten dela azaldu dute, eta geldi egoten ez den horietakoa dela nabarmendu.



# "Gustukoen ditudan harriak erakutsiko ditut"

**PAULO AZPIAZU** HARRI-JASOTZAILEA

Jaioterrira itzuliko da Paulo Azpiazu harri-jasotzailea Pentekoste jaietan, herri kirolen erakustaldira. Maiatzaren 30ean izango da, martitzena, 12:00etan, San Martin plazan

**Miren Arregi Amasorrain** BERGARA

Online bidezko entrenatzaile pertsonala da Paulo Azpiazu (Bergara, 1996). 7 urterekin utzi zuen sorterria Lizarrara bizitzera joateko, eta 18 bete zituenean Getariara egin zuen; gaur egun ere hantxe bizi da. Iaz bezala, aurten ere Pentekoste jaietan Bergarara itzuliko da Azpiazu, herri kirolen erakustaldira, gustuko duen horretara, harriak jasotzera, alegia. Egiteko horretan lagun izango du Ainitze Zumeta.

**Sorterrira itzuliko zara. Zer sortzen dizu Bergarako plazan aritzeak?**

Bergara oso herri berezia da niretzat. Nire lehenengo zazpi urteak eman nituen bertan eta familia ere Bergaran dut. Horregatik, oroitzapen handiak ekartzen dizkidan plaza da Bergarakoa. Oso gogoan dut Bitorianatxo plaza gainetik igarotzen zen une hura. Gustatzen zaidan plaza bat da eta gustura joango naiz bertara.

**Eta erakustaldi bat egiteko plaza beroa da?**

Bai. Iaz egon nintzen lehenengoz Bergarako plazan harriak jasotzen, eta oso toki aproposa da, plaza handia, jende asko batzen da... Plaza asko ezagutu ditut egiteko horrekin, eta denetarikoak daude. Esan dezaket egon naizen toki guztietatik Bergarako plaza eleganteenetakoa dela.




Paulo Azpiazu, harria jasotzen. P.A.

**Zein erakustaldi egingo duzu?**

Oraindik ez dakit ziur ze harri eramango dugun, baina erakustaldia denean helburua ez da izaten gorputzari sekulako astindua ematea. Hori txapeldketetan bai, baina erakustaldietan gura izaten dugu harri desberdinak erakutsi: koadroa, kubikoa, bola... Bergaran gustuko ditudan harriak erakutsiko ditut, eta ze harri mota desberdin dauden herritarrei erakusten saiatuko naiz.

**Zer-nolako harriak dira zure gustukoak?**

Harri asko daude. Niri asko gustatzen zaizkit bai mendiko eta baita errekako harriak. Harri oso baldarrak dira, forma bakoak. Esate baterako, Igeldoko harria asko gustatzen zait, eta esango nuke, bereziki, bolarekin dudala oso harreman ona. Harri guztietatik ondoen ibiltzen naiz bolarekin.

**Ez dirudi heltzeko errazena...**

Harri-jasotzailearen araberakoa da hori. Niri bereziki erraza egiten zait harri mota hori. Indar handikoa naiz, gimnasiotik nator, eta oso harri esplosiboa da. Beste harriak teknikoagoak dira; hau ez, hau esplosiboagoa da.

**Eta pisua?**

Iaz 150 kiloko koadro bat, 113ko kubikoa eta 100 kiloko bola eraman nituen, eta uste dut aurten ere antzerakoak erabiliko ditugula, baina, egia esateko, oraindik ez dugu guztiz erabaki.

**Lagun izango dituzu izen ezagunak. Hodei eta Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aita-semeak, Alex Txikon, Xabier Zaldua, Karlos Aretxabaleta eta Ainitze Zumeta. Ikuskizuna ziurtatuta dago?**

Zalantza barik, polita izango da.

**Ainitze Zumeta eta biok bikotekide zarete; elkarrekin entrenatzen zarete?**

Ez, entrenamendu desberdinak egiten ditugu; emakumezkoen eta gizonezkoen entrenamenduak desberdinak dira.

**Plazan biok elkarrekin egotea gustuko duzu?**

Oso harreman ona daukagu. Hura *crossfit* mundutik dator eta ni, batez ere, gimnasiotik. Harriekin ni hasi nintzen lehenengo, eta gero animatu nuen hura ere horretan hastera. Hasieran, ez zuen konprometitu gura, baina, azkenean, animatu zen. Geroz eta neska gehiago dabil harriak jasotzen, eta indar handia hartu du. Batzuetan, elkarrekin aritzeko deitzen gaituzte, Bergaran gertatu den moduan. Gero, nik nire txapelketak ditut eta hark beste batzuk.

**Herri kirolekiko afizio handia dago gaur egun?**

Duela urte batzuk indar handia zuten herri kirolek. Plazak bete egiten ziren; esango nuke orain berriz ari dela indarra hartzen, azken urteetan oso jaitsita egon ondoren. Ni sartu naiz, neskak sartu dira, sare sozialetan ere aritzen gara gaiarekin, eta indarra hartzen hasi da. Ikuspegi modernoago batekin dihardugu, eta uste dut gorantz doala.

**Zu asko aritzen zara sare sozialetan. Egiten duzun lanak bultzada eman die herri kirolei?**

Nire helburu zuzena ez da sare sozialetan harriaren marketina egitea, ni online bidezko entrenatzaile pertsonala naiz, hori da nire lana. Baina egia da harria nire bizitzaren parte den heinean nire sare sozialetan presentzia baduela. Eta, noski, atentzioa ematen duen zerbait da.

**Herri kiroletan beste modalitateren batera salto egiteko gogorik bai? Edo harrietan buru-belarri?**

Harrietan buru-belarri. Harriarekiko jakin-mina izan dut beti. Gustatzen zait aizkolariak-eta ikustea eta eurekin harreman oso ona daukat, baina nik harria dut gustuko eta hori daukat buruan.

**Maiatzaren 30eko Bergarako erakustaldiaren ondoren, bertan geldituko zara?**

Familiarekin bazkaltzeko elkartuko naiz, eta gero, ikusiko dugu...

**"ASKO GUSTATZEN ZAIZKIT MENDIKO ETA ERREKAKO HARRIAK, BALDARRAK, FORMA BAKOAK"**

**"NIRE BIZITZAREN PARTE DIRA, ETA, BERAZ, HARRIAK NIRE SARE SOZIALETAN AGERI DIRA"**

GOKI erreformak
Teilatuak, fatxadak, igogailuak, sukaldeak, bainugelak.
Ondo ibili jaietan, bergararrok!
Irizar ibilbidea 1 behea
BERGARA
Tel.: 943 76 53 42
Faxa: 943 76 52 16
bergara@gokierreformak.com
www.gokierreformak.com

# Mokoloblock-ek bigarren aldia izango du jaietan

Joan den urteko arrakasta ikusita, kalean egiten duten topaketa errepikatzea erabaki dute antolatzaileek. Maiatzaren 28an egingo da, domeka, eta, ibilbidea askorik aldatuko ez den arren, sorpresaren bat edo beste izango da aurtengo edizioan

**Iñigo Barrena Kortabarria** BERGARA

Pentekosteetan izango da kirol hitzorduetan ere non aukeratu eta gozatu. Horietako bat Mokoloblock *kale block* topaketa izango da. Iaz egin zuten lehenengo aldiz, eta, lehen edizioa arrakastatsua izan zela ikusita, bigarrenez egitea erabaki dute antolatzaileek. Eurek ere ez zuten horrelako arrakastarik espero, eta egitaraua ere horren baitan moldatu zuten: "Oso gustura aritu ginen, bai geu eta baita parte hartzaileak ere. Gainera, herriko jende ugari etorri zen ikustera, eta hori ez genuen inondik inora espero. Horrek ibilbidea eta gure asmoak aldatzea ekarri zuen topaketa aurrera joan zen heinean", dio Mikel Uribesalgok, antolakuntzako eta eskaladako sekzioko kideak.

Bigarren edizio horri begira, 20 eta 25 lagun inguruan elkartuko dira, eta dagoeneko 21 pertsonak eman dute izena; ibilbidean ez da aldaketa askorik izango joan den urtearekin alderatuz. Udaletxean, Santamañan, Seminarixoan eta inguru haietan arituko dira lanean. Era berean, topaketa borobiltzeko asmoarekin "sorpresatxo bat" prestatzen ari direla aurreratu du Uribesalgok. Amaieran, parte hartzaile guztientzat detailetxo bat egongo da.



Iazko Mokoloblock-eko eskalatzaileetako bat. MIKEL URIBESALGO

Izena emango dutenak, normalean, rokodromoan ibiltzen direnak izango dira; hori dela eta, eskaladako sekziotik herriari zerbait emateko "beharra" ikusten dute, eta eguna "jai baten moduan" hartzeko asmoa erakutsi dute.

**IBILBIDEAN EZ DA IA ALDAKETARIK EGONGO, BAINA AMAIERARAKO SORPRESA BAT DUTE**

### Eguna egonkortzeko asmoa

Hain zuzen, azken helburu horri lotuta, eskaladako sekziotik ez dute baztertzen Mokoloblock topaketa jaietako egitarautik ateratzea eta beste data batzuetan eguna egonkortzen saiatzea. Hori bai, Uribesalgok aitortu du ikusi egin beharko dela nolako "erantzuna" emateko gai izango diren eurak, eta, posible bada, aurrera egingo dutela ideiarekin.

# Pilotan, Bergarara Hiriko finalak eta profesionalen jaialdia

Maiatzaren 23an jokatuko dituzte Bergara Hiria txapelketako finalerdiak; finala, aldiz, maiatzaren 29an

**I.B.K.** BERGARA

Pilota menua beteta dator Pentekosteetan: alde batetik, Bergara Hiria txapelketako finalak; eta, bestetik, profesionalen jaialdia. Lehenengoan, hiru bikotek lortu dute jada finalerako txartela.

Emakumezkoetan, Aldai eta Galeano 22-13 nagusitu ziren Barrocalen eta Agirreren kontra. Gizonezkoen promes mailan, Aranbarrik eta Lezak 22-9 hartu zituzten mendean Etxeberria eta Landa. Nagusien mailan, berriz, Oskozek eta Aldavek 22-10 emaitzarekin garaitu zituzten Balerdi eta Labaka.

Beste finalerdiak datorren asteartean jokatuko dira, hilaren 23an; finalak, berriz, maiatzaren 29an izango dira, Kuadrillen Egunean, arratsaldeko sei eta erdietan hasita.



2021eko Bergara Hirian. XABI URTZELAI

### Profesionalen jaialdia 30ean

Aurten ere pilota profesionalarekin gozatzeko aukera egongo da, hilaren 30ean, martitzena, arratsaldeko bostetan hasita. Oraindik ez dute jakinarazi ze pilotari egongo diren kantxan egun horretan.

## Herri kirolen erakustaldiak ere ez du hutsik egingo aurten

Martitzen eguerdian, hilak 30, herri kirol erakustaldia egingo dute San Martin plazan, 12:00etan hasita. Aizkolariak izango dira Hodei Ezpeleta, Alex Txikon, Ernesto Ezpeleta *Bihurri* eta Xabier Zaldua. Harria jasotzen Paulo Azpiazu bergararra eta Ainitze Zumeta ibiliko dira. Iparraldeko jokoetan Karlos Aretxabaleta izango da.



GOIENA



# "Jendeak betiko kantak gura ditu, baina baditugu berriak ere"

**ANDONI BASTERRETXEA** DELIRIUM TREMENS TALDEKO ABESLARIA

2022ko maiatzean 'Hordago' diskoa kaleratu zuen Delirium Tremens eraberrituak, eta, ordutik, gelditu barik ari dira; garai berriaz gozatzen ari direla aitortu du Basterretxeak

**Eneko Azurmendi Barrena** BERGARA

Ia lau hamarkadaren ostean disko batekin itzuli den Delirium Tremens taldeak Euskal Herriko hainbat plaza zeharkatu ditu dagoeneko, eta beste asko ditu zain. Maiatzaren 26an, egubakoitza, Bergaran egingo dute geldialdia, 23:00etan, San Martin plazan. Emanaldirako "gogotsu" azaldu da Andoni Basterretxea abeslaria (1964, Mutriku).

**Oraintxe, maiatzean, *Hordago* diskoak urtebete egin du. Ze harrera izan du?**

Oparoa izan da azken urte hau, kontzertu dezente egin ditugu diskoa argitaratu genuenetik eta diskoak izan duen harrera ona izan da; jaso ditugun iritziak, behintzat, positiboak izan dira. Beraz, pozik gaude.

**Ia 40 urte pasatu diren arren, Delirium Tremensen esentzia mantentzen da disko horretan. Hala esango zenuke zuk ere?**

Bai, guk ere hala uste dugu, eta hori gura izan dugu, gainera. Iñigo [Muguruza] ez dago gurekin, baina disko berriko abestiek, oro har, Delirium Tremensen soinua dute, eta hori gura dute zaleek.

**Abestien bidez esan nahi duzuen hori asko aldatu da, esaterako, *Ikusi eta ikasi*-tik *Hordago*-ra?**

Ezetz esango nuke. Azken finean, letrek betidanik islatu izan dituzte gure burutazio eroak, kritika sozial batzuekin osatuta. Azken diskoa ere halakoa da, eta plazaratu gura ditugun mezuak ez dira aldatu.

**Askotan galdetuko zizueten zergatik itzuli den taldea hainbeste urteren ostean...**

Bai, eta guk beti gauza bera erantzuten dugu. Iñigo Muguruzaren omenaldirako batu ginen. Hark parte hartu izan zuen talde guztiek jotzea zen asmoa, eta gu ere elkartu egin ginen omenaldi hura prestatzeko. Lau kanta jo genituen eta taldekide batzuk berotu egin ziren, bueltatu egin behar genuela esanez. Lasai hitz egin ostean, itzultzea erabaki genuen, baina patxadaz hartuta: kantu berriak prestatu, grabatu eta, gero, kaleratu.

**Nolakoa ari da izaten itzulera?**

Gustura ari gara. Beti gustatu izan zaigu jendaurrean jotzea, eta garai berri honetaz disfrutatzen ari gara. Hilean pare bat kontzertu egiten ari gara; pozik gaude.

**Ze diferentzia dago 80ko hamarkadako eta gaur egungo kontzertu baten artean?**

Batez ere, zaleen adinean dago diferentzia. Lehen, guztiak gazteak ziren; eta orain, ez.

**Nostalgiko asko ikusten dira?**

Bai, eta hori poztekoa da.

**Gaur egungo gazteengana ere iristen da zuen musika?**

Baietz esango nuke. Behin, Madrilen, hango neska-mutil gazte batzuk gerturatu zitzaizkigun, sinatzeko eskatzen, eta haien



gurasoengandik ezagutzen gintuzten. Hori ere polita da.

**Urte hauetan guztietan zer ikusi duzu? Eta zer ikasi?**
Gauza asko ikusi ditut, eta ikasi, bizitzen ikasi dut.

**Beste eskarmentu batekin ikusten duzu zeure burua? Bizitzak emandako esperientziatik diharduzu?**
Bai, zalantza barik. 30 urte ez dira alferrik pasatzen eta bizitza ez da bera 30 urterekin edo 60rekin. Edozelan ere, esan behar da gitarra jotzen ez naizela munduko abilena, egiten dakidana egiten saiatzen naiz, besterik ez, eta arlo jakin honetan, gurean.

**Eta, adinean aurrera joanda, ahotsa gehiago zaindu behar izaten da?**
Zorionez, ahotsak ez dit lanik ematen eta ez dut zaindu beharrik izaten. Zaindu gabe ere, betiko moduan ateratzen zait.

**Taldekide berriak dituzue: Mikel Kazalis eta Haritz Harreguy. Zer moduzkoa da elkarlana?**
Haritz diskoa grabatzen hasi ginenean hasi zen gurekin. Lehenengo bi kantak hirurok grabatu genituen. Baxu-jole bat ere falta zitzaigun, eta Mikeli esan genion. Gure proposamena onartu zuen, eta hura taldean izatea ere gozamena da. Ondo konpontzen gara laurok.


Andoni Basterretxea, Mutrikun, joan den astean. A.B.

**Bergarako Pentekosteetan izango zarete. Zer aurkituko du kontzertu horretara doanak?**
Saiatzen ari gara kontzertu dinamikoak egiten, arinak. Alde horretatik, azken urtebetean erabiltzen ari garen errepertorioa izango da Bergarakoa ere. Beraz, gure betiko kantak entzun ahal izango dituzte; normala den moduan, gure kanta ezagunenak entzutera dator jendea, eta guk hori eskaini behar diegu, baina baita abesti berriak ere.

**Animatu daitezela, beraz, nostalgikoak eta baita gazteak ere.**
Hori da. Etor daitezela, oso ondo pasako dugu-eta elkarrekin.

**Etorkizunera begira, beste diskoren bat aterako duzue? Geratzeko etorri da Delirium Tremens?**
Bai, gelditzeko asmoarekin bueltatu gara, gu aspertu arte edo jendeak plazetatik bota arte, eta, gelditzen bagara, kantu berriak sortzeko da. Oraindik ez dakigu ze formatutan kaleratuko ditugun, gaur egun diskoak ez direlako hainbeste saltzen, baina gauza berriak sortuko ditugula, seguru.

## J Martinaren emanaldia zapatuan

Egubakoitzean bakarrik ez, zapatuan ere musikaz gozatzeko aukera egongo da San Martin plazan. Izan ere, J Martina taldeak emanaldia egingo du, 23:00etan. Kattalin Becerra taldekideak aitortu duenez, aspaldi ez dute hiruko formatuan jo, eta gogotsu daude horretarako. "Formatu hori berrartzeko gogoz gaude". Hori dela eta, duten guztia emango dutela azpimarratu du: "Gure aldetik, guztia emango dugula ziurtatzen dugu. Gainera, gauza berriekin joango gara Bergarara!". Hala, kontzertura joateko dei egin du: "Aurreiritzirik gabe, etortzeko animatzen ditugu musikazaleak".

Bergara •
metagra
México •
Group
Jai zoriontsuak bergarar guztioi!



Olaia Intziarte zeresana ematen ari da. JOSU SAN ESTEBAN



Delirium Tremens-en rock doinuek gazteak eta nagusiak batuko dituzte. HITZA



Dupla. HALA BEDI

# Musika egitarauan ere, eskaintza zabala

Bergara betidanik egon da musikari lotuta, eta hori nabari da jaietako egitarauan ere; denetariko zuzenekoak ikusteko aukera egongo da. Delirium Tremens, Olaia Intziarte, J Martina, Etxepe, Orhi eta Yogurinha Borova dira emanaldi aipagarrienetako batzuk

**Iñigo Barrena Kortabarria** BERGARA
Pentekosteetako zuzeneko musikak eskaintza zabala izango du aurten ere. Udalaren eta Xaxau Jai Herrikoien Konpartsaren elkarlanari esker musika eskaintza zabala prestatu dute maiatzaren 26tik 30era. Musikarekin hasiko dira jaiak, eta musikarekin amaitu; tartean, kaleak modu ibiltarian girotuko dituzten elektrotxarangetatik hasita, erromeriak, trap, rocka, euskal musika eta DJak izango dira, bereziki, San Martin plaza, herriko kaleak eta aurten ohiko lekua berreskuratuta Bideberri kalean egongo den txosnagunea girotuko dituzten aukerak. Jarraian, musika zita esanguratsuenak.

### ORHI

**Txosnagunea / Maiatzak 26 / 22:00**

Energiaz beteriko taldeak emango die hasiera aurtengo Penetekoste jaietako musika emanaldiei. Bergarako zein Azpeitiko kideekin osatutako taldeak erritmo lasaiak eta azkarrak uztartzen ditu. Hasiera ezin hobea jaientzat.

### DELIRIUM TREMENS

**San Martin plaza / Maiatzak 26 / 23:00**

Hogeita hamar urteren ostean itzuli ziren eszenatokietara, *Hordago* lan berria eta guzti. Garai haietako esentzia galdu gabe, Euskal Herriko rock talde historiko horrek gazte zein nagusi diren jarraitzaileen gozamenerako emankizuna eskainiko du jaietako kontzertu garrantzitsuenetakoan.

### THE LIO

**Txosnagunea / Maiatzak 26 / 00:00**

Duela hiru urte sortutako talde nafarrak iaz kaleratutako lau abestiko disko laburra du azken lana: *Iraganean preso*. 90eko hamarkadako punk doinuak yanki kutsuarekin, rock-and-roll zertzeladak, ahots urratuak eta melodia itsaskorrak entzuteko aukera egongo da txosnagunean.

### BAD SOUND

**Txosnagunea / Maiatzak 26 / 02:30**

Euskal Herriko reggae panoramaren klasiko baten txanda iritsiko da jaietako lehen eguneko azken kontzertuan. Bergararren eta jaietara hurbiltzen direnen gorputzak eta kontzientziak dantzan jarriko ditu Irungo hirukoteak.

### DJ EDOZER

**Txosnagunea / Maiatzak 26 / 04:30**

Jaietako lehen parranda amaitzeko edo nahi duenak ordu txikiak arte festan jarraitzeko aukera ezin hobea izango du DJ Edozer-ekin.

### J MARTINA

**San Martin plaza / Maiatzak 27 / 23:00**

Pop elektronikoa lantzen duen talde bizkaitarrak base elektronikoak ahots melodikoekin uztartzen ditu. Gaur gaurkoz, Disko luzerik kaleratu ez duten arren, 2020az geroztik entzun eta famatu egin diren kanta ugari kaleratzen dihardute Euskal Herriko oholtzetan barrena; *Efemerideak* da euren azken lana, eta nola ez, Bergaran entzungai egongo da txosnagunean.

### OLAIA INTZIARTE

**Txosnagunea / Maiatzak 27 / 22:30**

Oronoztar gazteak emango die hasiera txosnaguneko kontzertuei, jaietako bigarren egunean. *Behe klasekoa* da, agian, haren lan edo abesti entzunena, baina Bergarara labetik atera berria duenbere azken abestiarekin iritsiko da: *Denak begira daudelaik*.

### ETXEPE

**Txosnagunea / Maiatzak 27 / 00:30**

Debagoienean sortua, sare sozialetan kantak igotzeari ekin zioten, eta, ordutik, gorakadak ez du etenik. Eli, Axeri eta Fane abeslari eta An2an DJ lanetan dela, musika urbanoa, rapa, trapa eta bestelako doinuak izango dira entzungai Arrasateko taldearen eskutik.

### MUTIKO, TATTA & DENSO

**Txosnagunea / Maiatzak 27 / 03:00**

Jaietako bigarren gaua amaitzeko, bakarkako ibilbidea duten hiru gaztez osatutako taldea, baina ikuskizun bikaina egiteko elkartzen direnak. Denso produkzioan eta Tatta eta Mutiko ahotsetan. Besteak beste, *Ale-*




Orhi taldeak emango die jaiei hasiera. IMANOL SORIANO


Yogurinha Borova. GOR DISCOS


Etxeperen musika urbanoak jendetza batuko du txosnagunean. IMANOL SORIANO

*sardui, Sativa, Frío* eta beste abesti batzuk dituzte euren lan esanguratsuenen artean.

### GOXUA'N SALSA

**San Martin plaza / Maiatzak 28 / 21:30**

2020. urtean Iruñean bederatzi nafarrek eta sei kolonbiarrek sortutako proiektu berritzailea bezain freskoa da Goxua'n Salsa. Doinu latinoak euskaraz abestuta eta dantzatuta taularatzen dituen taldeak bergararren gorputzak erritmo bizian mugitzen jarriko ditu San Martin plazan.

### LAKET

**Txosnagunea / Maiatzak 29 / 20:00**

Pentekoste asteleheneko klasiko bat da Laket erromeria taldea; txosnagunea dantzan jarriko dute, urtero Bergaran egon izan direnean bezala.

### DUPLA

**Txosnagunea / Maiatzak 29 / 23:00**

Nekazaritza ingurune baten musika urbanoa egiten duen taldea; horrela definitzen du bere burua Duplak. *Nahieran* da euren orain arteko lan luze bakarra, baina, jasotako kritika onei esker, leku bat irabazi du euskal panorama artistikoaren errebelazio gisa. *Alta gama* euren azken lana ere entzun ahalko da txosnagunean.


J Martina taldeak pop elektronikoan murgilduko ditu bergararrak. AIKOR


Gorputzak dantzan jarriko ditu Goxua'n Salsa taldeak. GOXUA'N SALSA

### YOGURINHA BOROVA

**Txosnagunea / Maiatzak 29 / 01:00**

Drag artista laudiarrak hainbat proiektu plazaratu ditu LGTBQ+ edukiak gazteenen artean zabaltzeko helburuarekin, eta urteak daramatza aniztasuna musikaren bidez aldarrikatzen. Beti bezala, mundu guztia dantzatzen eta abesten jartzen saiatuko da Bergaran ere.

### BANKAKO MENDITARRAK

**Irala kalea / Maiatzak 30 / 13:00**

Jaietako azken eguneko bermuta girotzeko, Nafarroa Beheretik etorritako talde horrek girotuko ditu kaleak. Taldekide guztiak artzainak dira, bitxikeria bezala.

## DENETARIKO ESTILOAK ENTZUTEKO ETA DANTZATZEKO AUKERA EGONGO DA PENTEKOSTEETAN

### TRIKIDANTZ

**San Martin plaza / Maiatzak 30 / 20:00**

Jaiak behar bezala eta dantza giroan amaitzeko, Bitorianatxoren igoerarekin batera Pentekosteetako azken ekitaldia izango da Trikidantz erromeria taldeak eskainiko duena.

### Bestelako kontzertuak

Zerrendatik kanpo ere beste hainbat kontzertu eta emanaldi egongo dira aurten Pentekosteetan. Nola ez, Bergarako Musika Bandak bere presentzia izango du. Jaiak hastearekin bat kalejira egingo dute maiatzaren 26an, 20:00etan hasita; bigarren kontzertua, aldiz, domekan eskainiko dute, Espoloian, hilaren 28an (12:30). Beste emanaldi esanguratsuenen artean egongo dira Joxe Mendizabalen erromeria Seminarixoko karpan maiatzaren 26an (21:30); Gesaltza Fanfarrearekin animazioa herriko kaleetan, maiatzaren 28an (10:00-13:00); eta Joselu Anaien dantzaldi bikoitza Espoloian, egun bat geroago, maiatzaren 29an. Goizean (12:30-14:00) eta gauean (23:00-02:00).

INDUSTRIAS FEGAR, S.A.
AENOR ER Empresa Registrada
CERTIFIED EQNet QUALITY SYSTEM
www.fegar.com
Ondo ibili jaietan!

# BERGARAKO JAIAK GOIENAN



## 'HEMEN DEBAGOIENA' JAIETAN

**GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN**
MAIATZAREN 26AN, EGUBAKOITZEAN, 19:30EAN HASITA
**BERGARAKO JAIEN HASIERA SAN MARTIN PLAZATIK**

ZUZENEKOA



## KUADRILLEN ARTEKO XIII. OLINPIADAK

**GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN**
MAIATZAREN 29AN, ASTELEHENEAN, 12:00ETAN HASITA
**SAIOA ZEZEN-PLAZATIK**

ZUZENEKOA



## 'HEMEN DEBAGOIENA'

**GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN**
MAIATZAREN 30EAN, 18:00/20:00 ETA 22:00
**BERGARAKO JAIEI ESKAINITAKO SAIOA**



## 'JAIAK' SAIO BEREZIA

**BERGARAKO PENTEKOSTEAK**
MAIATZAREN 31N, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
**AITOR AGIRIANOK ETA ANDREA GONZALEZEK AURKEZTUTAKO SAIOA**

goiena

Zu hemen zaude.





Arantza Gaztañaga margolaria, eta alboan haren obra. ARANTZA GAZTAÑAGA

# Beste begirada batez ikusteko aukera

'Gaur, egun horietako bat da' Arantza Gaztañagak sortutako erakusketa Eskoriatzako Ibarraundi museoan ikusgai egongo da, maiatzaren 23tik ekainaren 2ra arte. Obrek haren sentipenak erakusten dituzte, bizitzaren beste pertzepzio bat

**Miren Arana Pagaldai** ESKORIATZA

*Gaur, egun horietako bat da* Arantza Gaztañagak sortutako olio, irudi eta testu erakustaldia egongo da Eskoriatzako Ibarraundi museoan. 8 urte zituela epilepsia diagnostikatu zioten, eta hark haren pertzepzioa guztiz aldatu zuen; minutu batetik bestera haren zentzumenak aldatu egiten dira. Erakusketak desberdina den pertzepzio hori erakustea du helburu, eta maiatzaren 23tik ekainaren 2ra ikusgai egongo da. "Urteak pasa ditut pentsatzen, eta Arte Ederrak ikasten hasi nintzenean hasi nintzen nire pertzepzioak gehiago lantzen. Nire obrek beste begirada bat erakusten dute, nire sentipenak adierazten ditut, mareatzen naizenean nola sentitzen naizen", adierazi du Arantza Gaztañagak.

### Tesian oinarrituta

Ez da sortu duen lehenengo erakusketa; hura proiektu "pertsonala" izan arren, izan ditu esku artean beste lan batzuk ere. *Zentzua eta sentsua* da horietariko bat, haren tesian oinarritutako margo bilduma. Erakusketa horretan beste 22 irakasle eta diziplinaturekin aritu da lanean sortzailea: "Bizkaia museoko Txillida aretoan egon da ikusgai; beste batzuen pertzepzioa azaldu nahi nuen, ikusmeneta entzumen-desgaitasuna duten pertsonak kontuan hartuz erakusketa inklusiboa egin nahi izan dut".

Proiektu desberdinak izan dira, batean elkarlanean aritu da eta bestean bakarrik. Eskoriatzan ikusgai izango den erakusketa bakarkakoa da, eta ikusgai egongo diren obra denak propioak dira. Hala ere, gehien kostatu zaiona gestio lanak izan dira: "Zailena ez da koadroak egitea izan. Erakusketa bat aurrera ateratzeko, kultur etxe eta museoekin hitz egin eta gestioak egin behar dira; agian, hori kostatu zait gehien".

> **"BESTE PERTZEPZIO BATZUK ERAKUTSIZ, ERAKUSKETA INKLUSIBOA EGIN NAHI IZAN DUT"**

### Aurrerantzean

Orainaldia proiektu pertsonalari eskainiko diola aitortu du Gaztañagak: *"Gaur, egun horietako bat da* proiektuarekin jarraituko dut; etxean jarraitzen dut koadroak egiten. Proiektu hau pertsonalagoa da, nire sentimenduak azaleratzen ditut".

Oraindik tokirik ez izan arren, lanean jarraitzen du artistak, eta Euskal Herrian zehar erakusketa ikusgai izatea gustatuko litzaioke; posible bada, baita kanpora ateratzea ere. "Erantzun ona izaten ari da, beste begirada bat erakusten delako. Beraz, lanean jarraitzen dut koadro gehiago egiten. Orain arte, Bizkaian ibili naiz, eta orain, Gipuzkoara joango naiz, Eskoriatzara".

## Udal lurretan egurtegiak erabiltzeko deialdiaren amaiera

Gaur bertan amaituko da Udalaren lurretan egur-tokiak erabiltzeko izen-emate epea, egubakoitza

**Miren Arana** LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagan erroldatuta daudenei zuzenduta, hamar egurtegi erabiltzeko izen-ematea zabaldu zen Udalean maiatzaren 4an. Baserritarra ez den eta udalerrian lursailen jabea ez den orori zuzenduta egon da, batik bat. Gaur amaituko da izen-emate epea.

Gaztainuzketan kokatuta dauden hamar egurtegi erabilgarri daude; bakoitza bi pertsonak erabili ahal izateko bi azpiegurtegitan banatuko da eta azpiegitura bakoitza 5x3 metrokoa izango da. Behin esleipena eginda, egurtegia erabiltzeko epea lau urtekoa izango da, beste lau urtez luzatzeko aukerarekin.

Baimendutako erabilera bakarra egurtegiarena izango da; eta erabileragatik ordaindu beharreko kuota urtean 20 eurokoa izango da. Kopuru hori urtero eguneratuko da, KPIaren arabera, urtarrilaren 1eko data ezkero.

Alkatearen erabaki bidez, behin eskaria egin duenak erabilera baimena eskuratu ostean, Udalak gainontzeko baldintzak ezarriko ditu.

GORA ETA BEHERA



### Eskola pareko ziburua berritu dute

Eskola pareko ziburua nahiko zaharkituta zegoen; 2022a amaitu baino lehen, berria eskatu zuten. Otsailean jarri zuten ziburu berria, eta, horrekin batera, lurra ere berritu zuten.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

## Logo berria hautesleek

Leintz Gatzagako Hautesle Elkarteak logo berria aurkeztu du maiatzaren 28an egingo diren udal eta foru hauteskundeetarako. Zaharraren eredutik abiatuta, lehen begi kolpean ez da aldaketa handirik sumatzen, hizkiak mantendu egin dituztelako. Baina goi eskualdeko lauburuari egokitzapen txiki bat egin diote, eta hori da berrikuntza.

HAUTESLE ELKARTEA



Bergarako Orfeoiko kideak Arantzazuko santutegian, Aitor Biain zuzendari oñatiarrarekin. BERGARAKO ORFEOIA

# Mendeurreneko lehen zita handia orfeoiarentzat

Bergarako Orfeoiak 100 urte bete dituela ospatzeko aurreikusita dituzten bi kontzertu berezien artean lehena emango dute bihar, maiatzak 20, San Pedro elizan (19:00); 200 bat lagun izango dira agertokian Mozarten 'Requiem' obra ezaguna interpretatzeko

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA
1923an sortua, osasuntsu heldu da Bergarako Orfeoia 100 urte egitera. Badago zer ospatu, beraz, eta, orfeoiko zuzendaritza taldeko Eva Agirrek gogora ekarri duenez, bi ospakizun ekitaldi nagusi izango dituzte: lehena bihar izango da, maiatzak 20, San Pedro elizan (19:00) eskainiko duten Mozarten *Requiem* kontzertua; eta bigarrena azaroaren 11rako udal pilotalekuan aurreikusita duten *100 urte kantuan* jaialdi berezia izango da.

### 'Requiem', bosgarren aldiz

Biharko kontzertu sinfonikorako dena dute prest, orfeoiko zuzendari Aitor Biainen arabera. Biainek gogora ekarri duenez, Bergarako Orfeoiaren historian bosgarren aldiz interpretatuko dute Mozarten *Requiem*: "70eko eta 80ko hamarkadetan hiru alditan egin zen eta laugarrena 2013an, duela hamar urte. 2013an egindakoak garrantzi handia izan zuen orfeoiarentzat; ezin dugu ahaztu kondaira puntua baduela obrak, Mozartek konposatutako azkena izateaz gain –ez zuen bukatu ere egin–, esaten delako haren buruari egindako obra bat dela. Kondaira puntu horrek garrantzi berezia eman dio *Requiem*-i, musika oso ezaguna izateaz harago".

Orfeoiko kideez gain, Goikobalu abesbatzako kideek ere hartuko dute parte, baita Euskal Herriko Unibertsitatekoek ere. Are gehiago, Aequus Ensemble ere han izango da, eta, horrez gain, Maria Martin sopranoa, Maite Arruabarrena mezzosopranoa, Bergarako Aitor Garitano tenorra eta Juan Laboreria baxua. 200 lagunek baino gehiagok hartuko dute parte ikuskizunean. "Azken entseguan 177 aulki jarri genituen abeslariendako eta 45 bat musikariendako", adierazi du Agirrek.

### '100 urte kantuan' ikuskizuna

Mendeurreneko bigarren zita garrantzitsuena izango da *100 urte kantuan* ikuskizuna. Azaroaren 11n egingo dute, udal pilotalekuan. Orfeoiko kide ohiek, Bergarako Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak eta Musika Eskolak hartuko dute parte, besteak beste. "Bergaran ondo ezagutzen ditugun ikuskizun erraldoi horietako bat izango da; aurrerago emango ditugu xehetasun guztiak", dio Agirrek.

### Erakusketa eta dokumentala

Bi kontzertuez gain, erakusketa bat ere irekiko dute Aroztegi aretoan, maiatzaren 25etik ekainaren 11ra. "1923tik hasita hainbat argazki ditugu, eta egin dugu aukeraketa. Normalean, erakusketak egubakoitzetan irekitzen dira, baina, egun eta ordu horretan Bitorianatxoren jaitsiera denez, irekiera egun bat aurreratu dugu", dio Agirrek. Besteak beste, argazki zaharrak, bideo batzuk eta arropa zaharrak erakutsiko dituen erakusketa "oso polita" ari dira prestatzen. Urtea bukatu aurretik dokumental bat egiteko asmoa ere agertu dute, askotariko testigantzekin. Gainera, orfeoiaren mendeurreneko abestia izango dena grabatzeko asmoa ere badute, Luis Azurzak konposatutako musika oinarri hartuta. Dokumentalaren eta abestiaren gaineko argibide gehiago aurrerago emango dute.

### Sarrerak han ere salgai

Biharko kontzerturako sarrerak salgai daude *seminarixoa.eus*-en, 12 eurotan. Hala ere, orfeoiko kideek jakinarazi dute egunean bertan ere erosi ahalko direla, elizaren atarian jarriko duten mahaian. Ez dute edukiera arazorik espero, 800 lagunendako lekua aurreikusi dute-eta San Pedro elizan.

### 'Streaming'-ez eta telebistaz

Zapatuko kontzertua *streaming* bidez ikusi ahalko da Bergarako Orfeoiaren Youtubeko kanalean. Era berean, Goiena telebistan ikusi ahalko da kontzertua osorik; ekainaren 3an 22:00etan eta ekainaren 4an 13:00etan eta 20:00etan.

**'SEMINARIXOA.EUS' WEBGUNEAN EROS DAITEZKE SARRERAK; EGUNEAN BERTAN ERE SALDUKO DITUZTE**

# Ipintzak 50 urte: amaiera festa berezia egingo dute bihar plazan

1972-1973ko ikasturtean ibilbideari ekin zion institutuak jaialdi berezia egingo du zapatuan, ikasturtea amaitzeko

**J.B.L.** BERGARA
Ipintza institutuak 50 urte bete ditu 2022-2023ko ikasturtean. Hainbat ekitaldi egin dituzte mende erdia bete dutela ospatzeko; esaterako, irailaren 30etik urriaren 23ra argazki zaharrez osatutako erakusketa bat izan zuten Aroztegin, eta egun hartan bazkari berezia egin zuten gaur egungo eta garai bateko irakasleekin eta langileekin. Orain, ikasturte amaiera ate joka dagoela, festa berezia antolatu dute zapaturako, hilak 20, San Martin plazan. Honako ekintza hauek antolatu dituzte: suziria botako dute (12:00); trikitilari eta buruhandiekin kalejira, aurpegi margotzea, *Zaldia eta zalduna* jolasa eta laranja dantza (12:00-13:30); herri kirolak eta euskal dantzak (13:30-14:30); bazkaria Seminarioko karpan (14:30); Bingenen kontzertua, bingo musikatua eta irrintzi eta mus txapelketak (21:00ak arte); eta, jaia amaitzeko, Mugi Panderoa taldearen erromeria (22:30-00:30).



Ipintza institutuko ikasle, irakasle eta guraso talde bat festaren berri ematen. IPINTZA

M-28



EH Bilduk eguaztenean Bergaran egindako ekitaldia. L.Z.L.

# "Bi alderdiren aurrean gehiengo zabala" behar duela dio EH Bilduk

Duela lau urteko "zakarkeria eta agintekeria" berriro ez pairatzeko boto guztiak beharko direla dio Gorka Artolak

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA
Eguazten iluntzean San Martin plazan egindako ekitaldian, EH Bilduko alkategai Gorka Artolak eta EH Bilduko mahai politikoko kide Larraitz Ugartek hartu zuten hitza. EH Bilduren lan egiteko modua zein izan den gogoratu zuen Artolak: "Guk, Bergara hobetzeko, nahiago dugu herritarrekin hitz egin: azoka biziberritzeko bertako saltzaileen ekarpenak jaso, lurrak jabetza publikoan jarri erosi baino lehen, Kukubasoko lagunekin hitz egin, edo festen atarian Xaxaukoekin gure kezkak konpartitu. Haurrei zein parke eredu nahi duten galdetu. Zaintza ekosistema komunitarioan urratsak egiteko gaia bizitzen eta kezkatzen duten herritarrekin landu".

**"Gehiengo zabala behar dugu"**
Herriko eragileekin eta norbanakoekin batera gobernatu behar dela sinistuta dago Artola: "Horrela lan egin dugu herriko hezkuntzako eragileekin, kulturakoekin, herrian lan egiten duen edozein eragilerekin. Baita pertsona nagusi zein gazteekin ere. Erabakiak hartzeko, erabakiek konpartituak izan behar dutelako. Gobernatzeko eredu horretan sinesten dugu, guk denok Bergara bizitzeko leku erakargarria eta atsegina nahi dugulako. Eta hori denon artean egin behar dugu".

Gehiengo zabala beharko dutela ere azpimarratu zuen alkategaiak: "Alternatiba badakizue zein den. Begiratu lau urte atzera zer zegoen: udal itxi bat, elkarrizketarako gaitasunik gabekoa, zakarkeria eta alkatearen agintekeria. Ez dugu hori berriro pairatu nahi, ez dugu merezi. Baina horretarako gehiengo zabal-zabala eskuratu behar dugu maiatzaren 28an. Gehiengo zabal-zabala, EH Bildu bi alderdiren baturaren kontra lehiatzen ari delako".

**"Kanpaina lokaztua" salatu**
Larraitz Ugartek esan zuen "kanpaina lokaztua" izaten ari den arren EH Bilduk badakiela zer egin behar den: "Desanimoaren aurrean, guk esperantza. Frogatu dugu, badakigu nola eragin behar den gauzak aldatzeko. Eta beste batzuek ere badakite hori... Horregatik dator kanpaina hau hain lokaztua. Etxebizitza, Osakidetzaren gainbehera, gazteen emantzipazio zailtasunak, bizitzaren garestitzea... Horri buruz hitz egiten egon beharko genuke, baina ez dute nahi. Lokatzetan nahi gaituzte, baina gu gurera. Eztabaida politikoaren maila igo eta jendeari benetan axola zaionaz hitz egin. Jendeak behar dituen soluzioak eskaintzen tematuko gara. Baditugulako erantzunak, soluzioetan aurkituko gaituzte".

**"LOKAZTU" EGIN DUTEN KANPAINAREN AURREAN EZTABAIDA POLITIKOAREN MAILA IGO NAHI DU EH BILDUK**

M-28



EAJko Oualid Saidi, Kepa Sebal, Mikel Lete (alkategaia) eta Maite Agirre, Ipintzan. EAJ

# Agorrosin eta Ipintza berritzeko "konpromisoa" hartu du EAJk

Agorrosin berrirako azken bi faseak eta Ipintzako zelaia berritzea lehentasunen artean ikusten ditu Mikel Letek

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA
Kirolaren arloan datozen urteetan garatu nahi dituzten egitasmoen berri eman du EAJk asteon. Mikel Lete alkategaiak "argi" dauka Agorrosin eraberritzen jarraitu beharra dagoela: "Bergarak kirolerako eta aisialdirako hiru gune garrantzitsu ditu: Labegaraieta, frontoia eta Agorrosin. Behin Labegaraietaren eraberritzea amaituta, Agorrosinekin jarraitzeko ordua da".

**Agorrosin: beste bi faseak**
Hain zuzen ere, lau urtean lehen fasea besterik egin ez dela salatu du Letek: "2019ko maiatzean onartu zen hitzarmena, eta, Agorrosin udalekotzeko negoziazioak 30 urte iraun eta gero, ezinbestekoa da lanekin jarraitzea. Horretarako, proiektuak aurrera eramateko gaitasuna duen gidaritza bat behar da, eta ez EH Bilduren kudeaketa negargarria; lehen fasea besterik ez dute egin urte hauetan, belar naturala kendu eta artifiziala jarri, eta hori ere kostata egin dute". Horrekin batera, BKEk eta futbol jokalariek "hainbat alditan" egindako protestak ere ekarri ditu gogora Letek: "Onartezina da osoko bilkuran onartutako hitzarmenaren kudeaketarik eza; baina hori da EH Bilduren eredua".

Letek gaineratu du BKErekin izandako bileretan EAJren susmoak bete direla eta eurek hasitako bidearekin jarraituko dutela: "Hitzetatik ekintzetara pasatuko gara eta eragileekin elkarlanean bigarren faseko – harmailak, aldagelak, bulegoak, uraren azpiegiturak….– eta hirugarren faseko –libre geratzen den esparrua– proiektuak idatzi eta gauzatzeko konpromisoa hartzen dugu".

**Ipintza eta gimnasioa**
Horrez gain, Ipintzako zelaiaren "egoera tamalgarria ezin da gehiago luzatu", Leteren arabera: "Irtenbidea eman behar zaio, egoera kaskarrean dago eta lesioak eragin ditzake". Gainera, jeltzaleek proiektua idatzita izatearen garrantzia azpimarratu dute, beste erakundeetan sortu daitezkeen dirulaguntza-lerroen aurrean prest egoteko. Azkenik, EAJk "argi" du gimnasioa txiki geratu dela eta irtenbidea eman behar zaiola: "Aukerak badaude, baina kudeaketa zorrotza eskatzen du; gu prest gaude elkarlanean gauzatzeko".

Kirolaren alde egitea, herriaren, ongizatearen eta osasunaren alde egitea dela dio Letek, eta EAJ kirol taldeen alboan egongo dela agindu du: "Proiektuak gauzatzeko gaitasuna duen gidaritza bat behar du orain Bergarak, EH Bilduk kirolaren esparruan azken urteetan izandako gabeziei aurre egiteko".

**EAJ KIROL TALDEEN ONDOAN EGONGO DELA DIOTE, "AZKEN URTEETAKO GABEZIEI" AURRE EGITEKO**

## Mariaren Lagundiaren ikasturte amaierako festa bihar, hilak 20

Mariaren Lagundiak bihar ospatuko du ikasturte amaierako jaia, hilak 20. Goiz eta arratsaldez, 10:30etik 19:00etara, izango dute zertaz gozatu ikastetxearen bueltan. Honako hau izango da egitaraua: jaiaren hasiera, suziri jaurtiketarekin (10:30); ginkana (10:30); futbol partidua (11:30); *talent show*-a (12:00); otarrearen zozketa eta sari banaketa (13:30); ikasleen dantza ikuskizuna, *flashmob* eta guzti (14:00); bazkaria eta bingoa (14:30); Iago magoaren ikuskizuna (16:00); dantzaldia (17:30); eta, festa amaitzeko, Lagunditxoren igoera (19:00). Gainera, erraldoiak, trikitilariak, puzgarriak, tailerrak, zozketa eta taberna ere ez dira faltako.

## Herriko pilota txapelketako finala bihar, udal frontoian

Ernaik eta Arranok antolatu duten pilota txapelketa herrikoia bihar amaituko da, hilak 20. Ekintza hauek antolatu dituzte: finalaren hasiera (19:30); omenaldia (20:30); ekitaldi politikoa (20:45); eta Larrate-Garminde eta Alday Mendizabal bikoteek jokatuko duten partidu nagusia (21:00). Sarrerak: Arrano, Pol-Pol eta Etxagin (bost euro).

OHARRAK

### Hitzaldia Angiozarren

Umeen autonomiaren garapenaren gaineko saioa gidatuko du Alvaro Beñaran pedagogoak Arbiaska aretoan, hilaren 25ean, 18:00etan.

### Pintura Agorrosinen

Jesus Mari Zabaleta margolariaren hamaika koadro egongo dira ikusgai eta salgai Agorrosin kiroldegiko tabernan, urrira arte.

### Odola ematea

Hurrengo ateratzea hilaren 25ean izango da, osasun etxean, 16:30etik 20:30era. Elkarteak dei egin die bereziki gazteei odola eman dezaten. Argibide gehiago: 747 42 99 20 (Dulce).



Liga Nazional Mailara igotzeko lehian dabilen taldea, martitzenean; atzeko harmailak beteta ikusi nahi dituzte domekan. J.B.L.

# Historia egitera deituta dagoen belaunaldi berezia

Euskal Ligan diharduen BKEko gazte mailako taldeak puntu bakarra behar du domekan UDAren aurka jokatuko duten derbian Liga Nazionalerako igoera lortzeko; Bergara ez da sekula maila horretan egon: "Azken urratsa egin behar dugu lorpen historiko baterako"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA
Bergarako gazte mailako futbol taldea lorpen handi baten atarian dago. Iaz Ohorezko Erregional Mailatik Euskal Ligara igo zen taldeak aukera asko ditu berriro ere maila igoera lortu eta datorren urtean Liga Nazional Mailan jokatzeko. Domekako UDAren aurkako derbian erabakiko da dena (Agorrosin, 16:00etan).

**Belaunaldi berezi bati esker**

Giro berezia nabaritzen da egunotan Agorrosin futbol zelaian gazte mailako taldearen bueltan. Eta ez da gutxiagorako, Euskal Ligako azken partidua jokatuko dutelako domekan eta puntu bakarra lortuta ziurtatuko luketelako datorren urtean Liga Nazional Mailan jokatzea. Joan den asteburuan espero zuten igoera ziurtatzea, Gasteizko Ariznabarraren aurka, baina 4-3 galdu zuten. Berdinketa nahikoa zitzaien helburua lortzeko eta oso gertu izan zuten, baina, azkenean, ez zen posible izan. Hori bai, denboraldian sentsazioak oso onak izan dira hasieratik. "Hasieratik oso sentsazio onak izan ditugu, eta, oker ez banabil, denboraldi guztia daroagu lehen hiruen artean sailkatuta. Ez nuen zalantzarik belaunaldi berezi honekin zerbait handia egin genezakeela. Pena izan da azken partidura arte ez dugula igoera ziurtatu; azken urratsa egin behar dugu lorpen historiko baterako", dio taldeko entrenatzaile Iñaki Mardarasek.

**Presioa arintzen saiatu**

Taldeari presioa kentzen saiatzea izango da erronka nagusia domekara begira, Mardarasek badaki-eta ilusiorik eta gogorik ez zaiela faltako jokalariei. Badakite herriko futbolzaleak gertutik jarraitzen ari direla taldearen jarduna, eta hori ere bada presio erantsi bat: "Azken bi hilabeteak luzeak egiten ari zaizkigu. Igotzeko aukera hori buruan dugu etengabe eta kalean ere asko galdezka ari dira. Polita bezain zaila da egunerokotasunean eramateko".

**Jokalariak, "ilusioz gainezka"**

Jokalarientzat esperientzia bikaina ari da izaten. Iaz Ohorezko Erregional Mailan jaun eta jabe izan ziren eta aurten Euskal Ligan ere hasieratik izan dira igoera postuetan. Domekara begira irrikaz daude, Iker Etxaniz kapitainaren arabera: "Partidu oso berezia izango da, gogo handiz eta ilusioz gainezka gaude. Ea igoera lortzen dugun. Familia bat gara, oso harreman ona dugu aldagelan, eta hori gero igarri egiten da jokatzeko orduan".

**Lehen hiru sailkatuak igoko dira**

Puntu bakarra nahiko zaie bergararrei igoera ziurtatzeko, baina irabaztera irtengo dira; domekakoa derbia da eta badakite UDAk ez diela ezer oparituko. "Partidua irabaztera irtengo gara domekan. Badakigu UDAk zail jarriko digula; pena da aretxabaletarrek azken partiduan galdu egin zutela eta ez dutela igotzeko aukerarik... Baina badakigu derbi bat dela eta beti dagoela partidu horiek irabazteko gogoa; elkar ezagutzen dugu eta lehia berezi hori beti dago hor. Guk gurea egiten badugu, mailaz igoko gara, Leioak eta Añorgak egingo dutenari begiratu barik". Lehen hiru sailkatuak igoko dira mailaz; lehena den Gernikak ziurtatu du igoera (72 puntu), Leioa (67) da bigarren, Bergara (66) hirugarren eta Añorga (64) laugarren. Añorgak Leioaren aurka jokatuko du eta Bergarak, Añorgaren kontrako bi partiduak irabazi ostean, puntuetan berdinduz gero abantaila izango lukete mahoneroek; 67 puntu nahikoa izango lirateke, beraz, datorren urtean Liga Nazionalean jokatzeko.

**UDAk lortu zuen, 2009an**

Horregatik, UDAren aurka gutxienez puntu bat lortzea beharrezkoa izango da. Hain zuzen ere, Aretxabaletakoa izan zen Debagoienko azken taldea Liga Nazionalerako igoera lortu zuena. 2008-2009ko denboraldian izan zen, orduan ere belaunaldi berezi bat irten zelako Aretxabaletan, eta bi denboraldiz egon ziren maila hartan. Orain, Bergarari dagokio historia egitea; horretarako, BKEk dei egin die bergararrei domekan Agorrosingo harmailak bete ditzaten.

**DOMEKAN AGORROSIN FUTBOL ZELAIKO HARMAILAK BETETZEKO DEI EGIN DIETE HERRITARREI**

## Agur Diazi eta Etxeberriari

BKEko senior mailako Mariñe Diazek eta Ainhoa Etxeberriak futbola utzi dute, 14 urteren ostean. "Datorren urtean hutsune handi bat igarriko dugu. Iaz beste urtebete egitea erabaki genuenean esan genuen azken urtea izango zela. Eskerrak eman nahi dizkiegu urte hauetan guztietan aldagelan izan ditugunei; futbolak eman dizkigun lagunak geratuko zaizkigu betirako".



BERGARA KIROL ELKARTEA

## Ligako txapeldun, denboraldi amaiera borobila egin ostean

Gipuzkoako lehen probintzial mailara igoera lortu ondoren, ligako txapeldun izatea lortu du BKEko Goizper Group saskibaloi taldeak; joan den domekan jokatu zuten finala, Lasarteko Ostadar taldearen aurka, eta 59-43 irabazi zuten. "Oso motibatuta amaitu dugu; jokalari gehienok jarraitzen badugu, erronka polita izango da maila berria".



Zaleen txalo zaparrada amaieran. I.B.

# Herriko musikari balioa ematen dion jaia etzi

Bergarako Musika Eskolak prest du domekan 32 urte beteko dituen Udaberriko Musika Jaia. Aurrera begira jai hori Musika Eguna bihurtzeko asmoa dutela azpimarratu dute antolatzaileek. Eguraldiak laguntzen ez badu, plan alternatiboa dute

**Xabier Urzelai** BERGARA

Domekan egingo dute Bergarako Musika Eskolak antolatzen duen Udaberriko Jaia, helburu garbiarekin. "Bergaran jende asko dago musikaren bueltan ibiltzen dena, musika-zale asko dago, musikari asko, eta garai bateko giroa errekuperatu nahi dugu eta musikaren gaineko jai bat egin. Izan ere, egun hau sortu zenean, duela 32 urte, modu batera edo bestera baina jai hartan Bergarako eragile askok hartzen zuten parte. Baina, gero, urruntze moduko bat egon zen, jaia Eskolarena izatera pasa zen arte. Bada, pandemia aurretik ere bagenuen asmoa garai bateko giro hura errekuperatzeko, denak batzeko", adierazi zuen ekitaldiaren aurkezpenean Bergarako Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek: "Horrenbestez, etorkizunean jai hau Musika Egun bilakatzeko lehenengo pausoa izango litzateke. Horregatik gonbidatu ditugu Aritzetako lagunak, Bergarako Orfeoikoak, Bandakoak, Orkestrakoak... Jai honetan berriz ere denok har dezagun parte".


Udaberri Jaiko kontzertuaren artxiboko irudi bat, frontoian. GOIENA

**Eguerdian hasiko dute jaia**

Jaia 12:00etan hasiko dute. Dantza bira egingo dute San Antoniotik abiatuta dantzariek eta Bergarako txistulariek, eta Espaloian barrena San Martin Plazan amaituko dute ibilbidea. Ordu berean, Musika Eskolako Gazte Bandaren eta Bergarako Musika Bandaren emanaldia egongo da Usondo parkean.

Ondoren, Musika eskolako Abesbatzakoak, Aritzeta abesbatzakoak, herriko abeslariak, trikitilariak, pandero-jotzaileak, gitarra jotzaileak eta akordeoi jotzaileak kalejiran irtengo dira. Poligonoan hasi eta Santa Marina eta pilotalekua zeharkatu ondoren, San Martin Plazan amaituko dute horiek.

**GARAI BATEKO JAIA ERREKUPERATU NAHI DUTE, ETA MUSIKAREN BUELTAKO ERAGILEAK OSTERA ERE BATU**

**Bergarako Orkestra Sinfonikoa**

13:30ean etorriko da eguneko beste hitzordu garrantzitsuenetako bat: Bergarako Orkestra Sinfonikoren kontzertua izango da, eta, ondoren, goizeko partaide guztiekin batera Idoia Asurmendiren *Viejo refranero* eta Urretxindorrak-en *Aitorren hizkuntz zaharra* kantuak interpretatuko dituzte. Eta, hain zuzen, herritarrak parte hartzera gonbidatu dituzte: "Musika Eskolatik plazara bertaratzen direnei gonbidatzen ditugu kantuan egitera; aski ezagunak diren abestiak dira horiek eta halakoetan giro polita sortzen da", adierazi zuen Leire Ugarte irakasleak. Eguraldiak laguntzen ez badu, 13:30eko kontzertua San Pedro elizan izango da. Bestalde, herri bazkaria behera geratu da, jende gutxik eman duelako izena.

## Udaberri Jaiko egun osoko egitaraua

**12:00: Musika herriko hainbat gunetan**
- Dantza-jira, San Antoniotik plazara.
- Banden kontzertua eta kalejira, Usondo parkean.
- Kantu-jira.

**12:30: Suzuki eta biolin ikasleen emanaldia, Ariznoan.**

**13:30: Orkestren saioa eta Tuttia San Martinen.**

**14:30: Herri bazkaria plazan [bertan behera].**

**16:00: Musika eta dantza saioak.**

Oharra: giro txarrarekin, kontzertua San Pedro elizan egingo dute eta bazkaria eta ondorengo jaialdia Boluko frontoian.


Ereindajaneko Maite Irizar, Ainhoa Narbaiza, Aitziber Plazaola eta Julia Pajares. A.P.

# Ereindajanek bost urte: "Oso ondo erantzun du komunitateak"

Hilaren 11n egin zuten urteurren jaia lanean jarraitzeko bultzada izan zela adierazi du Aitziber Plazaolak

**X.U.** BERGARA

2018an ireki zituen ateak Bergarako Ereindajanek, eta hilaren 11n bosgarren urteurreneko jaia ospatu zuten. "Ekoizleekin batera, bazkideekin, bezeroekin, langileok elkarrekin... ospatu nahi genuen jaia, eta zer hobeto bertako produktuak eskaintzea baino. Azken batean, aurrera begira jarraitzeko inpultsoa hartze moduko bat izan zen", adierazi du Aitziber Plazaolak.

**Hainbat proiektu esku artean**

Atzerako begiratua eginda, Plazaolak aitortu du hasierak ez zirela errazak izan, neurria hartu behar izan ziotelako proiektuari, eta, normala den moduan, hasieran dendan jarri zutela indarra: "Ateak zabaldu aurretik ere lan handia egin behar izan genuen, eta gaur egun oso pozik gaude, komunitateak oso ondo erantzun du. Esango nuke bost urte hauetan gu ere heltzen joan garela, eta gaur egun guretako garrantzitsuak dira herri mailan ditugun zenbait proiektu; esaterako, elikadura mahaiarena izan daiteke bat, edota ikastetxeekin esku artean ditugun proiektuak".

# Moda desfilea egingo du zapatuan Ndank Ndankek

Arropa ezberdinak erakutsita ere kulturartekotasuna erakutsi daitekeela uste dute Bergarako elkartetik

**X.U.** BERGARA

Badira urte batzuk Ndank Ndankeko lagunek *Kulturartekotasuna modan* izeneko proiektua abiarazi zutenetik, eta, moda desfilea egitekotan zirela (2020), pandemiak bertan behera utzi zituen asmo guztiak. Hala, zapatuan egingo dute lehenengoz desfilea, 17:30ean, Seminarixoan: "Moda bada beste erreminta bat kulturartekotasuna erakusteko, eta hori da desfilearen helburua. Hala, elkarteko kideek, senitartekoek, lagunek... egingo dituzte zapatuan modelo lanak", adierazi du Eli Domingezek, barre txiki batekin, badaki-eta oholtza gainean ederto pasako dutela.

Afrikako oihalekin apainduta hemengo jantziekin igoko dira bergarararrak taula gainera: "Wax oihal koloretsuekin apaindutako jertse, kamiseta eta bestelako arropak erakutsiko ditugu. Eta moda desfilearen ondoren, Seminarixo kanpoan azoka solidarioa egingo dugu". Hala, moda desfilean hainbat eragilek hartuko dute esku, eta musika ere egongo da ekitaldia girotzeko.

# Etorkizuneko hilerria irudikatzeko gogoeta

Hil Arte Bizi egitasmoak, Antzuolako Udalak eta Antzuolako Herri Eskolak etorkizuneko hilerriaren gainean gogoetatzeko prozesua abiatu dute. 4 urteko ikasleekin egin dute lanketa, eta asmoa da udazkenean helduekin hastea, gerora "iparrorratz" izan dadin

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

Heriotza "tabua" dela dio Nere Erkiagak, Hil Arte Bizi egitasmoko kideak, heriotzaren gainean naturaltasunez hitz egiteko "zailtasun handiak" daudela. Haren arabera, herritarrak, komunitateak gai horren inguruan ahalduntzea beharrezkoa da, eta, beraz, Antzuolako Udalarekin eta Antzuolako Herri Eskolarekin elkarlanean, gogoeta parte hartzaile bat jarri dute martxan, etorkizunera begira jarri eta hilerriak nolakoa izan beharko lukeen irudikatzeko.

Maiatzaren 11n eman zituzten gogoeta-prozesu horren gaineko azalpenak, Olaranen eginiko aurkezpenean, Erkiagak uste baitu hilerrien funtzioa aldatuz doala gizartea eraldatu ahala, eta horretaz hausnartu beharra dagoela. "Egungo gizartearen ezaugarrietara egokitu eta haren funtzioa beteko duen etorkizuneko hilerria nolakoa izan daitekeen gogoetatzeko oinarriak badaude".




Etxaniz, Irazabal, Erkiaga eta Kortabarria, hilaren 11ko aurkezpenean. A.R.K.

### Martxan dira eskolan

Eskolako ordezkariei egin zien planteamendua, ikastetxeak ibilbidea egina duelako heriotzaren lanketan, eta nabarmendu du irakasleek egitasmo "edertzat" izendatu zutela proposamena. Hala, lanean hasi ziren.

Egindako urratsak, ordea, ez ziren une batetik bestera erabakitakoak izan. 80ko hamarkada ezkero dabiltza gaia eskolan lantzen, gutxi gorabehera; 5 eta 7 urteko bi ikasleren gurasoetako bat hil baitzen istripuz, eta irakasleek halabeharrez ikusi zuten euren burua behartuta gai hori lantzera, eskola komunitatean gertatutako heriotzen eragina bizi zutelako ikastetxean.

Pilar Etxaniz eta Maria Eugenia Irazabal eskolako irakasleak ziren orduan, eta, orain jubilatuta dauden arren, azalpenak eman dituzte. Irazabalen hitzetan, gertaera haren ostean, "berehala" ohartu ziren helduak beldur zirela heriotzari buruz hitz egiteko, ez zekitela nondik eta nola heldu gaiari. "Ezjakintasunetik hasi ginen lanketan. Gure artean elkarrizketak edukitzen hasi ginen, baita dokumentazioak topatzen ere, ea zer egin zitekeen horrelako egoera baten aurrean; baina ez hori soilik, baita egoera hura hori gertatu baino lehenago ere".

Estrategiak lotzen eta materiala biltzen hasi ziren, batez ere ipuinak, haurrekin gaia lantzeko tresna egokitzat jotzen baitzituzten. Harrezkero, Irazabalek nabarmendu du "kasuistika ugari" izan dituztela eskolan, eta bakoitzari modu batera erantzun behar izan diotela.

### Protokoloa abian da

Duela hamabi urte, ordea, eskolako komunitateko guraso bat gaixotasun larri batekin zegoen, eta irakasle ohiek jakinarazi dute bazekitela hil egingo zela. "Hil egin zen, baina, ordura arte, lan asko egina geunden, ikastaroetan parte hartuta; halaber, ikusi genuen behar bat protokolo bat idazteko, puntuz puntu zer egin behar zen gaixotasun baten aurrean eta zer heriotza etortzen zenean".

Espazioak sortzen hasi ziren, hiltzen ziren haiei eskaintzeko, haurrek zein eskolako komunitateak zaindu zitzaten. Irazabalek azaldu duenez, gurasoetako batzuk hasieran "larritu" egiten ziren, baina umeen tratua ikusita lasaitu egin ziren, eta, ordutik, halako lanketa ugari egin dituzte; betiere, hildakoaren familiarekin kontsultatuta eta alboan izanda. Izan ere, Erkiagak erantsi duenez, heriotzaren pedagogiarekin lortu nahi da egunerokotasunean gaiari buruz hitz egiteko aukera ematea, haurrei askatasunez aritzekoa, euren ondorioetara heltzeko erraztasunak izan ditzaten.

### Hilerriaren proiektua

Elixabet Pueyo eta Josune Jimenez Antzuolako Herri Eskolako irakasleek ere argi dute heriotza landu beharra dagoela, bizitzaren parte dela iritzita: "Sarri, gelan hori ahaztu egiten dugu irakasleok, edo ezikusiarena egiten dugu, gure ezintasunetik zaila delako ukitzen gaituen horren inguruan aritzea, gestionatu ezina-edo gelan jorratzea. Saiatu gara bizitza lantzen".

4 urteko gelako haurrekin hasi dira lanean. Bizitzaren sorreratik abiatu, eta haurdunaldia landu dute. Alabaina, jakin dute badirela jaiotzen ez diren edo hilik jaiotzen diren haurrak ere. Tartean, Antzuolako hilerria bisitatu dute, eta etorkizunekoa irudikatu dute, nolakoa nahiko luketen marraztuta.

Txikienek, beraz, lanaren parte bat egina dute, eta orain helduagoei dagokie lanketa egitea, asmoa baita udazkenean herritarrekin biltzea eta hilerria marrazten hastea, ikasleenekin elkartzeko eta sintesi bat eginda Udalari eman ahal izateko, etorkizunean esku-hartze bat egin nahiko balu "iparrorratz bat" izan dadin.

**"BADAUDE OINARRIAK GOGOETATZEKO GEROKO HILERRIAREN GAINEAN"**

NERE ERKIAGA, HIL ARTE BIZI-KO KIDEA

**"EZJAKINTASUNETIK HASI GINEN LANKETAN; PROTOKOLO BAT ERE IDATZI GENUEN"**

MARIA EUGENIA IRAZABAL, IRAKASLE OHIA

**"BIZITZAREN PARTE DA HERIOTZA; SARRI, HORI AHAZTU EGITEN DUGU IRAKASLEOK"**

ELIXABET PUEYO, IRAKASLEA

## Konponketa lanak amaituta, zabalik dago Jauregiko tunela

Urtarrilaren amaieran hasi zituzten lan hauek; tunelaren ingurua egokitu dute eta lurrean harritxoak bota dituzte

**A.R.K.** ANTZUOLA

Ia hiru urte eta erdiren ondoren, berriro ere martxan da Jauregiko tunela, Antzuolako trenbide zaharrean. Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolamenduko Sailetik emandako informazioaren arabera, lanak egiteko orduan "gorabehera" batzuekin egin dute topo tunelaren barruan; esate baterako, kableatze elektrikoa. Alabaina, nabarmendu dute dagoeneko bide eman diotela "intzidentzia" horri, eta amaitu dituztela bide berdeko lan horiek.

### 2019a ezkero, gaiari bueltaka

2019ko abenduaren 13an gertatu zen lur-jausia tunelean, eta, ordutik, hainbat izan dira herritarrek eginiko eskariak ingurua konpontzeko. 200.550,75 euroko aurrekontua zehaztuta, aurtengo urtarrilaren amaieran hasi zituen lanak Egurki enpresak, lau hilabeteko epearekin. Helburuetako bat tuneleko sarreretako batean pilatutako lurra jasotzea zen, baina baita ingurua txukuntzea eta gerta daitezkeen lur mugimenduak eragoztea ere; hala, tuneleko bi ahoetako alboetan harri-lubetak jarri dituzte, mendebaldeko eta ekialdeko luizietan bide berdearen egonkortasuna ziurtatzeko, lurrak mugikor samarrak baitira.



Jauregiko tunela. A.R.K.

Horrez gainera, bide berdearen inguru hura txukundu egin dute, harritxoak bota baitituzte lurrean, irisgarriagoa izan dadin han ibiltzen direnentzat.

M-28

# Herri "bizia" bultzatzea du helburu EH Bilduk

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

Antzuolako EH Bildu ekitaldi politikoa egitekoa zen atzo iluntzean, baina Orioko (Gipuzkoa) hilketa matxista dela-eta, bertan behera utzi zituzten eguen arratsaldeko ekitaldi guztiak, mugimendu feministak deitutako mobilizazioekin bat egiteko. Datozen egunetan emango dute data berriaren berri.

Alabaina, herri programaren berri eman du alderdiak. Haren arabera, "gaur egungo Antzuola duela lau urtekoa baino hobea da"; azaldu duenez, "gauza asko" egin dira, eta martxan dira "laster errealitate izango diren" beste batzuk ere, hala nola Errekaldeko urbanizazioa eta HAPOren prozesua. Halaber, erantsi du aurrera begira "erronka handiak" dituztela.



Antzuolako EH Bilduko zerrendakideak, Herriko Plazan. ANTZUOLAKO EH BILDU

Puntu nagusienei dagokienez, "pertsona erdigunean jarrita, eta herritarren zaintza eta giza harremanak" oinarri hartuta, aldarrikatu dute "bazterkeriarik eta injustiziarik gabeko herri baten aldeko lana egiteko konpromisoa" dutela, Udaletik zerbitzuak eta estrategiak garatuko dituztela "pertsonen ongizatea hobetzeko". Horrez gain, arreta jarria dute klima krisian, gizarteak "ezinbestean" beste modu batera jokatzen ikasi beharko duela iritzita. Hala, lantzeko gai dituzte, besteak beste, energia berriztagarriak eta ura.

### Xedea lortzeko lantaldea

"Herri bizia bultzatzen" saiatu nahi dute, "parte hartzea berreskuratzeko" ahalegina eginda, auzolana oinarri izanda. "Elkarrekin egindako lanak egiten gaitu herri, eta bide horretatik ibili nahi dugu, komunitate bakar bezala".

Horretarako, gaineratu dute "lantalde jantzia, konprometitua eta prestatua" aurkeztu dutela, "Antzuolako errealitate ezberdinak" ondo ezagutzen dituena, "herriaren eta herritarren mesedetara".

M-28

# Industriari "arnasbidea" eman nahi dio EAJk

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

Eider Mendoza Gipuzkoako EAJren diputatugai nagusia Antzuolan izan zen martitzen arratsaldean, Josu Xabier Aranguren Antzuolako EAJren alkategaiarekin eta beste alderdikide batzuekin batera; are gehiago, tartean izan zen Maria Eugenia Arrizabalaga EAJren Deba-Urola barrutiko zerrendaburua ere. Herriko Plazan elkartu, eta herriko hainbat txoko ezagutzen aritu ziren, herritar batzuekin hitz egin ahala.

EAJk osatutako programaren berri eman zuen Arangurenek. Hamahiru puntu bildu dituzte, eta horietako batzuk nabarmendu ditu: "Guk nahi duguna da herri hau bizitzeko herri bat izatea, eta, horretarako, guretzako oso garrantzitsua da bertan dagoen industriari bizi berri bat ematea edo arnasbide bat, eta gehiago ekarri badaiteke ere, ondo". Horrez gainera, garrantzitsua iruditzen zaie tokiko komertzioari eta ostalaritzari baliabideak ematea, "azkenean, bizi bagara, horri esker ere badelako". Eta, azkenik, kulturan ere jarri nahi dute arreta. "Ikusi dugu nahiko hilda egon dela azken urteetan, eta bultzada handia eman nahiko genioke. Hor zentratuko gara".




Eider Mendoza, Gipuzkoako EAJko diputatugai nagusia, Antzuolako EAJkoekin. A.R.K.

Hain justu, hirigintza, natura, jasangarritasuna, landa eremua, nagusiak, zerbitzuak, energia berriztagarriak, hezkuntza eta gazteak, kirola, kultura, zerbitzu sozialak, parte-hartzea eta udal kudeaketa dira programan jaso dituzten puntuak.

### Gainontzeko puntuak

Haren arabera, badakite ez dela "erraza" izango, baina "ilusionatuta" daude, eta "irabaztera" doaz. Gainera, azpimarratu du herrian ere "nahiko ilusio" nabaritzen dutela, eta "pozik" daudela horrekin. Alabaina, animatuta egon arren, argi du herritarrek erabakiko dutela maiatzaren 28an zer gertatuko den.

M-28

## Alkategaien arteko debatea martitzenean Goiena telebistan

Olatz Lezeta EH Bilduko alkategaia eta Josu Xabier Aranguren EAJkoa Goiena telebistan izango dira maiatzaren 23an, martitzenean, udal hauteskundeetako debatean. Goiatz Arana kazetariak gidatuko du, eta askotariko gaiak landuko dituzte. 21:30ean eta 23:30ean izango da.

## Izena eman daiteke Lapatzako aparkalekurako

Antzuolako Udalak 2023ko apirilaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen neurri bereziko ibilgailuak aparkatzeko Lapatzako aparkalekuaren erabilera arautzen duen ordenantza. Azaldu dutenez, behin-behinekoa da, eta zortzi plaza inguru daude. Bete beharreko baldintzei dagokienez, herrian erroldatuta egon beharko du erabiltzaileak, gutxienez eskaera aurkeztu baino bi urte lehenago; eta bertan bizi dela ere egiaztatuko da. Dagokion ibilgailu zerga ere herrian ordaindu beharko du, baina onuradun bakoitzak ibilgailu bakarra aparkatu ahalko du.

Hain zuzen ere, maiatzaren 25era arte dago izena emateko aukera, eguena, udaletxean, eta plaza banaketa zozketa bidez egingo da, 26an. Kontratuak urtebeteko epea du eta urteko tasa 60 euro da.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA
HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

# 227.000 euroko gerakin orokorra 2022an

Elgetako udalbatzak martitzenean egin zuen agintaldiko azken osoko bilkura. Ezohiko deialdia izan zen, eta, besteak beste, 2022ko likidazioa aurkezteko eta agintaldiko azken kreditu aldaketa onartzeko baliatu zuten udal ordezkariek

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Elgetako Udalak 227.000 euroko gerakinarekin itxi du 2022. urtea. Iraitz Lazkano alkateak azaldu du betetze-maila orokorra %89 dela –%65, inbertsioen kapituluan–. "Azken hamar urteotako likidaziorik altuena da. Garbi ikusten da kalte-ordainak eta zergen kobrantzak egonkortuta eta Foru Funtsetik jaso dugun diruarekin gastatzeko diru kopuru dezente bat izan dugula; lehenengo aldiz bi milioitik gorako obligazio onartuen langa gainditu dugu (...) Inbertsioen kapituluan betetze-maila txikiagoa izateak azalpen oso sinplea du; bi inbertsio potoloenak –San Roke kaleko irisgarritasun lanak eta *pump track* instalazioa– ezin izan dira 2022an exekutatu. San Roke kaleko irisgarritasun lanen proiektua lotuta dago Gipuzkoako Urak-ek egin behar dituen lanetara, eta lan horiek esleitu barik daude oraindik. Espero dugu 2023an zehar egitea".

*Pump track* guneari dagokionez, Lazkanok esan zuen espazioa prest dagoela, 600 metro koadroko espazio bat geratu dela –ez 400– eta proiektua idatzita dagoela. Udalbatzak aho batez onartu du lanak esleitzeko prozesua martxan jartzea.

EAJko ordezkari Irune Berasaluzek azpimarratu zuen inbertsioen exekuzio maila aurreko urtekoa baino txikiagoa dela. "Zergatiaren azalpenak eman dituzu, baina aipatu nahi dut San Roke kaleko proiektua agian gehiegitxo atzeratzen doan obra dela". Alkatea ados agertu zen, baina azpimarratu zuen obra hori beste erakunde baten lizitazioaren menpe dagoela.



Elgetako udalbatzako ordezkariak martitzeneko osoko bilkuran. L.Z.L.

### 227.000 EUROKO GERAKINETIK 201.000 EURO 2023KO AURREKONTURA BIDERATUKO DIRA

**201.000 euro gehiago 2023rako**

2022a 227.000 euroko gerakinarekin itxi ostean, Udal Gobernuak proposatu zuen gerakin horretako zati bat –201.000 euro– 2023ko aurrekontura gehitzea, kasu batzuetan partida berriak sortuz eta beste batzuetan daudenak handituz. Oposizioaren aldeko botoekin onartu zen kreditu aldaketa. Hala, handitzen diren edo sortzen diren partidak dira: *pump track* gunea egiteko partidari 58.371,52 euro gehitu zaizkio –guztira, 98.000 euro–, Haur Hezkuntzako jolastokia berritzeko 23.000 euro bideratu dira eta San Roke kaleko irisgarritasun lanetarako beste 20.000 euro gehitu dira –guztira, 70.000 euro–, baserritarren batzorderako beste 20.000 euro bideratu dira –guztira, 69.000 euro–, pilotalekuko teilatuan hainbat lan egiteko 15.000 euro bideratu dira, Udalaren jabetzakoak diren armak gauzaez bihurtzeko 12.000 euro, kultura eta euskara batzorderako 10.000 euro gehiago, jaietako batzorderako beste 10.000 euro, San Roke ermitako teila-tu-hodiak berritzeko 10.000 euro, *Elgeta memoria* aplikazioa berritzeko 10.000 euro, liburutegiko erdigunean dagoen kristalezko mahaia kentzeko 5.000 euro, Debagoiena Aukera Energetikoak eta Ikastetxeklik proiektuetarako 4.150 euro eta eskolako bestelako inbertsioetarako 4.000 euro. "Ados gaude kreditu aldaketa horrekin", esan zuen oposizioak. "Hainbat partidatan exekuzio maila txikia izan bada, beharrezkoa ikusten dugu orain partida horiek osatzea".

Agintaldiko azken osoko bilkuran beste bi erabaki ere hartu zituen udalbatzak: alde batetik, Udalak Goiena Komunikazio Taldearekin urtero sinatzen duen hitzarmena berritzea –9.875 euro–; eta, bestetik, Aramaioko mediku Aitor Montesek berriki salatutako egoera dela-eta historia klinikoa euskaraz idazteko eta medikuek euskaraz lan egiteko eskubidearen alde UEMAk aurkeztutako adierazpena onartzea. Oposizioak ere aldeko botoa eman zuen azken puntu horretan, eta zehaztu zuen Osakidetzak baduela Euskara Plana eta badiharduela hizkuntza eskubideen aldeko lanean.

## "Zahartzaro osasuntsuak behar ditugu, baina baita beteak ere"

**JAVIER YANGUAS** GERONTOLOGOA ETA PSIKOLOGOA

Xalbadorpek antolatuta, hitzaldia egin zuen atzo Elgetan

**L.Z.L.** ELGETA

La Caixa Fundazioaren Adinekoen Programako zuzendari zientifikoa da Yanguas (1963, Donostia), eta hainbat gako interesgarri eman zituen atzo.



Javier Yanguas. AGING BILBAO

**Ze alde daude oraingo zahartzaroen eta duela mendi erdikoen artean?**

Gure bizi-zikloak aldatzen ari dira; asko heltzen gara zahartzarora eta zahartzaro gero eta luzeagoak ditugu. Eta zahartzaroa, orain, ez da homogeneoa; etapa desberdinak daude. Lehenengoan ondo sentitzen gara, aktibo. Bigarrenean lehen hauskortasun-sintomak azaltzen dira. Eta, azkenik, mendekotasun-egoera agertzen da. Errealitate honek ikuspegi berria eskatzen du.

**Zertan oinarritzen da ikuspegi hori?**

Orain arte, zahartzaro aktibo baten aldeko diskurtsoak egin ditugu; ariketa fisikoa eta kognitiboa bultzatu dira. Gomendio ona da, baina uste dugu ez dela nahikoa ditugun erronka berriei erantzuteko. Ikuspegi berri honek bizitza betea bultzatzea du helburu. Zahartzaro osasuntsuak behar ditugu, baina baita beteak ere. Zahartzaroan ere zentzu bat eman behar diogu gure bizitzari. Gaur egun zer da zahar ona izatea? Jarduerak egitea, aktibo egotea. Galdetzen diegu jarduera horiek gustuko dituzten? Ez. Horregatik uste dugu komeni dela norberaren balioetan oinarritutako jarduerak egitea.

**Harreman sozialak lantzea garrantzitsua da.**

Argi dago pertsona baten zahartzaroa ez dela betea izango pertsona hori ez badago gizartean integratuta. Harreman sozialak lantzea garrantzitsua da, baina, betiere, norberaren bizi-proiektuan oinarrituta. Ikuspegi hori bultzatzeko ahaleginean ari gara.

## GORA ETA BEHERA



### 'La Belga' posizioa, oso kaltetuta

Euri eta ekaitz egun ugari izan dira jarraian, eta Intxortako ibilbide tematikoan hain esanguratsua den *La Belga* posizioan kalteak eragin ditu denboraleak. Argazkia eguaztenekoa da.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

M-28

# "Egiteko beste modu bat badagoela erakutsi dugu"

L.Z.L. ELGETA

Elgeta "euskaldun, feminista, justu eta ekologista" nahi dutela azpimarratu dute EH Bilduko ordezkariek, eta herritarren nahi eta beharrak erdigunean jarriko dituena. "Elgeta bizi eta bizigarria eraikitzen jarraitu nahi dugu. Elgeta kolorez bete nahi dugu, elgetarrekin eta elgetarrontzako, eta lan horri ekiteko prest gaude!", esan dute.

Aurreko bi agintaldietan egindako lana modu oso positiboan baloratzen dute. "Lantalde sendoa sustraitu dugu azken urteotan eta herriarekiko dugun maitasuna, ardura eta konpromisoa berretsi dugu. Urte eta egoera oso zailak bizi izan ditugu, baina ilusioz eta gogoz egoera horiei buelta ematen asmatu dugu, herritarren beharrak gure politiken erdigunean jarriz. Udalaren egoera ekonomiko larria saneatu eta bideratu dugu, jasotako zor eta kalte-ordainak kudeatuz eta ia osotasunean ordainduz. Kudeatzaile on eta ausartak garela erakutsi dugu. Badagoela egiteko beste modu bat, egiten asmatu dugula, eta bide horretan urratsak egiten jarraitzeko asmoz gaudela". Zerrenda berriko kideek datozen urteetarako dituzten asmo orokorren, printzipio programatikoen nahiz proposamen zehatzen berri emango dute gaur.


EH Bilduko zerrendako kideak Ibon Unzetabarrenetxea alkategaiarekin. EH BILDU

**Ekitaldi nagusia**

Elgetako EH Bilduk gaur egingo du hauteskunde-kanpainako ekitaldi nagusia. Mendizaleen plazan egingo dute, 19:00etan –eguraldi txarra bada, antzokian–. Agintaldiko lan lerro nagusien aurkezpena egiteko ekitaldia izango da. Agintaldi honetako EH Bilduko zinegotziek eta zerrenda berriko kideek hartuko dute parte. "Ekitaldia EH Bilduren proiektua herrira zabaltzeko bidea izatea nahi dugu. Herritarrengandik gertu egoteko bidea. Herritarren eta udalgintzaren arteko zubiak eraikitzeko urratsa".

M-28

# Talde jeltzaleak lan ildo nagusien berri eman du

L.Z.L. ELGETA

Elgetako jeltzaleek hurrengo agintaldiko lan lerro nagusien berri eman dute. Bost puntu nabarmendu dituzte: pertsonen ongizatea, ekonomiaren garapena, mantentze-lanak zein azpiegiturak, kultura eta kirola, eta lurralde oreka. Iker Laka alkategaiak azaldu du herritarrek azken urteotan egindako ekarpenak aintzat hartuta osatu dutela programa. "Gure helburua urrutitik datozen arazoei behingoz konponbidea ematea da, eta, modu berean, Elgetak etorkizuneko estrategia bat edukitzeko oinarriak ezartzea. EH Bilduk epe ertain eta luzea erabat ahaztuta dauzka, eta urte hauetan guztietan ez da gauza izan elgetarren beharrei eta ilusioei bide emateko", adierazi du. Jeltzaleek proposatzen dute, besteak beste, "errealitatea zein den ezagutzeko aldizkako azterlanak egitea, inbertsioak planifikatzea eta Udalaren kudeaketan ikuspegi estrategikoa lantzea, Elgeta dagoen geldialditik atera eta aurrera egin dezan".


Elgetako EAJko alkategai Iker Laka zerrenda kideekin Mendizaleen Plazan. EAJ

**Aldundiko ordezkariak herrian**

Bihar, 11:00etarako, Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko zuzendari Xabier Arrutiren eta Mendietako eta Natura inguruneko zuzendari Arantxa Ariztimuñoren bisita espero dute Elgetako jeltzaleek.

Martitzenean EAJren diputatugai nagusi Eider Mendoza izan zen herrian. Deba-Urola barrutiko EAJren hautagai Maria Eugenia Arrizabalagarekin batera egin zuen bisita, eta Mendizaleen plazan elkartu ziren Elgetako EAJren alkategai Iker Lakarekin eta beste hainbat alderdikiderekin.

Plazatik kantxarainoko ibilbidea egin zuten, eta Pagatza industrialderaino joan ziren. Elgetako jeltzaleek industrialdearen egoera "pobrearen" berri eman zioten Mendozari, eta errepideen egoeraren inguruan ere jardun zuten.

## OHARRAK

**Domekan mendi irteera Gorobel mendilerrora**
Kantsatzekek antolatuta, taldea 08:00etan abiatuko da herritik.

**Asentzio Eguna ospatuko dute domekan**
Auzotarrek meza antolatu dute (11:00); eta Udalak, Ubera auzo elkarteak eta Angiozar bailarako batzarrak, jan-edana (12:00).

**Erretiratuendako podologoa astelehenean**
Txanda hartzeko, deitu 669 99 81 65 zenbakira (Maite Elkoro).

**Ikastaroa KZgunean**
Maiatzaren 23tik 29ra, bi ikastaro: *Garraio publikoa mugikorrean* eta *Planifikatu zure bidaia*. Galdetu liburutegian.

## Gipuzkoako hiru txirlo bola txapelketa zapatuan Elgetan

Martxoan hasi zen Gipuzkoako 52. hiru txirlo bola joko txapelketa, eta bihar bederatzigarren tiraldia jokatuko da Elgetako bolatokian. Saioa 17:00etan hasiko da, eta parte hartzea irekia da. Udalak hainbat hobekuntza egin ditu bolatokian biharko tiraldirako; ola eta babesleku berriak jarri dituzte eta bolatokia margotu egin dute.

M-28

## Alkategaien arteko debatea eguenean Goiena telebistan

EH Bilduko alkategai Ibon Unzetabarrenetxea eta EAJko Iker Lete Goiena telebistan izango dira, udal hauteskundeetako debatean. Goiatz Arana kazetariak aurkeztuta, askotariko gaiak izango dituzte hizpide. Maiatzaren 25an izango da debatea ikusgai, 21:30ean eta 23:30ean.



# Aloña Mendiko eskubaloi saila egoera larrian dago

Ohar baten jakinarazi dute azken urteetan entrenatzaileak, laguntzaileak eta zuzendaritzako kideak aurkitzeko dituzten zailtasunek kolokan jartzen dutela eskubaloi sailaren etorkizuna denboraldi berriari begira. Atzo, bilera irekia egin zuten

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI

Aloña Mendiko eskubaloia sailak une gozoak eta gogoangarriak bizi izan ditu bere historian zehar. Herrian bertan ere zaletasun handia izan da betidanik eskubaloiarekiko, eta horren adibide da kiroldegia lepo betetzen dela asteburuero. Eskubaloi sailak ere oinarri sendoak izan ditu urte luzeetan zehar, baina orain, zoritxarrez, egoera bestelakoa da.

Ohar baten bitartez jakinarazi dute aipaturiko oinarri horiek zalantzan daudela, klubaren zuzendaritza karguetarako zein entrenatzaile eta laguntzaile lanetarako jendea aurkitzeko "zailtasun handiak" izaten ari direlako azken urteetan. Orain arte dena boluntario lana izan da, baina horrek "iraungitze-data" bat duela azpimarratu dute. Era berean, egoera latzari buelta eman ezean, Oñatiko eskubaloiaren etorkizuna "kolokan" dagoela diote; datorren denboraldiari begira, behintzat.



Aloña Mendiko Asier Ibabe jokalaria, lurrean. IMANOL SORIANO

**Gainezka egin dute**

Gaur egun, oso jende gutxik osatzen dute Aloña Mendiko eskubaloi sailaren zuzendaritza edo batzordea. Haien eginbeharra da denboraldian zehar, besteak beste, fitxen kudeaketa, entrenamendu orduak antolatu, asteburuko jardunaldia antolatu eta abar. Urte zailak izaten ari dira eta gainezka egin dutela aitortu du Ane Kortabarria batzordekideak: "Jende gutxi ari gara hori guztia antolatzen. Egiten ditugun lanak txikiak dira, baina, azkenean, gainditu egin gaitu egoerak". Eukene Urzelai zuzendaritzako kidea penaz da egoera ikusita: "Pena izango litzateke hainbeste urteren ostean honek jarraipenik ez izatea".

Egoera horretara iristearen arrazoiak topatzeko orduan, bat egiten dute Kortabarriak eta Urzelaik. Biek ala biek uste dute jendeak "beldurra" diola zuzendaritzako lanari, uste dutelako lan "asko" egin beharra dagoela; baina errealitatea bestelakoa dela diote, eta egin beharrekoak ez direla "inork" egin ezin dituenak.

Era berean, kontziente dira gaur egungo boluntarioen egoera eta duela urte batzuetakoa nabarmen aldatu dela. "Jendea ez dago prest bere ordu libreak kirol bati eskaintzeko", dio Kortabarriak. Urzelaik, berriz, agian "borondate falta" dagoela uste du.

**Ordainduta ere ez**

Entrenatzaileak aurkitzeko arazoak ere nabarmenak dira. Gehienak boluntario moduan aritzen dira, baina ordainduta ere ez dituzte aurkitzen. "Falta ditugun entrenatzaileak aurkitzeko, ordainduta ere ezin izaten dugu aurkitu", adierazi du Ane Kortabarriak. Irtenbidea entrenatzaile guztiei ordaintzea litzateke, baina horrek kuoten igoera ekarriko luke. Egun, Aloña Mendik Gipuzkoako kuota baxuena du, eta Urzelaik ez du uste hori denik irtenbide onena: "Bertako enpresen laguntzekin mantentzen ditugu kuotak, baina, entrenatzaileei ordaintzen hasiz gero, igo egin beharko dugu, eta ez dut uste jendeak hori nahiko lukeenik".

**Deialdia herritarrei**

Eskubaloi sailetik deialdia egin diete herritarrei egoerari buelta ematen saiatzeko. "Eskubaloiak jarraitzaile asko ditu, eta hor ditugu esperantzak jarrita", dio Kortabarriak. Urzelaik gaineratu du laguntzeko prest egongo direla: "Errelebo gaztea behar dugu eta gu ez gara betirako joango, laguntzeko prest gaude".

**EGOERA LARRIA DENEZ, BILERA EGIN DUTE, ARAZOARI KONPONBIDEA AURKITU NAHIAN**

## Astelehenean zabalduko dute eguneko arreta zerbitzua

Adinekoen gaitasun kognitibo eta fisikoak lantzeko gunea izango da, Lagun Lekun zein Pake Lekun

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Astelehenetik aurrera egongo da zabalik adinekoendako eguneko arreta zerbitzua. 65 urtetik gorako herritarrei dago zuzenduta eta arreta emango die menpekotasun arriskuan edo menpekotasun arina –fisikoa edo mentala– izan arren bizimodu autonomoa egiteko gai diren pertsonei, aldi batean edo modu iraunkorrean.

Autonomiari eusten, pertsona aktibo mantentzen, gaitasunak lantzen, mendekotasun egoerak ekiditen eta, aldi berean, harreman sareari eusten laguntzeko ariketak egingo dituzte. Eguneroko bizitza antolatzeko jarraibide edo laguntza ere emango dute, erabiltzaileen egoera eta beharretara egokituta.

Astelehenetan eta eguaztenean Lagun Lekun eskainiko dute eta martitzenetan eta eguenetan, Pake Lekun; bietan, 10:00etatik 12:00etara. Hiru eta hamabi pertsona arteko taldeak egingo dituzte, eta oraindik badago tokia. Izena emateko edo informazioa eskatzeko: *ongizatea@onati.eus* edo 943 03 77 00.

## Abesti berriarekin egingo dute Urgain Eguna zapatuan

**Goiena komunitatea**

Urgain / OÑATI

Hamar urte dira Oñatiko ikastetxe publikoak izendatzeko *Urgain* izena sortu zela, eta, urteurrenarekin bat, abesti berria kaleratu dute; ozen entzungo da zapatuko Urgain Egunean. Eskolako ikasle izandakoek eta egungo irakasleek hartu dute parte, besteak beste, abestiaren letra eta musika egiten. Guraso elkarteko ordezkariek egunaren aurkezpenean aurreratu bezala, "ondo pasatzeko eta eskola ingurunetik kanpo ere loturak estutzeko eguna" izango da. Aurten, bi nobedade dituzte: plazako, 13:00etan, giza dorreak, eta bazkalosteko bingoa.



NIRE USTEZ

**ESTEBAN IRUSTA MALLEA**

## Olapotoko basoa

Denok ez bagara ere, gehienok maite ditugu zuhaiztiak, nahiz eta bizi garenetik hurbil egon. Horietako bat da Olapotoko basoa. Eremu txikia izan arren, bertara joaten zarenean, baso handi baten sentitzen diren pertzepzio berberak edo antzekoak izateko aukera ematen du. Alde horretatik begiratuta, azkenaldian egin diren lanek ez dute lagundu. Martxoko *Kontzejupetik*-en Oñatiko naturazale talde batek bere desadostasuna azaldu zuen. Badirudi baso eta hiri-parkeen arteko ideiak nahastu egin zirela. Dena den, hau ez da prentsan, hedabideetan, agertutako kasu bakarra. Urrutira joan gabe, inguruko herrietan egin diren zuhaitz mozketa batzuk ere ez dira denen gustukoak izan. Beste aldetik, errepide askotan zuhaitz mozketa deigarriak egiten dituzte, dirudienez, ustezko arriskuak saihesteko. Garai baten, alderantziz, errepideen ertzetan eta baserri ondoan zuhaitzak landatzen zituzten, besteak beste, haize bortitzetatik eta udako bero itogarritik babesteko. Kontrako jarrera biek euren arrazoiak izango dituzte, baina badirudi orain zuhaitzak galtzaile izaten ari direla.

M-28



Oñatiko alderdi jeltzalearen ekitaldia zerrenda aurkezteko. I.B.

# Programan jasotakoa zabaldu dute jeltzaleek

Gazteendako etxebizitzak, kanpoko igerilekuak dituen kirol eremu berria eta Olaitturriko musika eskola aipatu dituzte proiektu estrategikoen artean. "Ondarearekiko arduratsua" izateko bizikidetza ordenantza ere jaso dute

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

"Herritarren proposamenak oinarri hartuta landutako programa" erakutsi du EAJ alderdiak datozen udal hauteskundeei begira. Aipatzen dituen artean daude aurretik ere jakinarazitakoak: gazteentzako etxebizitzak eraikitzea Garayn, musika-eskola berria Oñaitturrin eraikitzea eta kanpoko igerilekuak egitea Korriuenako kirolgune berrian beste hainbat kirol-ekipamendurekin batera. Horiez gain, beste hauek era iragarri ditu: tokiko ekonomia sustatzea, trantsizio energetikoaren eta energia berriztagarrien aldeko apustuan aurrera egitea, Oñatiko garraio publikoa indartzea eta hobetzea eta bizikidetza ordenantza egitea, "Oñati herri ondarearekiko arduratsua den herri bilakatzeko, kartel zein pintadarik gabe".

**Proiektu estrategikoak**

Alderdiak prentsa ohar bidez bidali duen programan, Amaia Erostarbe alkategai jeltzaleak dio "Oñati bizitzeko herririk onena" izatea nahi dutela, "etorkizuna izango duen herria, pertsonak erdigunean jarriko dituena eta oñatiarrei bizi-kalitate ona eskainiko diena". Eta hori lortzeko dira programan jasotzen dituzten proposamenak.

Garayko gazteendako etxebizitzak tasatuak eta babes ofizialekoak izango direla dio, % 75ean, prezio mugatuekin eta baita alokairu-erregimenean ere; gaineratu du hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko eta alokairuan jartzeko laguntzak gehituko dituztela. Olaitturriko musika eskolaren barruan ikusten ditu txistulari taldea, banda eta Ganbara Faktoria ere, eta kirol eremu berria da hirugarren proiektu estrategikoa. Oñati eta Elorregi arteko autobus zerbitzua indartu, "herri garbia" eduki eta trantzisio energitekoan "aurrera" egin gura dutela ere jasotzen du jeltzaleen programak. Guztia "herritarrekin batera" egin gura dutela gaineratu dute jeltzaleek.

M-28

## Egindako bidetik "jarraitzeko ilusioz" daudela dio EH Bilduk

Agintaldiaren balorazioa egin du Udal Gobernuak, eta proiektuak bai, baina "egiteko era" ere azpimarratu du

**O.E.** OÑATI

Azken lau urte hauetan Udal Gobernuak egindako lana nabarmendu du EH Bilduk, eta egindakoak ez ezik "egiteko modua" ere aipatu du, horri garrantzia eman diotela esanez. "Zer egin baino gehiago, zergatik egiten den da garrantzitsua. Eredua eta proiektua. Eta EH Bilduk argi ditu biak. Gobernatzeko eredu propioa daukagu, benetako parte hartzean oinarritzen dena, berdinetik berdinera diharduena, herritarrekin, herritarrentzat, denontzako, lanean dabilena. Ez gara hitzetara mugatzen. Guretzat, *partaidetza* ez da hitz soil bat, gobernantzarako eredu bat baizik, eta horregatik jardun dugu eta dihardugu egunerokoan herrikideekin batera lanean", adierazi du Izaro Elorzak ohar bidez. Bide horretan jarraitzeko "ilusioz" daudela gaineratu du.

Onaro, Energia Plana, Natur Eskolaren birgaitzea, kiroldegiko lanak eta Emakumeen Etxearen sorrera aipatu ditu proiektuen artean, baina denak izan direla garrantzitsuak: "Garrantzitsuak izan dira Esperientzien Gela, herriko jolasguneen diagnostikoa, herri hezitzaile izan gaitezen abiaraziriko proiektuak, Nagusien Mahaia, adinekoen zaintzan diharduten pertsonentzako formakuntzak, landa eremuko auzoentzako dirulaguntzak, gazteen ahalduntzean sakontzeko ekimenak, partaidetza araudia, kultur ekintzen sustapenerako egitasmoak, herriko komertzio eta zerbitzuak bultzatzeko bonu sistema eta abar".

## Aparkalekuak, erabilgarri

Erabilgarri daude Errekaldeko 29, 31 eta 33. zenbakidun eraikinen atzealdean egokitutako hamar aparkalekuak. Semaforoa ere jarri dute, aparkatzeko lekurik dagoen edo ez jakiteko. Instalatu den sistema adimendun horretan dago berritasuna: aparkalekuak libre edo okupatuta dauden detektatzen duten sentsoreak jarri dituzte, eta haiei lotutako semaforoa ere bai.



BERBIA

## Ikasleen energia plana

Energia landu dute aurten ikasleek Eskola Agenda 2030aren baitan, eta lanaren berri eman eta proposamenak egin dituzte Udalean. Eskaeren artean: herritarrei eguzki panelak jartzeko erraztasunak eta energia aurrezteko informazioa ematea eta faroletan sentsoreak jartzea. Hartutako konpromisoan artean, argi naturala dagoenean argia itzalita mantentzea.



BERBIA

# Bi erraldoi ertain egingo dituzte jai nagusietarako

Erraldoien konpartsa txikia sortzea da asmoa, eta aste honetan bilera egin dute gaztelekuan hango erabiltzaile gaztetxoekin, zer-nolako erraldoiak eduki gurako lituzketen galdetzeko. San Migel eta Errosario jaietan estreinatuko dituzte

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Auzoko jaiekin batera hasi da erraldoien eta txorimaloen sasoia. Azken urteetan piztu egin da figura horiekiko zaletasuna haurren artean; uztailean egin zuten erakusketak arrakasta handia izan zuen. Oñatzek ateratzen dituenak ez ezik, etxean egindakoak edo erositakoak ere atera izan dituzte umeek noiznahi, eta eurekin jolastu kalean. Erraldoien konpartsa txikia sortzeko besteko zaletasun edo gogorik badagoen galdezka ibili dira udal ordezkariak gaztetxoen artean, eta, ideia ona iruditxuta, martxan jarri dute konpartsa txiki hori sortzeko prozesua.



Martitzen arratsaldean gaztelekuan egindako bileran. MIREN ARREGI

Aste honetan egin dute bilera, gaztelekuan, hango hezitzaileekin eta hango erabiltzaileekin; Lehen Hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailetakoak gehienak. Konpartsa egiteko asmotik abiatuta, zer-nolako erraldoiak nahi dituzten galdetu diete gaztetxoei, eta ideiak batzen ibili ziren martitzen arratsaldean egindako bileran. Gaztelekuko beste erabiltzaileekin ere partekatuko dituzte ideiak.

**Bi erraldoi ertain**

Umeek eurek eramateko moduko erraldoiak egitea eta konpartsa horren atzean egongo den taldea sortzea da ideia. Herriko jai nagusietan aterako lirateke erraldoi berriak; bi. Martitzenean gaztelekuan egindako bileran erraldoi horiek zeren edo noren antza, nor irudikatu behar duten adosten ibili ziren, proposamenak jasoz. Erabakia hartutakoan, egiten hasiko dira. Xabier Mendizabalek egingo ditu, lagun batekin batera: "Erraldoi arruntak egiteko behar den prozedura bera jarraituko dugu hauekin, baina umeei egokituta. Bidasoako konpartsakoak hartzen dira erreferentzia moduan erraldoi ertainak egiteko, eta horrela egingo dugu. Altueran 2,30 metro neurtuko duten bi erraldoi izango dira. Gorputza, besoak eta aurpegia beira funtzarekin egingo ditugu, ziurrenik, eta egitura, berriz, egurrarekin. Hori da ideia, behintzat. Jantzi ere egin beharko ditugu, eta, horretarako, oihalak eta jostunak beharko ditugu". Erraldoiak eraberritzen ibili berri da Xabi Mendizabal zaharberritzaile oñatiarra, eta han hartutako esperientzia proiektu horretarako lagungarria izango zaiola aitortu du.

**Lau izango dira, guztira**

Aurtengo San Migel eta Errosario jaietan aterako dituzte, beraz, umeek eurek eramateko moduko bi erraldoi ertainak; orduan izango da estreinaldia. Asmoa, baina, lau egitekoa da; aurrerago egingo dute beste bikotea. Hori da Udalak aurreikusten duena; 8.000 euroko aurrekontua izango duen egitasmoa izango da. Erraldoiak egitetik harago, baina, Udalaren nahia da talde bat ere sortzea haien erabileraz arduratzeko.

## Idazketa tailerreko herritarrek egindako liburua salgai dago

Liburutegiak antolatutako eta Joxe Mari Iturraldek zuzendutako lehen idazketa tailerreko partaideek ipuin-liburu bat argitaratu dute eta horren aurkezpena egingo dute datorren astean, eguenean, hilak 25, 19:00etan, zinema-aretoan.

Idazteko teknikak eta testu motak ikasi dituzte, esaterako; hala, hain zuzen, zazpi herritarrek hiru urtez idazketa tailerrean eta ikasitakoaren eta landutakoaren emaitza da liburua. Prosa eta poesia lanak, haikuak, jasotzen ditu liburuak, eta dagoeneko salgai dago herriko hiru liburu dendetan: Hirukarren, Ibarrondon eta Haritzan.

Iturralderen esanetan, "kalitatezko materiala" zegoelako atera dute liburua. Liburutegiko arduraduna, bestalde, oso pozik dago, "zikloa oso ondo borobildu" dutela iritzita.

## Zinegoak jaialdiko film laburrak proiektatuko dituzte

Azken Zinegoak jaialdian –Bilboko LGTBIQ+ zinema eta arte eszenikoen jaialdia– ikusi ahal izan diren film laburrak proiektatuko dituzte datorren astean; eguaztenean, 19:00etan. Jatorrizko bertsioan eta euskarazko eta gaztelaniazko azpitituluekin emango dira filmak. Jaialdiak ekainean ospatuko du 20. urteurrena.

## Ohiko egitarauarekin hasiko dituzte gaur Errekaldeko jaiak

Garagardo dastatzea eta goitibeheren jaitsiera egongo dira aurten ere, besteak beste, gaur hasiko diren Errekaldeko jaietan, orientazio proba eta auzo bazkariaz gain. Musikari dagokionez, Letagin, Rodeo, Herdoil eta Sua taldeek joko dute gaur; eta bihar, Malko, Motz, Fresa Morango eta Muxutruk taldeak izango dira.

DEBAGOIENEKO
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK
BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81
BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net
RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK
BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

AHOLKULARITZAK
ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es
ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK
URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.





# INFORMAZIO OSOA GOIENAN

**ALKATEGAIEKIN DEBATEAK**

**GOIATZ ARANAK ETA TXOMIN MADINAK AURKEZTUTAKO SAIOAK**

21:30EAN ETA 23:30EAN

MAIATZAK 22, **ESKORIATZA**

MAIATZAK 23, **ANTZUOLA**

MAIATZAK 24, **ARAMAIO**

MAIATZAK 25, **ELGETA**

DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.

# Domekan 'genuinoak' izango dira Ibarran

**FUTBOLA** Genuine lagunarteko txapelketa adimen urritasuna duten jokalariei zuzendutakoa da, eta etzi, Athleticeko, Realeko, Alavesko eta Eibarko jokalariak batuko dira. Atzegiko lagunek, berriz, hutsarteetan joko inklusiboak egingo dituzte

**Xabier Urzelai** ARETXABALETA
UDAk antolatuta, Genuine lagunarteko txapelketa jokatuko dute Ibarran domekan. Berez, Genuine Liga adimen urritasuna duten jokalariei zuzendutakoa da, baina, ligako partiduetatik harago, beste zenbait topaketa izaten dituzte denboraldian zehar, eta domekakoa da horietako bat. Hain zuzen, etzi, Euskal Herriko taldeak batuko dira Ibarran: Reala, Athletic, Alaves eta Eibar.


Iazko topaketan, jokalariak agurtzen. GOIENA

**Partiduak goizean izango dira**
Genuine topaketa goizeko hamarretan hasiko dute, eta, hasteko, lau taldeak aurkeztuko dituzte. Jarraian, 10:30 inguruan, Aratz elkarteko kideek harrera egingo diete lau talde gonbidatuei, eta ondoren hasiko dira norgehiagokak, 11:00etatik 12:30era. Hala, hutsarteetan, Aratzeko lagunek antolatuta joko inklusiboak egingo dituzte. "Iaz, koronabirusaren beldur ginelako, ez genuen ekimenean esku hartu, baina aurten bai, animatu gara. Bada, partiduak ez dauden uneetan saiatuko gara denok parte hartzeko moduko jokoak egiten, helburu nagusia pertsonen arteko harremanak sustatzea delako", adierazi zuen Jokin Antxiak aurkezpen ekitaldian.

**ATHLETICEKO, ALAVESKO, EIBARKO ETA REALEKO ORDEZKARIAK EGONGO DIRA ETZI**

Realeko jokalari Leire Esnal zumaiarrak adierazi zuen gogotsu dagoela domekako lagunartekoak jokatzeko: "Ligako partiduek lehia kutsua izaten dute, baina halako topaketetan lagunartean ibiltzen gara".

Eta Real Sociedad Fundazioko ordezkari Ainara Mugak nabarmendu zuen halako torneo bat etxean bertan jokatu ahal izatea gauza handia dela eurendako, bestela kanpora joan behar izaten dutelako, eta esker berbak izan zituen UDArendako, ekitaldia antolatzearren. Azkenik, topaketaren babesle den Fagor Automationeko presidente Andoni Larrañagak nabarmendu zuen horrelako ekimenek gizartean sortzen duten inpaktu positiboarekin bat egiten dutela kooperatiban.

## Datorren urtera begira daude jada

Torneoaren aurkezpenean batu dira Realeko ordezkari Ainara Muga, UDAko presidente Agurtzane Elkoro, Leire Esnal jokalaria, Aratzeko ordezkari Jokin Antxia eta Fagor Automationeko Andoni Larrañaga. Elkorok adierazi zuen datorren urtean adimen urritasunari eta kirolari buruzko astebeteko ekintza-sorta antolatu nahi dutela.


Genuine torneoko eragileak, astelehenean Ibarran. M.Z.


Andoni Mujika, Japoniako selekzioko ordezkariarekin, Munduko Txapelketan. J. IÑARRA

# Japoniarren legea gailendu da, baina haien errespetua irabazita

**BORROKA ARTEAK** Munduko txapeldunorde izan den borrokalari japoniarraren kontra galdu zuen Bergarakoak

**X.U.** BERGARA
Nahi baino azkarrago amaitu da Andoni Mujikak Munduko Kudo Txapelketan egin duen bidea, baina, zalantza barik, arrastoa utziko dion esperientzia izan da. Hain zuzen, nahi ez zuten hura gertatu zen txapelketako zozketan; alegia, txapelketa antolatzen zuen Japoniako selekzioa egokitu zitzaien lehen kanporaketan. "Horixe zen nahi ez genuena; hau da, lehen fasean japoniarren kontra borrokatu behar izatea", adierazi du Bergarako entrenatzaile Josean Iñarrak.

Hain zuzen, Iñarrak egundoko ezustekoa eman zion Andoni Mujikari; izan ere, hark ez zuen uste Iñarra Japoniara joatekoa zenik txapelketa ikustera, baina Iñarrak Mujikaren ondoan egon nahi izan zuen halako hitzordu garrantzitsu baten aurrean, eta Mujika selekzioarekin Japoniara abiatu eta egun gutxira joan zen Iñarra ere hara.

Borrokaldiari dagokionez, nahiz eta txapelketako faboritoetako bat aurrean izan, Bergarakoa ez zen kikildu, eta, nahiz eta galdu, lehia estua izan zuten: "Epaile errusiar baten erabakiak dezente baldintzatu zuen Jokinen borrokaldia. Kontrara, Japoniako entrenatzaileek zoriondu egin gintuzten borrokaldian erakutsitako maila onarengatik".

**"Esperientzia ikaragarria"**
Mujikaren kontrario izan zena finalerako sailkatu zen, eta han, Kubako borrokalari batek hartu zuen mendean: "Zozketan ez dugu zorterik izan, baina esperientzia ikaragarria izan da, eta, jarraian, Europako Txapelketa prestatzen hasiko gara. Eta ea hurrengo Munduko Txapelketara borrokalari gehiago eramaten ditugun".

## PILOTA Amezketan erabakiko dute kanporaketa

Joan den astean, Zubikoan, Herri Arteko Txapelketako joanekoan pilotari oñatiarrek 1-2 galdu zuten Amezketakoen kontra. Ez da emaitza ona, baina seniorrek irabazitako partiduari esker kanporaketa zabalik dago oraindik. Gaur (19:30), Amezketan jokatuko dute kanporaketa erabakita utziko duen itzuliko norgehiagoka.


Egubakoitzeko kanporaketan. GOIENA

# "Iaz, praka motzetan izan ginen Aizkorrin; aurten..."

**JOSE MARI ANDUAGA 'ANDU'** AIZKORRI BIZIRIK TALDEKO KIDEA

Domekan, Zegama-Aizkorri lasterketa antolatzen laguntzen ibili zen bergarararra; dio gailurreria kentzea erabaki ona izan zela: "Han goian baldintza gogorrak zeuden"

**Xabier Urzelai Atxa** BERGARA

Jose Mari Anduaga (Bergara, 1974) Aizkorri Bizirik taldeko kideetako bat da, eta Zegama-Aizkorri lasterketan taldeko kideak garbiketa lanez arduratzen dira, bereziki, nahiz eta tontorrean egiten dituzten ordu guztietan denetariko lanak egin behar izaten dituzten. Aitortu duenez, aurten gorriak ikusi dituzte: "Eta eskerrak, guk aterpea geneukalako tarteka sartu eta sutan berotzeko. Beste batzuek ez dute zorte bera izan".

**Lasterkariek astelehen gogorra izango zuten. Eta zuek?**

Katarroak eta halakoak ekarri ditugu tontorretik, baina ondo.

**Zelan aldatzen den halako lasterketa bat eguraldi onarekin edo domekan izan zenutenarekin...**

Pentsa... Iaz, praka motzetan egon nintzen. Aurten, arropa askorekin joan gara, eta hala ere, ez da nahikoa izan. Domekan 07:00etarako tontorrean ginen, eta jaitsi ginenerako 15:00ak izango ziren. Oso eguraldi txarra egin zuen, haizea, euria eta hotza. Eta, aipatu moduan, guk Aizkorriko aterpea geneukan. Aratzeko tontorrean egon zirenek ez zuten zorte bera izan, eta han egon beharra zeukaten bai edo bai, denborak hartzeko puntuetako bat han zegoen eta... Ez zen mendian egoteko egun batere gozoa izan, ez.



Jose Mari Anduaga *Andu*. GOIENA

**Arropa aldetik, korrikalariak beste urte batzuetan baino hobeto joan dira?**

Esango nuke baietz, nahiz eta denetarik ikusi dugun. Astean antolatzaileen partetik mezua jaso zuten denek, mendian baldintza gogorrak izango zituztela esanez. Eta bai, hipotermia kasuak egon ziren. Korrikalari italiar bat aterpean sartu eta sutondoan geratu zen, erabat izoztuta. Gurekin batera jaitsi genuen Urbiara gero. Baina, orokorrean, jendea prestatuta joan zela esango nuke.

**Ikusleren bat ere larritu zen goian...**

Han ere denetarikoak ikusi genituen, goiza han goian pasatzeko ondo prestatuta joan zirenak, eta baita praka motzetan eta zira batekin korrikalariak animatzera igo zirenak ere. Eta gero, larri... Normalean, Aizkorrira igo zirenak lagunen bat animatzera joan ziren, eta hura pasatakoan beherako bidea hartzen zuten. Azken korrikalaria pasa zenerako tontorrean ez ginen hogei lagun egongo.

**Aizkorriko gailurreria kentzea erabaki ona izan zen?**

Zalantza barik. Bagenekien antolatzaileek esku artean zuten aukeretako bat zela, eta gu tontorrean ginela hartu zuten erabakia. Erabaki zuzena izan zen, zalantza barik.

**Gorputz txarra utzi zizuen han goian bi emakumezkok izandako istripuak.**

Bai, oso txarra. Hain justu, istripua izan baino ordu erdi lehenago, aterpe barruan izan ziren gurekin. Eta ez dago garbi zer gertatu zitzaien, jaisten hasi zirenean korrikalariei traba ez egitearren edo... Batek irrist egin eta bestea aurrean eraman... Auskalo. Kontua da istripu oso larria izan zela; 14 metro egongo ziren han.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

GIZ. OHOR. ERREG.

**Bergara-Eibar**
Dom. 12:00. Agorrosin.
**Mutriku-Mondra**
Dom. 12:00. San Miguel.
**Aloña Mendi-Zarautz**
Dom. 12:00. Azkoagain.
**Elgoibar-Aretxabaleta**
Dom. 16:30. Mintxeta.

EMAK. OHOR. ERREG.

**Amaikak Bat-Leintz Arizm.**
Zap. 09:45. San Miguel.
**Urnieta-Bergara**
Dom. 11:30. Urnieta.

EUSKAL LIGA; GAZTEAK

**Bergara-Aretxabaleta**
Dom. 16:00. Agorrosin.

GORENGOEN MAILA

**Urki-Bergara B**
Egun. 19:30. Eibar.
**Mondra-Antzuola**
Zap. 18:30. Mojategi.
**Aretxabaleta-Elgoibar**
Zap. 18:30. Ibarra.

ERREGIONALA, KOPA

**Gure Txo.-Aloña Mendi**
Gaur. 19:45. Bera Bidasoa.
**Atotxa-Aretx. UDA**
Dom. 15:30. Herrera.

OHOREZKO GAZTEAK

**Aloña Mendi-Danena**
Zap. 16:00. Azkoagain.
**Beasain-Mondra**
Zap. 16:00. Loinaz..

GAZTEAK GORENGOA

**Zestoa-Aretxabaleta**
Zap. 12:00. Iraeta.
**Idiazabal-Aloña Mendi**
Zap. 16:00. Aizkorreta..
**Zumaiako-Bergara**
Zap. 16:00. Aita Mari.

**ARETO FUTBOLA**

MAILA NAZIONALA

**Eskoriatza-Leioa**
Zap. 18:00. Manuel M.
**Mondrate-Jarrilleros**
Zap. 18:00. Musakola.

**ESKUBALOIA**

SENIOR MAILA, KOPA

**Soraluce BKE**
(Atsedena).
**Fagor Industrial-Urola**
Zap. 18:00. Zubikoa.

GAZTE GIZONEZKOAK

**Lana Aloña-K. Legazpi**
Dom. 12:00. Zubikoa.

KADETE GIZON.

**Bergara-Aloña Mendi**
Zap. 15:30. Bergara.

KADETE EMAK.

**Dikar Berg.-Legazpi**
Zap. 13:00. Labegara.
**Astigar.-Ingou Arrasa.**
Zap. 13:00. Eibar.
**Lana Aloña-Elgoibar**
Zap. 17:30. Zubikoa.

**ERRUGBIA**

JARDUNALDI BEREZIA

**Zapatuan**
Bartzelonako Quimic Equip Rugby-ko 16 urtez azpiko gizonezko eta emakumezko taldeak izago dira Mojategin, eta Eibarkoak ere gonbidatu dituzte. 10:00etan hasiko dituzte lagunartekoak, eta ondoren bazkaria egingo dute.

**PILOTA**

HERRI ARTEKOA

**Amezketa-Oñati.**
Egubakoitza. 19:30. Amezketa.

**FUTBOL EGOKITUA**

GENUINE TORNEOA

**Domekan.**
10:00etan hasita Ibarran: Athletic, Reala, Alaves eta Eibar taldeak.

## MENDIA Aitor Ajuria, Skyrunner World Series-eko finalera

Frantziako Alpeetan egindako Skyrace Des Matheysins-en hamar onenen artean sailkatu delako lortu du korrikalari gatzagarrak kopako finalerako txartela. Ajuriak atzetik aurrerako bidea egin zuen, eta 14. postutik zazpigarreneraino egin zuen salto (2:34:34). Finala urriaren 29an izango da, Italiako Limone Xtreme lasterketan.



Irati Zubizarreta eta Aitor Ajuria. EMF




Ines Osinaga, eguaztenean, Musika Bulegoa saria eskuetan duela. OLGA RUIZ / MUSIKA BULEGOA


Neomakeko kideak, saria hartu berri. OLGA RUIZ / MUSIKA BULEGOA

# Neomak eta Ines Osinaga, sarituta

Euskal musikagintzako hamar proiektu saritu ditu Euskal Herriko Musika Bulegoak Elkarteak; horien artean daude Arrasateko kideak dituen Neomak zazpikotearen estreinako diskoa eta Ines Osinagaren 'Itsasoa da bide bakarra' izeneko disko-liburua

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**
ARRASATE

Euskal Herriko askotariko artistek eta taldeek iaz sortu zituzten 120 musika-proiektu eta proposamen aztertu ondoren, hamar proiektu saritu zituen Euskal Herriko Musika Bulegoak Elkarteak (EHMBE) martitzenean, Errenteriako Lekuona Fabrikan egindako ekitaldian: Debagoienarekin lotura estua duten Neomak taldeaz eta Ines Osinagaz gainera, Merina Gris, Su Ta Gar, MICE, Teresa Catalan, Enrike Solinis eta Elena Setien. Haiez gainera, Ohorezko Sari Berezia jaso zuen Kepa Junkerak, "hunkituta"; hain zuzen, "euskal kultura eta euskara nazioartera modu berritzailean eramateagatik". Eta Etxepare Institutuaren eskutik Oreka TX taldeak aitortza jaso zuen euskal musika mugaz kanpo, nazioartera, zabaltzeko egindako lanagatik. "Euskal musikaren aniztasunaren isla izan zen gala; genero, erritmo eta doinu mota ugariren ordezkari dira-eta aurtengo saridunak. Emakumeen presentzia ere azpimarratzekoa da", azaldu du, "pozik", EHMBEko ordezkari Amaia Ispizuak.

### Ines Osinaga, kantuan

Arrasateko eskarmentu handiko musikaria izan zen taularen gainera igo zen lehenengo artista. "Ondo etorri, duda barik, 2.000 euroko laguntza, dagoeneko inbertituta dudana, eta baita Fernando Mikelarenak egindako garaikur pisutsua ere, baina iruditzen zait sariak baduela berarekin, batez ere, aitortza bat; nire kasuan, *Itsasoa da bide bakarra* lanari. Aitortza bat pertsonal kolektiboari eta saretzeari; izan ere, martitzeneko hitzartzean esan nuen moduan, lan hau parte hartu dugun ahizpa guztiena da. Eta, batez ere, bitan banatu nuen nire garaikur pisutsua: bat Loreari eman diot, nire globoa helioz betetzen didanari; eta bestea, Mikeli, helioz betetako globo hau soka batetik lurrera eusten duenari. Egia da aurten emakume-sortzaile asko saritu direla, eta poztekoa da, baina ezin ahaztu oraindik ere langa hor dagoela; musika-industria parekidea izateko bidea luzea da. Trikitiak protagonismo berezia izateak ere asko pozten nau; Neomakekoak izugarri maite ditut, miresmen osoa dut eurekiko, *Neomitak* zirenetik *Neomatzar* bihurtuta orain, eta polita izan zen Kepa Junkerari egindako aitortza ere", azaldu du Osinagak Arrasate Irratian.

**HAMAR SARI BANATU ZITUZTEN; HORIETATIK BI ARRASATEKO MUSIKARIEK JASO ZITUZTEN**

Saria eskertzeko, kantuan egin zuen Osinagak galan, mikrofonoa eskuan. *Loop*-aren laguntzarekin, saritutako disko-liburuan dagoen *Dena aldatzen da* kantuaren bertsio ederra egin zuen.

### Neomak-ekoak ere, "harro"

Ekitaldiaren amaieran igo ziren Neomak taldekoak taularen gainera; haien artean, Leire Etxezarreta eta Irati Gutierrez arrasatearrak. "Eneritz Aulestiak esan zuen moduan, harro gaude gure estreinako lanaren aitortzarengatik; are gehiago, saritutako ia musikari guztiak ibilbide luzekoak direla kontuan hartuta. 10 urterekin hasi ginen trikitia eta panderoa astintzen; garai hartan ez genuen amestu ere egingo sariarekin. Trikitiaren hiru belaunaldi batu ginen galan; zalantza barik, ohore ikaragarria guretako! Taldekideontzako hunkigarria izan zen Junkeraren aurrean saria jasotzea, hura izan zen-eta Neomak proiektuaren aurrekari izan zen Sorginak egitasmoan batu gintuena. Gugatik apustu egin duten Airaka Musikari eta bidelagun izan ditugun guztiei eskaini genien saria", kontatu du Leire Etxezarretak asteon Arrasate Irratian.

## Osinagak, MIN sarietan aipamena

Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkartearen gala "asimilatzeko denbora nahiko barik", eguazten goizean Mallorcarako hegazkina hartu zuen Ines Osinagak, *Itsasoa da bide bakarra* proiektuan parte hartu duten kideekin batera, UFI (Batasun Fonografiko Independentea) erakundeak banatzen dituen MIN sarien ekitaldira joateko, Diseinu Onenaren Sarirako izendapena zuten eta.

Biznaga taldearen *Bremen no existe* lanagatik Manuel Donadak jaso bazuen ere saria, Arrasateko musikaria "pozik" dago, jasotako aipamena saritzat hartuta. "Sekulako aitortza da MINek egindako aitortza hori, proiektu honetan berebiziko garrantzia izan duelako objektuak. Hiru minutuko kantuak sarean, *random* eran, entzuteko joera dagoen garaian, artearen alde egin dugu guk, eta eskertzekoa da musika industriak ahalegina aintzat hartzea".

# Antzerkia protagonista kartzela zaharrean

Teatro Pezkao taldeak bi antzerki emanaldi eskainiko ditu Bergarako gaztetxean gaur, egubakoitza, eta Antzuolako gaztetxean bihar, eta antzerki-inprobisazio tailerra egingo dute bihar kartzela zaharrean; ez da aldez aurretik izenik eman behar

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**
BERGARA

Urteetako harremana du Zaragozako Teatro Pezkao taldeak Bergarako gaztetxearekin; horren erakusle da asteburuan –aurten zortzigarrenez– egingo duten antzerki-asteburua. "Sintonia ona eta laguntasuna sortu da gure artean. Elkarlanean sortutako ekimena, eta, oraingoan, Antzuolako gaztetxearekin batera egingo dugu", dio kartzela zaharrean dagoen Angiolilllo liburutegiko Aser Polvorosak.



Bergarako eta Antzuolako gaztetxean izango den Teatro Pezkao taldea. T.P.

**Bi antzezlan eskainiko dituzte**

Ohi duten moduan, Zaragozako konpainiak antzezlan bat baino gehiago prestatu ditu Debagoienean eskaintzeko. *Somos los payasos* izenekoa eskainiko dute gaur, egubakoitza, 22:30ean, Bergarako gaztetxean; sarrerak leihatilan izango dira, sei eurotan. "Inprobisazio ikuskizuna da eta publikoak erabakiko du antzezlaneko protagonistak nora doazen eta zer aurkituko duten. Leku jakin batean hasiko gara eta denboran eta espazioan mugituko gara gero, ager daitezkeen aukera eta pertsonaiekin. Animazio pailazoei egindako omenaldia da lan hori".

Komedia eta umore beltza generoak batzen dituzte, berriz, bihar Antzuolako gaztetxean 22:30ean eskainiko duten *De ratas y canguros* izenekoan. "Eszena komikoen aukeraketa arduratsua eskaintzen digute ezaugarri duten estiloan. Giza izaeraren miseriei aurre egiten dieten pertsonaiak dira lan horretan protagonista; besteak beste, boxeolari ez oso prestatuak, elkar topatzen duten lagunak, organo trafikatzailea eta apokalipsi-zonbi bat. Sarrerak egunean bertan sei eurotan izango dira eskuragarri Antzuolako gaztetxeko leihatilan".

**Inprobisazio-tailerra bihar**

Antzerkigintzan "asko erabiltzen den" *harold* teknikari buruzko ikastaroa izango da bihar, 10:00etatik 14:00etara, Bergarako gaztetxean. "70eko hamarkadan Chicagon sortu zuten metodoa da; komikoentzako, erreferentziazkoa. Ikastaro dinamikoa, dibertigarria eta sortzailea izango da eta ondo pasatzea da helburu nagusia. Esketxak egiteko teknikak ere jorratuko ditugu. Hamabost euro da, eta ez dago aldez aurretik izenik eman beharrik".

## Ruper Ordorikaren kantagintza aztergai Udako Ikastaroetan

Fermin Etxegoien kazetari eta idazleak gidatuta, ekainaren 30ean izango da, EHUren Bilboko egoitzan

**A. A. J.** OÑATI

Euskal kantagintzaren gainean "ohi ez moduko azterketa musikologokoa" eskaintzea da *Euskal kantagintza modernoa musikologiatik aztertua* izeneko ikastaro teoriko eta praktikoaren helburua. 1960an hasi eta 2020ra bitarteko musika-proiektuak aztertuko dituzte, Ruper Ordorikari tarte berezia eginda, ikastaroaren gidari eta Ordorikaren lagun den Etxegoienek *Totelak* eleberrian garatutako Oñatiko musikariari buruzko fikziozko katedraren ildotik.

**Izen-ematea zabalik**

Egun bakarreko ikastaroa da eta publiko orokorrari zein irakasleei eta arloko profesionalei dago bideratuta. *Uik.eus* atarian dago izena emateko aukera, ekainaren 30era bitartean, eta bi prezio daude: Gazte Tarifa, 33 euro; eta Orokorra, 47 euro. Edozelan ere, badago izena merkeago emateko aukera ere.

Goienakideen txokoa
MAIATZEKO SARIAK
Errigorako saskia
Parte hartzeko sariaren izena: Errigora
ERRIGORA
Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ oñatiko kobak
Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea
www.harremandenda.org
PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Realaren eta Almeriaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean
GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA
Reala-Almeria norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek:
Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partida maiatzaren 23an, 19:30ean izango da.
Parte hartzeko azken eguna: maiatzaren 21a
Irabazi bi lagunendako sarrerak
Arrasateko Udalari esker
'Aireportuan' haur antzerkirako sarrerak ditugu.
Arrasate | Amaia Antzokia | Maiatzak 27 | 17:00
PARTE HARTZEKO:
E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "Aireportuan" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Irabazi bi lagunendako otordua
TARTUFO JATETXEARI ESKER
Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: maiatzak 23.
943 25 05 05 goienakide@goiena.eus 'Goiena app'-a / zozketa atalean.
GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...
GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus
DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!
goiena kide
Okm: batzen gaituen distantzia

## IRAGARKI SAILKATUAK

### 1. ETXEBIZITZAK

#### 104.ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Hiru logela dituen etxebizitza bat errentan hartuko nuke. Telefonoa: 663 48 05 25

**Arrasate.** Hiru logeladun etxebizitza baten bila nabil errentan hartzeko. 663 46 66 73

**Arrasate.** Igogailua duen etxebizitza behar dugu, desgaitasuna dudalako. Hiru logelakoa behar dugu eta maiatza edo ekainetik aurrera. 643 48 56 55

### 4. LANA

#### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Etxea garbitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696 46 03 85

#### 402. ESKAERAK

**Arrasate eta inguruan.** Nagusiak zaintzen eta denetariko garbiketak egiten lan egingo nuke, goizetan, 14:00ak arte. 632 11 44 77

**Arrasate.** Arrasateko neska arduratsu eta atsegina prest umeak zaintzeko edo nagusiei lagundu edo paseoan ateratzeko. Baita orduka ere. Telefonoa: 695 73 87 95

**Arrasate.** Emakume arrasatearra gertu nagusiak zaintzeko edota etxeko garbiketan egiten jarduteko. 688 66 76 91

**Arrasate.** Garbiketa lanetan edota pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 695 58 88 63

**Arrasate.** Goizetan garbiketak egingo nituzke. 651 02 03 14

**Arrasate.** Lokal, taberna zein etxebizitza eraikinetan garbiketak egingo nituzke. 608 15 37 07

**Bergara edo inguruan.** Neska arduratsua gertu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Haur hezkuntzako goi-mailako zikloa eta gradua daukat. Esperientziaduna. 634 42 85 11

**Bergara.** Emakumea gertu egun osoz, orduka edo aste bukaeratan pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Legezko agiriak ditut. 603 77 58 82

**Bergara.** Emakumea prest garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Egunez eta gauez. Telefonoa: 676 14 89 00

**Bergara.** Neska gazte euskalduna umeak zein animaliak zaintzeko prest, maiatzetik abuztura bitartean. 688 62 90 09

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Prestasun osoa. 631 46 07 33

**Debagoiena.** 25 urteko neska nagusiak zaindu eta kalera laguntzeko edota garbiketak egiteko prest. Egunean zehar edo etxean bertan bizi izaten. Baita ospitalean gauak egiten ere. 661 31 53 28

**Debagoiena.** Asteburuetan edo astean zehar orduka lan egingo nuke, zaintzan zein garbiketan. 632 19 08 26

**Debagoiena.** Asteburuetan edo astean zehar orduka lan egingo nuke, zaintzan zein garbiketan. 632 63 77 38

**Debagoiena.** Asteburuetan eta abuztuan zehar lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten bada, hobeto, baina orduka ere bai. 642 49 94 09

**Debagoiena.** Asteburuetan eta jaiegunetan zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke, baita orduka ere. 642 49 94 09

**Debagoiena.** Egunean zeharreko jardunaldian, orduka edota gauetan zaintza lanak egingo nituzke. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiri guztiekin. 612 53 92 72

**Debagoiena.** Emakume heldua, arduratsua eta esperientzia duena, adinekoak zaintzeko eskaintzen da, ahal dela etxean bertan bizi izaten. 642 66 14 74 (Esmeralda)

**Debagoiena.** Emakumea etxerako lanetarako prest. Esperientzia eta erreferentzia handiduna. Telefonoa: 608 64 33 73

**Debagoiena.** Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka eta baita gauetan ere. Telefonoa: 676 14 89 00

**Debagoiena.** Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, zerbitzari edo sukalde lanetarako prest. 654 44 19 62

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea naiz eta orduka lan egingo nuke nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan. Telefonoa: 620 23 58 15

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar lan egingo nuke. Legezko agiriak dauzkat. 608 64 33 73

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke nagusiak zaintzen, paseoan laguntzen, garbiketan edota etxeko lanak egiten. Telefonoa: 676 14 89 00

**Debagoiena.** Etxeko langile moduan, garbiketan edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Soziosanitario ikasketekin. 643 73 62 36 edo 643 73 62 83

**Debagoiena.** Garbiketaan edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 603 19 92 52

**Debagoiena.** Garbiketan, sukalde laguntzaile edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 663 40 92 67

**Debagoiena.** Gizon zintzoa lan bila dabil adinekoak zaintzen. Telefonoa: 647 21 03 07 (Raul)

**Debagoiena.** Gizonezkoa prest nekazaritza edo lorazaintza lanak egiteko, pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. 654 44 19 62

**Debagoiena.** Goizetan orduka edota gauetan nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu nago. 633 49 27 40

**Debagoiena.** Lanean hasteko gertu nago; zerbitzari lanetan, pertsona nagusiak zaintzen edota garbiketa lanetan. Telefonoa: 611 22 91 37

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketan aritzeko, animaliak zaintzeko eta abarretarako. 642 37 95 87

**Debagoiena.** Mutila gertu taberna, atari edota elkarteak garbitzeko, zerbitzari lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 612 49 66 57

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten edo bestela. Soziosanitario titulazioa daukat. Telefonoa: 659 90 85 13

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke, orduka edo gauetan zaintza lanak egingo nituzke. Soziosanitario titulua daukat. Telefonoa: 631 95 04 48

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 672 55 67 35

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaindu edo atari garbiketak egiteko. Orduka, egunez edo etxean bertan bizi izaten. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiri guztiak dauzkat. Berehala hasteko moduan. 617 81 57 57

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketan aritzeko. Orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izaten. 612 29 74 89

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketan aritzeko. Orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izaten. 604 88 27 26

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak zaintzeko edota garbiketak egiteko. Ordutegi arazo barik, baina etxean bizi barik. 617 81 57 57

**Debagoiena.** Orduka, garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita asteburuetan ere. 612 56 12 39

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzeko gertu nago. Telefonoa: 673 92 29 90 (Andres)

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut orduka zein etxean bertan bizi izaten. 605 02 04 97

**Debagoiena.** Prestasun osoa lanean hasteko; garbiketa lanetan, dendan saltzaile, zerbitzari, kristalari edo eraikuntza lanetan. 645 72 92 87

**Debagoiena.** Soziosanitario tituluroko ikasten ari naiz eta lanean hastea nahiko nuke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten, baita asteburuetan ere. 632 21 99 06

**Debagoiena.** Sukalde laguntzaile, garbitegietan, hoteleko langile moduan edota denetariko garbiketak egiten lan egingo nuke. Deitu telefono honetara: 688 71 08 09

**Debagoiena.** Taberna edo jatetxetan zerbitzari bezala jarduteko prest nago. 688 69 59 62

**Debagoiena.** Titulazioa daukan emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 696 84 19 51

**Debagoiena.** Zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke, orduka. Legezko agiriak dauzkat. Telefonoa: 615 40 35 18

**Emakume gaztea, lanerako prest.** Emakumea, haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko prest, orduka nahiz etxean bertan bizi izaten. Soraluzen bizi naiz, autobusa iristen den herrietan lan egiteko prest. Euskara ikaslea. 616 27 97 89

**Udara begira, haurrak zaintzeko prest Bergaran.** 17 urte dituen eta Bergaran bizi den gazte euskaldun arduratsua naiz. Prest egongo nintzateke udara begira haurren zaintzaile lanak egiteko. 688 74 30 39

### 5. IRAKASKUNTZA

#### 501. JASO

**Arrasate.** DBH 4-ko ikasle batek eskola partikularrak behar ditu Arrasaten. 649 32 47 39

### 7. ANIMALIAK

#### 703. EMAN

**Txakurkumeak.** Mastin txakurkumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 02 02 75

### 8. DENETARIK

#### 809. ERRENTAN EMAN

**Lursailak Aretxabaletan.** Aretxabaletan lursailak ematen dira errentan. Aproposak orturako, txakurrentzako, eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 76 34 40




### IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05
SAILKATUAK@GOIENA.EUS
WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
**Peio Uribe Coves**
Maiatzaren 25ean, 6 urte. Zorionak, Peio! Ondo ospatu zure eguna lagunekin. Muxu handi bat etxeko danen partetik.



DONOSTIA
**Maialen Agirre Pinacho**
Maiatzaren 22an, 9 urte. Zorionak eta egun ederra pasatu. Arrasateko amama, izeba Amaia, osaba Hakan, Naia eta Finn.



OÑATI
**Luken Olalde Agiriano**
Maiatzaren 21ean, 12 urte. Zorionak, Luken! Ederto pasaizu zeure egune eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik!



ANTZUOLA
**Aitziber Echezarreta Mugica**
Maiatzaren 20an, 10 urte. Urte askotarako, Aitzi! Oso ondo pasau eguna! Muxu potolo bat. Ainara, Elene, Aitor eta Irati.



OÑATI
**Unai Ibabe Kerexeta**
Maiatzaren 19an, 11 urte. Zorionak, Unai! Urte askotarako! Daueneko 11 urte! Ondo pasau eguna, Oñatiko eta Arrasateko familixen partetik. Laztan handi bat!



BERGARA
**Erik Oribe**
Maiatzaren 18an, 32 urte. Zorionak, aitatxo! Egun polita pasatzea opa dizugu. Muxu erraldoi bat familiaren eta, bereziki, Izeiren partetik.



BERGARA
**Julen Gomez Rebouças**
Maiatzaren 15ean, 7 urte. Zorionak eta muxu potolo bat, familiaren partetik. Gora Erreala, txapeldun!



ARRASATE
**Izar Saizar Cazalis**
Maiatzaren 14an, 10 urte. Zorixonak, pottoli! Edartotxu ospatu zeure eguna! Asko maitxe zaitxugu! Aita, ama, Ane eta Itxaso.



ARRASATE
**Ilargi Sanzberro Iria**
Maiatzaren 13an, 12 urte. Zorionak, laztana! Aurten bai urtebetetze desberdina. Espero pila bat disfrutatzia. Patxo potolo bat etxekoen partetik.



BERGARA
**Oxel Uriarte Sebal**
Maiatzaren 13an, 5 urte. Zorionak, Oxel! Ondo ospatu zure eguna eta muxu haundi bat etxeko danon partetik.

**ZORIONTZEKO HIRU BIDE**
- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *https://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu.
- Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



OÑATI
**Nahia Aramburu Moreno**
Maiatzaren 12an, 9 urte. Zorionak, Nahia! Segi orain bezain alai. Musu eta besarkada handia etxekoen partetik. Asko maite zaitugu!



OÑATI
**Hegoi Aranburu Zabaleta**
Maiatzaren 11n, 7 urte. Zorionak, polit hori! Asko-asko maite zaugu! Patxo potoloa familixakoen partetik, eta besarkada erraldoi bat Larraitzena!

## BERRI-ZAKUA



**53 urte ezkonduta**
Maiatzaren 16an, Txaro Kortazar eta Jose Mari Altuna ezkondu zireneko 53 urteurrena bete zen. "Familian ospatuko dugu eguna. Bidaia ona izan! Musu asko!".



**Aramaion, Lorabarri azoka**
Maiatzaren 13an borobildu zuten Lorabarri Astea, azokarekin. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, jende asko izan zen bertako ekoizleen produktuak ikusten eta erosten.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE** *EGUNEZ*

Egubakoitza, 19 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 943 77 16 30
Zapatua, 20 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Domeka, 21 JUNCAY: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Astelehena, 22 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Martitzena, 23 FERNANDEZ: Gipuzkoa etorbidea 11, Musakola / 943 79 22 26
Eguaztena, 24 SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria 15 / 943 79 09 74
Eguena, 25 ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

**BERGARA** *EGUNEZ*

Egubakoitza, 19 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 20 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 21 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 22 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 23 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 24 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 25 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

**OÑATI** *EGUNEZ BAKARRIK*

Egubakoitza, 19 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 20 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 21 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 22 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 23 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 24 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 25 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

**ARRASATE** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*

2023 osoan: JUNCAY: Iturriotz 17 / 943 79 79 99

**BERGARA** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*

2023 osoan: UMOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 154

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
*COF Gipuzkoa* aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

---

URTEURRENA

# Maria Urcelay Iturricastillo



Luis Elguero 'Takolo'-ren alarguna

2022ko maiatzaren 12an hil zen, 101 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da,
maiatzaren 21ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2023ko maiatzaren 19an.

---

URTEURRENA

## Jose Mari Ansoategui Fernandez de Arroiabe



2022ko maiatzaren 21ean hil zen, 78 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 21ean,
12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.
—
*Jose Mari, orain eta beti gure bihotzetan.*
*Asko maite zaittugu.*

*Zure familia.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2023ko maiatzaren 19an.

---

URTEURRENA

# Julio Zalama Escudero



2022ko maiatzaren 24an hil zen, 67 urte zituela.

Urteurreneko meza asteazkenean izango da,
maiatzaren 24an, 19:00etan,
Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2023ko maiatzaren 19an.

---

OROIGARRIA

# Ion Mirena Errasti Alzelai



2014ko maiatzaren 15ean hil zen.

*Bederatzi urte joan zinela*
*Ze latza egutegixa*
*Baina entzun zaituela kantari*
*Diozku txantxangorrixak*
*Haizeak firi-firi dakarzki*
*Zure pasadizo ta hitzak*
*Elkarrekin pasatako uneak*
*Bihotzaren pozgarrixak*
*Oroitzen zaitugun bakoitzean*
*Pizten da zure argixa.*

Bergaran, 2023ko maiatzaren 19an.

---

ESKER ONA

# Jose Lopez Sainz



2023ko maiatzaren 11n hil zen, 75 urte zituela.

*Eskerrik asko, aitita, eman diguzun danagatik,*
*ezeren truke, beti gurekin, beti laguntzeko prest.*
*Gure gogoan biziko zaitugu.*

Maren, Aratz, Oier, Naiara, Aitor, Nerea, Iñaki eta Irene.

Bide batez, milesker zuen babesa eman diguzuen guztioi.
Bergaran, 2023ko maiatzaren 19an.

---

ESKER ONA

# M. Aranzazu Urzelai Aiastui



2023ko maiatzaren 6an hil zen, 89 urte zituela.

Hileta elizkizunetara etorritakoei eta samin agurrak bidali
dizkiguzuenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Aldi berean, jakinarazi nahi dizuegu zapatuan,
hilak 20, 19:30ean, haren aldeko ondrak ospatuko
ditugula Agustindarren elizan.

Oñatin, 2023ko maiatzaren 19an.

---

ESKER ONA

# Sabina Altuna Arana



2023ko maiatzaren 17an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko maiatzaren 19an.

---



## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



**'ARTXIBOTIK TIRAKA': BERGARAKO JAIAK**
Bergarako Pentekoste jaien atarian artxibora joko dugu, aurreko urteetako saioen bila. Jaiek eman zutena ikusiko dugu.
***'Artxibotik tiraka'** Zapatuan, 19:00etan; domekan, 14:30ean eta 20:00etan.*



**GAZTE MAILAKOEN DERBIA**
Bergararen eta Aretxabaletaren arteko futbol derbia izango da. Bergararrek historia egin dezakete, Ohorezko Mailara igota.
***'Harmailatik'** Astelehenean, 21:00etan eta 23:00etan.*




**ALKATEGAIEKIN DEBATEAK**
Astelehenean, Eskoriatza; martitzenean, Antzuola; eguaztenean, Aramaio; eta eguenean, Elgeta.
***'Hauteskundeak'** Egunero, 21:30ean eta 23:30ean.*



**ERLEZAINENDAKO IKASTAROA**
*Landara* tartean, erlezainei eskainitako ikastaroaren berri emango du Txomin Madinak *Hemen Debagoiena* saioan.
***'Hemen Debagoiena'** Astelehenean, 18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan.*



**IÑIGO MARTINEZ PEÑA IRAKASLE ETA FILOSOFOA**
*Elkarrizkettap* saioan, Iñigo Martinez elkarrizketatuko du Ane Zabala kazetariak.
***'Elkarrizkettap'** Eguaztenean, 21:00etan eta 23:00etan.*

GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 19

**OÑATI Odol ematea**
Aurrez hartu beharko da ordua odola emateko, 943 00 78 84 zenbakira deituta.
*MUko Enpresagintza Fakultatean, 16:30ean.*

**ARAMAIO 'Poetas del rock'**
Musika Astearen barruan, Joserra Rodrigoren solasaldia.
*Sastiñan, 18:30ean.*

**ARETXABALETA Brgs DJaren emanaldia**
Aretxarte merkatarien elkarteak antolatuta, Brgs DJak Mitarte kalea girotuko du.
*Mitarte kalean, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Hacia la catedral' liburuaren aurkezpena**
Iker Murillo egilea egongo da ekitaldian. Irekia.
*Dublin Irish Pub-en, 19:30ean.*

**BERGARA 'Somos los payasos' antzezlana**
Pezkao Teatro taldearen eskutik. Sarrerak, sei euro.
*Kartzela zaharrean, 22:30ean.*

## ZAPATUA 20

**ANTZUOLA Orixolera irteera**
Arrola mendizale elkarteak antolatuta.
*Sagastin, 08:30ean.*

**ARRASATE Bertako produktuen azoka**
Loreak eta ortuko landareak izango dira protagonista Arrasateko azokan.
*Seber Altube plazan, 09:00etan.*

**ARRASATE Naturan Jolasean**
*Espeleologia txangoa Motxongo kobara, LHko 3. eta 4. mailetakoendako; arratsaldean auzolana, afaria eta izar behaketa.*
*Arrasaten, 10:00etan.*

**BERGARA Inprobisazio tailerra**
Antzerkigintzaren gainekoa. Sarrerak, 15 euro.
*Kartzela zaharrean, 10:00etan.*

**ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua**
11:00etan euskaraz eta 12:15ean gazteleraz. Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943 25 05 00.
*Herriko Plazan, 11:00etan.*

**ARRASATE Gaiteroen kontzertua**
Arrasateko Musikaleko Udaberri ziklo musikalaren baitan.
*Musika eskolan, 12:00etan.*

**ESKORIATZA Eskomotor jaia**
Esku pilota txapelketa, ibilgailu klasikoen erakusketa, herri bazkaria, esku pilotako finalak eta kontzertuak.
*Fernando Eskoriatza plazan, 09:00etan.*

**ARRASATE 'Herria kantari' jaialdia**
Arizmendi Ikastolako ikasleek kantuan egingo dute kalean, lau gunetan.
*Kalean, 12:00etan.*

**ARRASATE II. Mariatxi Festa**
Ibai-artek antolatuta, bi kontzertu: Duo Imperial eta Los Tenanpas –19:00etan–.
*Otalora Lizentziaduna kalean eta Herriko Plazan, 13:00etan.*

**ELGETA Gipuzkoako hiru txirlo txapelketa**
Gipuzkoako 52. hiru txirlo txapelketako bederatzigarren tiraldia egingo dute.
*Bolatokian, 17:00etan.*

**ARRASATE 'Los días ajenos de Bob Pop' antzerkia**
Gazteleraz; sarrera, 12 euro.
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

**ARAMAIO Arabako Eskolarteko finala**
Arabako Eskolarteko finalean hiru aramaioar izango dira.
*Kultura etxean,19:30ean.*

**ANTZUOLA 'De ratas y canguros' antzezlana**
Pezkao Teatroren eskutik. Sarrerak, sei euro.
*Gaztetxean, 22:30ean.*

## DOMEKA 21

**ELGETA Mendi irteera**
Gorobel mendilerrora irteera.
*Elgetatik autoetan abiatuta, 08:00etan.*

**ARRASATE Naturan Jolasean**
Gosaria, Ziorlatik jaitsiera eta talde argazkia.
*Arrasaten, 08:30ean.*

**ARRASATE Mendi ibilaldia**
Besaide eta Tellamendi igota, 14 kilometroko ibilaldia.
*Garagartzako plazan, 09:00etan.*

**ARETXABALETA Futbol torneoa**
Genuine Adeitasun torneoa jokatuko dute: Real Sociedad, Athletic Club, Alaves eta Eibar.
*Ibarra futbol zelaian, 10:00etan.*

**ELGETA Asentzio Eguna**
Meza eta jan-edana musikarekin.
*Asentzio ermitaren bueltan, 12:00etan.*

## ASTELEHENA 22

**ELGETA Podologoa erretiratuendako**
Txanda hartzeko, deitu 669 99 81 65 telefonora.
*Kultura etxean, 15:30ean.*

**OÑATI Yoga, emakumeendako**
Jabetze Eskolaren barruan, euskaraz.
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

**ARAMAIO 'Musika zineman'**
*Ennio: El Maestro* dokumentala, Musika Astearen barruan.
*Kultura etxean, 18:30ean.*

## MARTITZENA 23

**ARETXABALETA Odol ematea**
Odola ematera deitu dituzte herritarrak, eta horretarako autobusa etorriko da.
*Durana kalean, 16:45ean.*

**ARETXABALETA Trikiti emanaldia**
Leizarra Musika Eskolako ikasleen entzunaldiak Zaraia Aretoan. Konkretuki, trikiti emanaldiak.
*Zaraia aretoan, 18:00etan.*



IMANOL SORIANO

**OÑATI Errekaldeko jaietan Letagin taldearen emanaldia**
Gaur, barikua, hasiko dituzte jaiak: txorimalo eta erraldoiak, pintxo-potea eta garagardo dastatzea izango dituzte. Gauean rock kontzertuak izango dituzte: Rodeo, Erdoil, Sua eta Letagin taldeekin.
*Maiatzak 19, barikua, Errekalden, 21:00etan.*

**ARAMAIO 'Alaiak kantuan' emanaldia eta kantu-jira**
Alaiak Kantuan emanaldia egingo dute; aurrez, eguneko zentrora joango dira eta handik irtendakoan kalejira egingo dute.
*Sastiñan, 18:00etan.*

**ARRASATE Carlos Taiboren hitzaldia**
Askatasuna eta Giza Eskubideen Aldeko herri plataformak gonbidatuta.
*Gaztelupe ikastolan, 18:30ean.*

**ELGETA Hitzez Pitz irakurketa taldea**
Hitzez Pitz irakurketa taldea elkartuko da, 19:00etan, liburutegian. Proposatutako irakurketa, Garazi Goiaren *Txartel bat (des) herrira.* Informazio gehiago eta irakurgaiak, liburutegian eskatu.
*Elgetako liburutegian, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 24

**ELGETA Euskal dantzen ikastaroa**
Jaietako euskal dantzen ikuskizuna prestatzeko saioa, 5 eta 12 urte arteko neska-mutikoendako.
*Espaloia kafe antzokian, 16:30ean.*

**ARRASATE 'Petare' liburuaren aurkezpen solasaldia**
Leire Ibarguren egileari Edurne Epeldek egingo dio elkarrizketa.
*Jokin Zaitegi gelan,19:00etan.*

**OÑATI Zinegoak**
Zinegoak jaialdiko sei-zazpi film labur proiektatuko dituzte, jatorrizko bertsioan eta euskarazko eta gaztelaniazko azpitituluekin, hain zuzen ere.
*Zinema aretoan, 19:30ean.*

## EGUENA 25

**ARRASATE Sasoibide**
Irteera berezia egingo dute, Gure Ametsa jatetxetik Urbinaraino. Autobusa hartuko dute 10:00etan, Zalduspen.
*Autobus geltokian, 10:00etan.*

**BERGARA 'Helduen afektua eta arauak (3-12 urte)' tailerra**
Alvaro Beñaranen eskutik. Izena emateko: *angiozargurasozuzendaritza@gmail.com* helbidera idatzi.
*Arbiaska aretoan, 18:00etan.*

**ARAMAIO Musika Eskolako ikasleen emanaldia**
VIII. Musika Astearen barruan, musika eskolako ikasleen kontzertua egingo dute. Hain zuzen ere, 35 ikasle igoko dira taula gainera.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ARETXABALETA Maier Etxeberriaren hitzaldia**
Euskaraz izango da Maier Etxeberriaren hitzaldia. Umearen esperoan dauden guraso edo 0-18 hilabete bitarteko gurasoei zuzenduta dago. Adin horretako haurren ezaugarriei buruz jardungo du: lehen urteko ohiko garapen psikomotorra, mugimenduen askatasunean heztearen abantaila eta garrantzia, atxikimendu segurua eta segurtasunaren zirkulua, espazio eta material egokiak eta, bukatzeko, gorputz-jolasak egingo dituzte.
*Kukumikuren egoitzan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA 'Beltzuria' argazki erakusketa**
Gustavo Bravoren argazki erakusketa. 2011n, Bilbon, Alameda de Urkijo eta Bilboko Kale Nagusiaren arteko bidegurutzean jarri zen lehen zebra-bidea, eta harrezkeroztik betiko aldatu zen zebra-bidea egunero zeharkatzen duten pertsonen energia.
*Arkupen.*

**OÑATI Traste zaharrak batuko dituzte**
Traste zaharrak batuko dituzte. Esekitoki guneen ondoan utzi behar dira, 20:00etatik 22:00etara, baina aurretik deitu egin behar da: 943 71 19 38. Altzariak, koltxoiak, linea zuriko etxetresna elektrikoak –hozkailuak, arropa garbigailuak...– eta linea gris-marroiko etxetresna elektrikoak –telebista, ordenagailua...–. jasoko dituzte; ez, ordea, pneumatikoak, paletak, industria, nekazari eta abeltzaintza aktibitateetan sortutako hondakin handiak eta etxeetako obretako hondakinak.
*Oñatin, 20:00etan.*

## ZINEMA

**ARRASATE**

AMAIA ANTZOKIA

**Patti y la furia de Poseidon**
Domekan: 17:00.

**Los tres mosqueteros D'artagnan**
Domekan eta astelehenean:19:30.

**BERGARA**

SEMINARIXOA

**Hanna**
Domekab: 17:00.

**Las buenas compañias**
Domekan eta astelehenean: 19:30.

**OÑATI**

KULTURA ETXEA

**Mi crimen**
Zapatuan: 22:00. Domekan: 19:30, 22:00. Astelehena: 19:30.

**GASTEIZ**

FLORIDA

**20000 especies de abejas**
Egubakoitzean: 17:00, 19:30, 22:00. Zapatuan eta domekan: 11:30, 17:00, 19:30, 22:00. Astelehenetik eguaztenera: 17:00. Eguena: 17:00, 20:00.

**CFG: Solo Sunny (Vose)**
Martitzenean: 19:30.

**El incidente aliegigne del peqieño Alan**
Zapatuan eta domekan: 12:00.

**Fast & Furious**
Egubakoitzean, eta astelehenetik eguenera: 17:30, 20:30. Zapatuan eta domekan: 11:30, 17:30, 20:30.

**Florencia y la galeria Ufizzi**
Astelehena: 19:30, 21:00.

**Guardianes de la galaxia 3**
Egubakoitzean: 17:00, 19:15. Zapatuan eta domekan: 11:30, 17:00, 19:15. Astelehenetik eguaztenera: 17:30. Egunean: 17:00.

**La bella durmiente**
Eguaztenean: 20:15.

**Las ocho montañas**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:30.

**Marlowe**
Egubakoitzean: 21:45. Astelehenean eta eguaztenean: 20:30. Martitzenean: 17:15.

**Maurice Bejart (zuzeneko balleta)**
Egunean: 19:45.

**Mavka: guardiana del bosque**
Zapatuan eta domekan: 11:45.

**Mi crimen**
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:15. Astelehenetik eguenera: 19:00.

**Patti y la furia de Poseidon**
Zapatuan eta domekan: 12:00.

**Super Mario Bross**
Egubakoitzean, eta astelehenetik eguenera: 17:15. Zapatuan eta domekan: 11:45, 17:15.

**Vaya vacaciones**
Egubakoitzean, eta astelehenetik eguenera: 17:00. Zapatuan eta domekan: 11:45, 17:00.

**Sica**
Egubakoitzetik domekara: 19:15, 22:15. Astelehenetik eguenera: 19:15.

**Love life**
Egubakoitzetik domekara: 19:15, 21:15.

**La quietud en la tormenta**
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

**Una buena persona**
Egubakoitzetik eguenera: 17:15, 20:00.

**El colibri**
Martitzenean: 19:30.

## KRITIKA

**Marlowe** ★★☆☆☆
**Zuz.:** Neil Jordan. **Herr.:** Irlanda (2022). **Aktoreak:** Liam Neeson, Diane Kruger, Jessica Lange. **Iraupena: 109** minutu.

### Mamirik gabeko pastichea

**ANTONIO ZABALA**

Philip Marlowe detektibe pribatua da Raymond Chandlerren eleberri batzuen protagonista. Duela urte asko, Howard Hawksek, Chandlerren *El sueño* eterno liburuan oinarrituta, izen bereko film zoragarria egin zuen. Ondoren, izan dira pertsonaiari buruzko beste film batzuk, Neil Jordanek zuzendutako filmera heldu arte. Duela urte batzuk, John Banville idazleak, *Benjamin Black* ezizenarekin, *La rubia de los ojos negros* eleberria idatzi zuen Chandlerren *Marlowe* pertsonaia erabiliaz. Eta orain, Jordanek liburua zinemara egokitu du eta mamirik gabeko pastiche inpertsonala egin du. Filmak Chandlerren estilora hurbildu nahi izan du, nahiz eta jatorria beste idazle baten eleberria izan. Istorioa jarraitzen du liburuak, film beltzen egiturarekin eta eskemarekin. Pertsona bat doa detektibearengana, desagertutako beste pertsona bat bilatzeko. Hasieran kasu arrunta eta erraza dela ematen duen arren, gauzak korapilatzen hasten dira eta horren azpian askoz konplexua den eta pertsonaia ugari nahasten dituen istorioa dago. Eta tramaren barruan igar daiteke detektibearen begirada eta hitz egiteko modu maltzur eta ironikoa. Osagai horiekin, Jordanek liburu eta zinema beltzera hurbildu nahi izan du, eta, agian, omendu; edozelan ere, ateratako emaitzari, zuzena izan arren, originalek izaten zuten gatza eta pipermina falta zaio.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

goiena
Zu hemen zaude.

AZKEN BERBA



MARIA AGIRRE

## 'Aretxabaletako tomatea'

Tomateen top zerrendan goi-goian dago *Aretxabaletako tomatea* izeneko barietatea. Pentsa, lehengo egunean topatu nuen bikote bat Ondarroatik Aiako azokaraino joan zena tomate-landare famatuaren bila.

Aretxabaletako tomateak badu bere astea, egiten dira jardunaldi gastronomikoak, liburuak idatzi dituzte eta Wikipedian dator. Hain zuzen, jatorriari buruz ari dira azken horretan, eta diote: *Tomate hau* Aramaiora *eraman zuen moja batek, eta haren familiak erein zuen. Moja hura, ondoren,* Arrasateko Fagor *lantegian hasi zen lanean, eta tomate-landareak banatu zituen. Horrela iritsi zen Aretxabaletara, eta bertan baino ez da mantendu.*

Beraz, moja izandako andre bat, tomate-hazia gorde eta banatu zuena, baina, beste behin ere, izen-abizenik gabeko emakumea. Tira! Ez gara oso aspaldiko kontuez ari.

Fagorren lan egindako aramaioar haren izen-abizenak argitzeak ez du oso zaila izan behar. Horregatik, hau dena posible egin duen protagonistaren identitatea itzalean gera ez dadin, ondo legoke Wikipediako artikulua borobiltzea –ez bada, behintzat, emakumearen izena ez aipatzea eskatu dela–. Arrastoren bat, irakurle?

BUKATZEKO

# 2.600 bisitariko langa gaindituta, eta gorantz

Ikusmin berezia piztu du Miguel eta Agustin Lazpiur anaiek Bergarako Aroztegi aretoan ipini duten Euskal Herriko motor eta ziklomotor zaharren erakusketak. Dagoeneko 2.600 lagunetik gora igaro dira eta domekara arte egongo da ikusgai

**Miren Arregi Amasorrain** BERGARA

"Nork esango zuen... ezin sinistuta gaude, oso harrituta", diote Miguel eta Agustin Lazpiur anaiek Aroztegi aretoko atean, Espainiako gerra ostetik 80ko hamarkadara arte Euskal Herrian egindako motorren eta ziklomotorren erakusketara sartzen ari direla. Erakusketak izan duen bisitari kopuruaz ari dira. Asteotako eguenera bitarte 2.600 ikusle, maiatzaren 5ean zabaldu zenetik. "Badakigu afizioa badagoela", dio Agustinek. "Garai baten orain baino handiagoa; hala ere, harrituta gelditu gara, ez nuen horrelakorik espero".

Bisitarien artean asko bergararrak, baina Euskal Herriko beste txoko askotatik etorriak ere bai. Bilbotik, Gasteiztik... Guztiak motorzaleak, eta batzuk, motorren fabrikazioarekin lotura duten familiak ere bai, erakusgai dauden motorren egileen senitartekoak. "1947. urtean Jaime Ocarizek motorrak serie txikian fabrikatzeari ekin zion Tolosan, eta haren senitartekoak ere izan dira erakusketa ikusten. Are gehiago, "bihar ere etortzeko da haren iloba bat", gehitu du Miguel Lazpiurrek.



Agustin eta Miguel Lazpiur anaiak. M.A.



Lazpiur anaien motorrak eta ziklomotorrak, Aroztegin. M.A.

**Urteetako lanaren erakusgarri**

Ume-umetatik dira motorzaleak Lazpiur anaiak, eta orduak emate dituzte horretan. "Hauek Agustinek konpondu ditu denak", dio Miguelek. "Afizio handia daukat eta mekanika asko gustatzen zait", gehitu du Agustinek. "Etxean beti izan dugu zaletasun handia", erantsi du. Guztira, 25 motor eta ziklomotor ipini dituzte ikusgai, guztiak euren bildumakoak eta horietatik hogei Euskal Herrian egindakoak. "Hori da Agustinen filosofia", dio Miguel Lazpiurrek anaiaz. "Euskal Herriko ondarearen eta garai bateko ekintzaileetzaren testigantza gorde du. Hau da Euskal Herrian dagoen bildumarik osatuena". Eta honela jarraitu du: "Agustinek eskuratu eta konpondu ditu denak. Informazioa bilatu, faltan edo apurtuta dituen piezak egin, margotu, muntatu eta martxan jartzen ditu". Bilduma osatzeko falta dituzte modelo batzuk; izan ere, badakite 42 marka fabrikatu zirela Euskal Herrian denbora tarte hartan. Ezingo dituzte guztiak eskuratu, gehienak txatarrera botata daudelako, baina beste pare bat eskuratzeko esperantza badute. "Llanesera goaz astean, badakigu han bat dagoela; jabearekin hitzordua egin dut eta ea ekartzeko modurik dugun", dio Agustin Lazpiurrek. Lortuko balu, haren 60 motorretik gorako bildumara batzen azkena litzateke.

Bestelako proiekturik ere badute esku artean. Baporezko motor bat egiten dihardute orain, eta hilabeteko epean martxan jartzeko moduan izango dute. Miguelek diseinatu du, eta Agustinek egin du mekanizatua.

